

# Zu hemen zaude. goiena



## ESKUALDEKO TRIKITILARIAK HARTZEKO GERTU

Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatuko dute zapatuan Arrasaten; egun osoko egitaraua antolatu dute herriko Trikitixa Eskolakoeek / 34

Arrasateko Trikitixa Eskolako ikasleak eta irakasleak martitzenean, zapatuko Trikitixa Egunerako dei egiten. XABIER URTZELAI



### LAB sindikatu abertzalearen 50 urteko ibilbidea, Debagoieneko lau militanten testigantzekin / 2



### Gatzagan egin du Aldundiak Diputatuen Kontseilua, herrietara hurbiltzeko / 4

### Azken agur jendetsua eguaztenean zendu zen Oñatzeko dantza-maisu Jesus Irizar 'Txutxin' oñatiarrari / 30



AUTOAK 2024 / 20

PROGRESIBOEN  
HILABETEA

# 2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK  
IZAN DAITEZKE

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE



eskatu hitzordua



943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA

www.multiópticas.com   

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA  
Duela 50 urte, 1974ko udazkenean, sortu zen Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) euskal sindikatu independentista eta sozialista, eta Maiatzaren 1ean, Langileen Nazioarteko Egunean, manifestazio eta jaialdi nazionala egin ditu Iruñean. Sindikatuko afiliatuak dira Jose Luis Loidi *Rosli* (Bergara, 1961), Amaia Arana (Gasteiz, 1962), Ana Sebal (Bergara, 1980) eta Aitor Atxa (Oñati, 1995) debagoiendarrak, eta haiekin egin du GOIENAK LABen mende erdiaren errepasoa.

Bakoitza arrazoi ezberdinetatik afiliatu zen LAB sindikatura. 1988an zortzi urte zeramatzan lanean Amaia Aranak, eta beti lan egin izan du Aita Menin, baina "beti" azpikontratutako enpresa batekin: "Une hartan egon zen enpresa aldaketa bat, eta kaleratu egin ninduten. Haurdun nengoan eta oso momentu gogorra izan zen. Kaleratu ninduten egunean esan nuen zerbait egin behar nuela, ezin nuela hori horrela utzi, eta LABera joan nintzen". Epaiketa irabazi zuen eta 1991n haren enpresako LABeko ordezkari izendatu zuten: "2011n liberatu nintzen, eta, gaur egun, LABen Arrasateko egoitzan egoten naiz eta Auzolaguneko komiteko delegatua naiz".

*Rosli* 1983an hasi zen Union Cerrajeran lanean. "Birmoldaketa garaian sartutakoa naiz; orduan, 1983-1984an izan zen Labegaraiak Bizkaian eta Euskalduna itxi zituztela. Garai nahiko korapilatsuak izan ziren. Hemen ere Union Cerrajeratik fusio bat egin zen eta Laminor Amorebieta itxi eta Bergara-koarekin bat egin zuten. Oso garai ezberdinak izan ziren", dio. 1987an hasi zen langileen ordezkari, eta 2018ra arte horretan aritu da. Liberatu moduan 1996tik 2000ra egon zen, eta iazko Gabonetan jubilatu zen.

"Niretzako ezberdina da istorioa", dio Atxak, lauretatik gazteenak. Batxilergoan hasi zen militatzen ezker abertzaleko antolakundeetan, eta unibertsitatean eta ondoren ere horrelaxe jarraitu zuen. "Lanean jarraitu nuen militatzen. Duela pare bat urte esan zidaten industriari, Debabarrenean, arduradun baten beharra zegoela eta ea animatuko nintzen liberatzerantz bertan. Orduan, nire

# LABek 50 urte: iraganaz eta orainaz berbetan sindikatuko lau kiderekin

50 urte beteko ditu aurten LAB sindikatuak, eta ibilbidearen errepasoa egin du GOIENAK 'Rosli', Arana, Sebal eta Atxa LABeko ordezkari debagoiendarrekin

lana utzi nuen, eta dedikazioa horretara pasatu". Orduetik, Debabarreneko industriako lantaldeko kidea da oñatiarra.

Sebal, berriz, 2008an, "mundu mailako krisia bete-betean ez-tanda eginda" zegoenean, hasi zen sindikatuan: "Greba orokor pila egiten ziren. Nik ezagutu dudana izan da enpresen itxiera; oso gogorrak izan ziren LABeko nire lehenengo urteak. Aurrerago, LABek egin zuen euskal sindikalismoaren birpentsatze prozesu bat, non ordua arteko kapitala-lana dikotomiatik pasatu ginen kapitala-bizitza dikotomiara. Orduan, eraldatze prozesu haiek izan ziren sektore berrietara iristeko apustua, sektore feminizatua ere aintzat hartzea, etxeko langileak... Orduan ezagutu ditut sindikatu barruan beste arlo batzuk". Zerbitzu pribatuetako LABeko ordezkaria da gaur egun.

## 50 urteko bilakaera

Langileen lan- eta bizi-baldintzen alde borrokatzeko helburuarekin jaio zen LAB, 1974an; baita eraldaketa sozialak eta eraldaketa politikoak eragiteko ere. "Azkenean, sindikatu politiko-sindikala da, ez bakarrik arlo sindikalean enpresetan borrokatzen dena, baizik eta arlo sozial eta politikoa ere jorratzen dugu burujabetza bidean, eta beste hainbat esparrutan ere eragin nahi dugu. Sindikatu nazionala den bakarra garelako esan dezakegu -Ipar Euskal Herrian ere bai-, eta horrek esaten du gure kokapen politikoa zein den", dio Ana Sebalek. Atxak gehitu du helburua independentzia eta sozialismoa eta nazio askapenaren prozesua izanik, horren baitan beharrezkotzat zen sindikatua sortzea erabaki zela,



Rosli, Sebal, Arana eta Atxa Bergarako Labegaraietan asteen. ENEKO AZKARATE

ezker abertzalearen ildo estrategikoa jarraituko zuena, enpresa munduan eta gizarteko beste hainbat arlotan.

1974tik gaurdaino sindikatua "asko profesionalizatu" da, *Rosli*-ren iritziz. Uste du hasierako urteetan arlo politikoak askoz ere pisu handiagoa zeukala gaur egun daukana baino. Edozelan ere, lan-gatazkak azken urteetan handiagoak dira, haren ustez: "Baina orduan hildakoak zeuden, greba orokorrak edozein eguntan... Gaur egun, sindikatua formakuntza aldetik esango genuke garai hartan baino askoz ere jantziago dagoela, eta eraginkorragoak ere bagarela lan

**"KLASE KONTZIENTZIA ERATUAGO ZEGOEN LANGILEEN ARTEAN DUELA 50 URTE"**

JOSE LUIS LOIDI 'ROSLI'

**"LANGILEAK ANTOLATU ETA BORROKAK BULTZATZEN JARRAITUKO DUGU"**

ANA SEBAL

munduarekin zerikusia duten gatazka eta arazoekin".

Oñatiarraren esanetan, LABen sorreran "beste problematika handiago batzuk" zeuden: "Frankismo garaian sortu zen LAB. Orduan, langileen egunerokotasuneko arazoei ez zitzairen horrenbeste erantzun ematen, bazegoelako gatazka oso handi bat, eta erantzuna eman behar zitzaion gatazka politiko hari lehenengo". Horrekin batera, dio LABek asmatu egin duela jakiten langile klasea ez dela "gauza estanko" bat eta sindikatuak jakin duela unean uneko erantzunak ematen: "Lehen, hildakoak zeudenean, beste

**"EGUN, EMAKUMEEK BADAHITE BAKARRIK ETORTZEN EGOITZARA EUREN ARAZOEKIN"**

AMAIA ARANA

**"LAB-EK JAKIN IZAN DU UNEAN UNEKO ERANTZUNAK EMATEN"**

AITOR ATXA

eduki politiko bat zeukaten sindikatuek; gaur egun, ez dago beste indar hori; orduan, beste erantzun bat eman beharko zaio".

## Geroz eta emakume gehiago

Sindikatuaren bilakaera horretan, Ana Sebalen esanetan, sindikalismoa eremu maskulinizatua izan arren, feminismoa sartu da sindikatuan: "Datuek esaten digutena da afiliatuen %44 emakumeak direla". Gogoan du Amaia Aranak hasierako urteetan emakumeen presentzia "oso-oso txikia" zela: "Manifestazioetan eta grebetan elkartzen ginen, baina egoitzan oso emakume gutxi ginen. Etortzen zena, batik bat, ez zegoen afiliatuta, eta euren gizonen ondoan etortzen ziren. Emakumeek zeukaten arazoa, baina gizezkoek kontatzen zuten. Askok harritzen ninduen horrek". Hala ere, egoera aldatu egin dela dio, eta, egun, emakumeak bakarrik etortzen direla egoitzara euren arazoekin: "Emakumea kontzienteagoa da zer egin dezakeen berak bakarrik; ez duela gizezko bat behar haren ondoan borrokatzeko". Sebalek gehitu du emakumeek erakutsi dutela gai direla greba orokorrak deitzeko eta aurrera eramateko. *Rosli*-k azpimarratu du emakumeak ahaldundu egin direla.

## Harremana sindikatuekin

Langileen interesen alde lan egin behar izan dute, besteak beste, ELA sindikatuarekin, eta Sebalek dio elkarlanak eman dituela fruituak; esaterako, Karta Soziala eta *gehiengo sindikala* kontzeptua. *Rosli*-k gogoan du 1998ko Lizarra-Garazi hitzarmena: "ELAko eta LABeko idazkari nagusiak sintonian egindako fruituaren lana izan zitekeen. Garai hartan, Lizarra-Garazi txikiak ere herrietara etorri ziren, eta uste dut elkarlan hark emaitza onak eman zituela. Baina, askotan, horrelako batuketak izaten dira pertsonen harremanen arabera". Aitor Atxaren iritziz, harremana "derrigorrezkoa" da, euskal langileria ordezkatzan duten gehiengo bi sindikatu direlako. Hala ere, ez du uste harremanak unerik onenetan daudenik: "Bi euskal sindikatu gara oso proposamen ezberdinekin. Oso ibilbide eta historia ezberdinekin. Ez daukagu zerikusirik".

CCOO, UGT eta beste sindikatuekin duten harremanaz galdetuta, Sebalek aurreratu du akordio puntualak egin ditza-ketela: "Baina badakigu ez direla gure bidelagunak izango. Gu abertzaleak eta euskaldunak gara. Beste aldarrikapen batzuk ditugu; esaterako, UGTrekin hasiera puntutik ez daukagun komunean ezer. Kontziente gara gure apustua dela euskal gehien-go sindikalarena".

### Sindikatuaren indarrak

Orokorrean, sindikatuen indarrak galdetuta, *Rosli*-ren ustez, klase kontzientzia galera egon da, eta dio gaur egun fabrika barruan individualizatu egin direla harremanak eta zailagoa dela lehen izaten ziren elkartasun harremanak ikustea. Aitor Atxak nabarmendu du LABen kasuan afiliazio kopurua gehien-go historikoetan dagoela, eta inoiz baino beharrezkoagoak ikusten ditu sindikatuak, bi arrazoiengatik: "Ikusten ari gara kapitalismo fase berri honetan, neoliberalismoak hartu duen fase politikoan, dauden pribatizazioak... Hor ikusten da sindikatuan konfrontazio behar

bat hori gelditzeko. Beste puntu bat uste dut oso garrantzitsua dela, *Rosli*-k aipatu duena. Ikusten da klase kontzientzia lausotze bat egon dela eta uste dut lausotze horretan sindikatuak kapitalismoaren klabeak direla hori bukatzeko eta klase kontzientzia hori gizarteratzeko, edo inportantzia emateko".

### 50. urteurrenako ospakizunak

Maiatzaren 1ean, LABen Iruñeko manifestazio nazionalen 3.000 lagun elkartu ziren. Ondoren, festa nazionala egin zuten; esaterako, 1.000 herritarrek bazkaldu zuten herri bazkarian. Bezperan hasi zuten festa, zenbait herrialdeetako sindikatuetako ordezkarien hitzaldiekin.

Urteurrenaren harira, eskualdez eskualde aurkezpenak egiten ari da eta Debagoienera hilaren 22an izango da, Arrasaten, Kulturaren. *Eskuz esku. LAB zabal-tzen* ikus-entzunezkoa izango da ikusgai, eta Luis Loidi *Rosli*-k, Amaia Aranek eta Aitor Atxak hartuko dute hitza. 50 urteotako ibilbidea jasotzen duen *Euskal langile mugimenduaren 50 urte, 50 mugarri (1974-2024)* liburua ere kaleratu dute.



Mujika, ezkerrean, eskuan Galbahe saria duela, Galbaian enpresako ordezkari batekin. GALBAIAN

## Jose Ignacio Mujikak jaso du Galbahe saria

Coprecin "asmatzaile gisa egindako ibilbide oparoarengatik" 22 patente familiatan ageri da bergararren izena, eta horregatik eman dio saria Galbaian enpresak. Jabetza Intelektual eta Industrialaren Egunaren harira egin ohi dute aitortza, 2016tik

### I.A.A. ARRASATE

Jose Ignacio Mujika bergararrak jaso du 2024ko Galbahe sariaren garaikurra, "asmatzaile gisa egindako ibilbide oparoarengatik" Copreci kooperatibaren. Galbaian enpresako kideek, hau da, sariketaren antolatzaileek, adierazi dute "ondo merezitako saria" dela, 22 patente-familiatan ageri delako Mujikaren izena asmatzaileen zerrendan. "Ilusio berezia egiten digu saria Mujikari emateak. Patente arloan erreferente izan da Copreci kooperatibaren azken hogeitau urte baino gehiagotan. Patente mailan eta orokorrean jabetza industrial eta intelektual mailan urte hauetan guztietan Coprecik egindako

lan onaren atzean Mujikaren ekarpena dago, neurri handi batean", azaldu dute.

Beste urteetan bezala, Jabetza Industrial eta Intelektualaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna aprobetxatu zuen Galbaianek sarituaren izena ezagutzera emateko.

### Aurreko urteetako sarituak

Galbaian enpresak 2016. urtetik ia urtero -2020an COVID-19aren izurriteagatik izan ezik- eman izan dio Galbahe saria haren irizpideen arabera saria jasotzeko meritua gehien pilatu duen asmatzaileari. Hain zuzen ere, Galbaianek adierazi du balioa ematen diela eskualdeko asma-

tzaileei, "asko eta asko oso onak baitira".

Jose Ignacio Mujikaren sariarekin, bigarren aldiz jaso du Copreci kooperatibako asmatzaile batek Galbahe saria -2016an Copreciko Felix Kerejeta izan baitzen saritua-. Azken urteetan asmatzaile hauek jaso dute Galbahe saria, hurrenez hurren: 2017an, Eneko Izquierdo (Ulma Packaging); 2018an, Tomas Morlanes (Fagor Automation); 2019an, Manu Colino (Ulma Construction); 2021ean, Arrate Jaureguibeitia (Biolan); 2022an, Bitor Mendiguren (Integteam-eko sortzailea); eta 2023an, Nagore Abrisketa (Vicinity Marine Innovation).

## Hastapenak Debagoienera

Garbiñe Aranburu (Legorreta, 1973) da LABeko koordinatzaile orokorra eta *Rosli*-k kontatu du lehen pausoak ibarrean eman zituela: "Antzuolan zebilen taberna baten lanean eta etorri zen aukera eskualdean liberatu bat gehiago izateko. Zeukan profilagatik aukeratua izan zen eta gaur egun idazkaria da. Harrotzeko gauza bat da".



Garbiñe Aranburu. GOIENA

## LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENERA ATEAK ZABALIK

Etorkizuna zure esku

Fp ikasLAN EUSKADI LANBIDE HEZIKETA Gipuzkoa

### ARETXABALETAN: Maiatzak 8

**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**  
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
ia@aretxabaleta.com  
[www.ale-aretxabaleta.eus](http://www.ale-aretxabaleta.eus)

### BERGARAN: Maiatzak 7

**Miguel Altuna LHII Bergara**  
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

### OÑATIN: Maiatzak 15

**Oñati Institutua**  
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 899 300  
info@onati.net  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

2024 - 2025 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6TIK 27RA



Gipuzkoako Aldundiko Diputatuen Kontseiluak kideak Leintz Gatzagan, martitzenean, herriko alkatearekin. TXOMIN MADINA

# Gatzagan egin du bilera Diputatuen Kontseiluak

Aurrerantzean lurraldeko udalerrietan egingo dituen aldizkako bilkuretako lehendabizikoa izan da; Leintz Gatzagako errealitateaz gain, Aretxabaletakoa, Eskoriatzakoa eta Huhezikoa ere ezagutu ditu Eider Mendoza diputatu nagusiak

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Gipuzkoako udalerrietan aldizkako bilkura egingo ditu aurrerantzean Gipuzkoako Foru Aldundiak. Leintz Gatzagan egin du, esaterako, martitzenean. Modu horretan, legealdi hasieran jarritako asmoari, Gipuzkoan barrena ibiltzeari, heldu dio Aldundiak.

## Konfiantza sortzea helburu

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiaren hitzetan, aldizkako bilkura horien helburua ez da lekuak ezagutzea edo berriro ere bizitzea; harago doa asmoa: "Gauzak elkarrekin askoz hobeto egiten ditugunez, elkar ezagutzea eta konfiantza esparru horiek sortzea ezinbestekoa da". Hala, Leintz Gatzagan egindako geldione horretan, Mendozak eskerrak eman dizkio herriko alkate Dorleta Elkorobarrutiari, eginiko harrerarengatik, eta nabarmendu du lehendabiziko kontseilu ibiltaria Leintz Gatzagan egiteak baduela bere arrazoia:

herri txikiek lurraldeari egiten dioten ekarpena aintzat hartzea, hain zuzen. "Gipuzkoako Foru Aldundiak oso argi du Gipuzkoa orekatua dela eta herri txikiek sekulako ekarpena egiten diotela Gipuzkoako lurraldeari, hain justu, balio berezkoak dituztelako eta zaintzen dituztelako bai hizkuntzaren, ingurumenaren ikuspegitik, ohiturak...".

## Udalerririk txikien alde

Kontseiluaren bilkura egin aurretik batzartu ziren Mendoza eta Elkorobarrutia herriak dituen beharrez eta proiektu nagusiak aztertzeke, eta hau da Leintz Gatzagako alkateak nabarmendu zuena: "Hau da gure errealitatea. Bizirik jarraitu nahi dugun herri bat izan nahi dugu, baliabide turistikoak baditugu, baina bertakook ere bertan bizitzen jarraitu nahi dugu. Ez da mantendu bakarrik, baizik eta jendearendako erakargarri egin. Horretarako, daukaguna mantendu, daukagun ondarea zain-

du, baina ditugun zerbitzuak ere hobetzea derrigorrezkoa da. Beraiek aurretiko jarrera izan dute eta guk aprobetxatu dugu, eta seguru-seguru nago hemendik aurrera gauzak askoz ere hobeto bideratuko ditugula". Mendozak, bestalde, gaineratu zuen Aldundiaren konpromisoa udalerririk txikien alde egitea dela, eta, horren barruan, Udal Finantzaketa Foru Funtsean egingo den egokitzapena aipatu zuen: "Eudelek erabaki du herri txikiei diru baliabide gehiago bideratzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako espazioak sortu ditu, eta foru arau bidez hori egingo dugu: 1.100 biztanletik beherako herrientzat diru baliabide gehiago etorriko dira

## MENDOZAK ESAN DU ALDUNDIAREN KONPROMISOA UDALERRI TXIKIEN ALDE EGITEA DELA

foru funtsaren bidez, eta akordio hori lortu da Eudelen barruan. Guk horri garrantzi handia ematen diogu. Herri txikiek edukiko dute aukera gehiago inbertsioak egiteko".

## Arratsaldea ere bailaran

Behin diputatu nagusia alkatearekin bildu ostean, Gatz Museoa egin zuen bilkura Diputatuen Kontseiluak, bide azpiegituri, gizarte politikari eta ingurumenari lotutako hainbat neurri hartzeko; eta ondoren, museoa bisitatzeko tartea ere hartu zuten foru ordezkariak. Are gehiago, Mendozak arratsaldea ere Debagoiengan igarotzeko probestu zuen: Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultateko ordezkariarekin elkartzeko, eta baita Aretxabaleta eta Eskoriatzakoa alkateekin ere. Aretxabaletako alkate Garikoitz Iturbek, esaterako, adierazi zuen herriak dituen zerbitzuen eta proiektuen berri eman ziola Eider Mendozak diputatu nagusiari: "7.000 biztanleko herria gara. Tamaina ertainekoa, baina herri handi baten antzeko zerbitzuak eskaintzen ditugu, aurrekontu askoz txikiagorekin". Ildo horretatik, ez dela samurra "zerbitzu berrien eta inbertsioen arteko oreka mantentzea" gaineratu zion alkateak.

## Garraioa eta Urkulu

Zaintza-ekosistema baterako proiektua, garraio publikoa eta Urkulu izan zituzten Iturbek eta Mendozak hizpide, besteak beste. Osasun-zentro berriaren abian jarriko den zentro soziosanitarioak erakunde guztien babesa izan beharko lukeela adierazi zion, esaterako, alkateak. Garraio publikoari buruz, berriz, garrantzitsua dela "erakundearen arteko lana bailarako garraio publikoa eta hiriburuekiko loturak hobetzeke". Ildo horretatik, gogorarazi zuten Diputazioa eta Debagoieneko alkateak hasita daudela beharrik identifikatu eta hobetzeke bideak bilatzen.

Azkenik, "Urkulu urtegiaren garrantzia" ere mahai gainean jarri zuen Aretxabaletako alkateak, "alderdi guztiak" kontuan hartuta: biztanle eta abeltzainen beharrik, aisialdi erabilera eta balio ekologikoa, esaterako. Eta inguruko "azpiegiturak mantentzeko finantzaketa beharra" nabarmendu zuen.

## "Lehiatzea" izango du helburu Laboral Kutxak

Aurtengo kudeaketa plana aho batez onartu dute batzarkideek Donostian egindako batzar nagusian

## O.E.G. OÑATI

Batzar nagusia egin du Laboral Kutxak Donostiako Kursaal jauregian, eta 2023ko kontuak eta aurtengo kudeaketa plana aho batez onartu dituzte batzarkideek. "Lehiatzea" du helburu entitateak, gerora "eraldatzeko".

## Finantza egoera saneatua

Laboral Kutxaren 2024ko gestioak "abiapuntu bikaina" izango du, Xabier Egibar zuzendari nagusiaren hitzetan, entitateak "finantza egoera kaudimenduna eta saneatua duelako" eta "haren errentagarritasuna nabarmen" hobetu delako; are gehiago, adierazi du "errentagarritasun ziklo positiboak irau" egingo duela aurtun, "lehiakorrek diren ratioak lortuz eta zuzkidura funtsak indartuz". Hau gaineratu du: "Lehiatzea da helburua, eta, gerora begirakoei dagokienez, eraldatzea".

Donostiako Kursaal jauregian egin du batzar nagusia, joan den zapatuan, apirilaren 27an, Laboral Kutxak, eta han eman du aurrera begirakoen berri Egi-barrek, Adolfo Plaza presidentearekin batera; hain justu, lehendakari izendatu zutenetik, lehen batzar nagusia izan du Plazak. Batzarkideek, berriz, aho batez babestu dituzte iazko kontuak eta 2024rako kudeaketa plana.

## %48 gehiago

Adolfo Plaza presidentearen hitzetan, 2023ko emaitzak "bikainak" izan dira: "Sabai historikoa bat dira entitatearentzat, eta, haiei esker, finantza erakundeak etorkizuneko erronkei aurre egiteko aurreikusitako programa estrategikoa landu ahal izango du". Hain justu, 222,7 milioi euro irabazi zituen iaz -2022an baino %48 gehiago-, eta 2023a "negozioa garatzeko lorpen handiko urtea" izan da.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialak
- | Automatizazio eta Robotika Industrialak

## Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

#LanerakoGertu

## ATE IREKIAK

***Maiatzak 4***  
*11:00etan*

**Eman  
izena!**



[mondragon.edu/lanbideheziketa](http://mondragon.edu/lanbideheziketa)

**MGEP:** 664298683 // 664298704



Joan den astean aurkeztu zuten. IÑIGO BARRENA

## Bailara elkartea indartu nahi dute aurten

Joan den egunean egindako aurkezpen bileran, 2024rako dituzten lan lerroak aurkeztu zituzten, besteak beste. Nagusien artean, bazkide kopurua igotzea dago, egun diren 16 enpresatik 25 izatera. Eta talentuaren gainean hausnartu nahi dute

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Joan den azaroan aurkeztu zuten Bailara Industrial Network elkartea. Debagoieneko enpresa ertain eta txikiak saretzeko helburuarekin jarri zuten martxan. Haien potentziala zein den aztertu eta elkarlanerako gertuko espazioak sortzea da beste helburuetako bat, eta, momentuz, hamasei enpresak osatzen dute sare hori. Hain zuzen, sare hori handitu nahian, beste aurkezpen bat egin zuten, besteak beste, 2024rako dituzten lan lerroak aurkezteko.

Lehentasunen artean elkartea sendotzea dago, 25 enpresa izatera iritsi arte. Bestetik, eraldaketa digitalean eragin nahi dute, baita berrikuntzan, ikerketa eta garapenerako proiektuak aurrera eramanez eta kudeaketarako ahalmena sendotuz. Baina lan lerro garrantzitsuenetakoa talentua erakartzearena dela azaldu zuten. "Bailara bezala hausnarketa bat egin nahi dugu, talentua nola erakarri ahal

dugun jakin eta berau finkatzeko; izan ere, enpresek zailtasunak dituzte talentua erakartzeko", dio Mikel Orobengoa ISEA-ko zuzendariak.

### Enpresen mapa birtuala

Hilabete hauetan Bailarak aurrera eraman duen beste ekin-tzetako bat Debagoieneko enpresen mapa birtuala egitea izan da. Saiolan dabil hori bideratzen, eta Debagoiengan dauden gaitasunak eta enpresek dituzten erroka eta beharrak lehen eskutik jakitea da proiektu horren funtsa. Horretarako, 400 enpresari inkesta bat bidali diete, eta oraindik %20ko erantzuna jaso dute. Asmoa ahalik eta enpresa gehien mapa horretan sartzea

**GAUR EGUN 16  
BAZKIDEX OSATZEN  
DUTE BAILARA.  
2024AN 25 IZATERA  
IRITSI NAHI DUTE**

litzateke, bertan enpresa bakoitzak ikusi ahal duela Debagoienerako enpresen jarduna nolakoa den eta nora bideratuta dagoen. "Bailaratik enpresetara hurbildu eta informazioa batzea gelditzen da, ondoren, enpresek proiektuak martxan jarri ahal izateko", dio Eneko Odiagak, Saiolaneko kideak.

### Parte hartzearen onurak

Aurkezpenean batu ziren enpresei Bailaran egoteak dituen onurak ere azaldu zizkieten, adibide praktikoa baten bidez. Ekitermik, Sormen eta Kruce enpresen arteko elkarlanetik abiatutako proiektua jarri zuten adibide gisa. "Ideia edo proiektu bat duzunean, Bailara elkartean dauden enpresak begiratu eta ideia hori garatzen lagungarri izan daitezkeen bazkideak aurkitu ditzakezu. Zenbat eta enpresa gehiago izan, orduan eta aukera gehiago egongo dira ideiak partekatzeke", adierazi zuen Romo Artexek, Kruce enpresako kideak.

## Zibersegurtasunean aitzindari izatea lortu du Ikerlanek

Estatuko lehen zibersegurtasun industrialeko laborategia izatea lortu du Arrasaten kokaturiko zentroak

I.B.K. ARRASATE

Ikerlan zentro teknologikoak Espainiako lehen zibersegurtasun industrialeko laborategia izatea lortu du, ENAC Egiatza-penerako Erakunde Nazionalak akreditatua. ENACek akreditatutako zibersegurtasuneko laborategia Digilaben dago, 2022aren amaieran inauguratutako Espainiako teknologia digitalen laborategirik aurreratuenean. Digilabek Ikerlaneko ikertzaile taldearen eta bere bezeroen eskura jartzen du azpiegitura horretatik kanpo eskuragarri ez dagoen teknologia, eta talentua zentro teknologikora erakartzeko tresna handia izaten ari da.

Ikerlanetik diote garrantzi handiko lortu dela ingurune industrialetan zibersegurtasuna babesteko, eta, gainera, ziurtagiri horrekin, European erreferente eta Espainian jarduer

hori egiteko akreditatutako lehen erakunde bilakatu da.

### Fidagarritasuna handitu

Ziurtagiri hori izateak daukan garrantziari dagokionez, Marcelino Caballerok, zibersegurtasun laborategiko zuzendariak, aurrerantzean bezeroek euren gan izango duten konfiantza handitu egingo dela uste du: "Europak produktu elektronikoen 2026an nahitaez bete behar duen araudi bat onartu du, produktuek izan beharreko gutxiengo zibersegurtasun maila ziurtatzeko. Guk denbora daramagu hori egiten proben banku horren bidez. Akreditazio horrekin, bezeroek konfiantza sendoagoa lortzen dute beren produktuen zibersegurtasunari buruz ematen ditugun txostenen fidagarritasunari buruz, baita bezero propioek eta hirugarrenek ere".



Espainiako lehen zibersegurtasun industrialeko laborategia da Ikerlan. IKERLAN

## Katearen Loturak elkartea aurkeztuko dute martitzenean

Patologia duala duten gaixoen senideei eta kaltetuei laguntzeko diziplina askotariko lan-elkartea da Katearen Loturak. Jendartearen aurrean aurkezpene egingo du martitzenean, hilaren 7an, Arrasateko Kulturategiaren areto nagusian, 18:30ean. Eskualdean "familia askok jasaten duten" patologia dualaren arazoari buruz dituzten "kezkek,

ideiak eta proposamenak azaldu" nahi dituzte. Patologia dualean, pertsona batek bi patologia ditu aldi berean: bata mendekotasuna da eta bestea, buru-nahastea.

Aurkezpenean, Gabriela Michel Zugazabeitia Donostiako Elizbarrutiko Familia Orientazioko Zentroko koordinatzaileak, Javier Ogando Rodriguez Patologia Dualeko Espainiako Elkarteko ohorezko bazkide den psikiatrak eta Lourdes Fernandez Manzano familia-bitartekariak hartuko dute parte.

# "Gamarra da hemengo ostalaritza eskola"

**AITOR ETEXEBARRIA** GAMARRA OSTALARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA  
Gasteizko Gamarra Ostalaritza Eskola erreferentea da sektorean. Asko dira bertan ikasi eta ostalaritza sektorean lanean diharduten debagoiendarrak

Ostalaritza ikasi nahi duten ikasle eta irakasle debagoiendar gehienek Gasteizko Gamarrako Ostalaritza Eskola aukeratzen dutela dio Aitor Etxebarria (Bergara, 1971) irakasleak.

## Azaldu ezazu: zer da Gamarrako Ostalaritza Eskola?

Lanbide Heziketako ikastetxe integratua eta publikoa da; 35 urteko eskarmentua duena. Kalitatezko hezkuntza eskaintzen duen zentroa, garaiko aurrerakuntza teknologietara egokitzen ari dena. Eskola inklusiboa, jasangarria, eta guztiz doakoa.

Jasangarritasuna kontuan hartzen dugu. Ingurumenarekin oso kontzientziatuak gaudelako, gure eskolako ortua abiapuntu bezala hartuta, hurbileko produktuak erabiltzera bultzatzen ditugu gure ikasleak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak Eskola Jasangarriaren saria eman digu.

## Ze ziklo eskainiko duzue?

Maiatzaren 6tik 27ra bitartean irekita egongo da aurrematrikulazio epea. Bestetik, maiatzaren 7an, 13an eta 20an ate irekiak izango ditugu, 16:30ean. Gure webgunean –[www.gamarra.eus](http://www.gamarra.eus)– izena eman daiteke jada. Hona-hau izango da eskaintza: Oinarrizko Zikloan, Sukaldaritza eta Jatetxe Arloa A eta D ereduak. Erdi Mailan, berriz,



Aitor Etxebarria, erdian, Gamarrako ikasle eta irakasle debagoiendar batzuekin.

Sukaldaritza eta Gastronomia zikloan bi talde egongo dira, bata A ereduaren eta bestea D ereduaren; Okintza, Gozogintza eta Jatetxe Arloko Zerbitzu zikloetan talde bana, B ereduaren. Goi Mailan, Sukalde Zuzendaritza zikloan bi talde, A eta D

## "GURE OSTALARITZA ESKOLAN ZIKLO GUZTIETAN DAUKA PRESENTZIA EUSKARAK"

ereduetan. Jatetxe Arloko Zerbitzu Zuzendaritzako ziklo berria ere eskaintzen dugu, goi mailan, B+ ereduaren.

## Euskarak ziklo guztietan izango du presentzia?

Bai. Gure ikastetxea lan handia egiten ari da alor horretan, eta Oinarrizko, Erdi eta Goi mailako ziklo guztietan izango du presentzia euskarak.

## Nolako eskola topatuko dute joango diren ikasleek?

Alde batetik, maila handiko profesionalak aurkituko dituzte bertan, guztiz eguneratuak eta

eskarmentu handikoak metodologia berrietan. Horri lotuta, benetako praktika bidezko ikasketak egiten ditugu gure jate-txean, dendan eta askotariko eskaintza gastronomikoetan. Bestalde, ikastetxeak aurrera eramaten ditu honako hezkuntza-proiektu berritzaile hauek: Ethazi, Etekin Handiko Zikloak metodologia, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza; Erasmus +, ikasleek ziklo amaierako lan-praktikak Europako enpresaren batean egiteko aukera eta Europako hainbat ikastetxetan ikasle-trukeak egiteko aukera; Txandakako erregimeneko LH Duala, zeini esker ikasleek partekatu ahal izango duten ikastetxeko prestakuntza eta enpresaren batean lan eginez trebatzea lan kontratu edo beka baten bitartez; eta berrikuntza proiektuak, eskola-baratzea ekonomia zirkularra garatuz –baratzetik mahaira, zero kilometro...–, berdintasun proiektuak, Agenda 2030 eta beste batzuk.

Beste alde batetik, ikastetxea guztiz berrituta dago, eta berritze lan gehiagorekin jarraitzen du. Aurten, ikasgela murgiltze eta interaktiboa sortzen ari gara eskolan, teknologia berriak erabiltzeko, garai berriari egokituz: sukaldeak, gozotegia, okindegia, jangela, kafetegia, denda, baratza, liburutegi berria, zentzumenen gela eta abar, eta abar orain dela gutxi berritu dira.

## Zein lanpostutan egingo dute lan ikasketak amaitu ondoren?

Egin duten zikloaren arabera lanpostuak izango dira. Sukaldaritza eta Gastronomia zikloa eginda, sukaldariak edo gozogileak izango dira jatetxeetan, hoteletan, zahar-egoitzetan, eskoletan...; Okintza, Pastelgintza

eta Gozogintza eginda, okinak eta gozogileak izango dira elikagai industria alorreko enpresetan eta gozogileak ostalaritza enpresetan. Azkenik, Jatetxe Arloko Zerbitzuak eginda, zerbitzariak, tabernariak, maitreak, sommelierak, jangelako arduradunak edo jatetxe arduradunak izan daitezke. Goi Mailako Sukalde Zuzendaritza zikloa eginda, sukaldaria, sukaldeburua, sukalde zuzendaria, catering eragiketen burua, janari eta edari zuzendaria izan daitezke, eta administrazioko hainbat arlotan lan egiteko baliagarria den ikasketa da: Osakidetzan, hezkuntzan... Goi Mailako Jatetxe arloko zerbitzu zuzendaritza egiten dutenek, berriz, maitre, sommelier, jantokiko buru, enpresa zuzendari, edari zuzendari... eta administrazioan, hezkuntzan.

Ostalaritza oso arlo egokia da esperientzia izan eta gero nor bere enpresa sortu ahal izateko. Gure ikastetxeko zenbait ikasleek bide hori hartu dute eta pozik daude enpresari lanetan; horretarako, Urratsbat programaren laguntza eskaintzen dugu.

## Ikasketak amaitzen dituzten ikasleek erraz topatzen dute lana?

Ostalaritza eta elikagai industria sektoreek pisu handia dute gure ekonomian, eta erraz aurkitzen dute lana gure ikasleek, egun ostalaritzak gozatzen duen egorekin. Gure zikloen batez besteko lan-txertatze maila %90 ingurukoa da.

## "GURE ZIKLOEN BATEZ BESTEKO LAN-TXERTATZE MAILA %90 INGURUKOA DA GAUR EGUN"



**ETORKIZUNA ZURE ESKURA**

**FORMAUNTZA:**

TABERNA-KAFETEGIA  
SUKALDARITZA  
GOZOGINTZA  
SUKALDE-ZUZENDARITZA  
OKINGINTZA  
JATETXEA



**ESKOLA PUBLIKOA  
ETA DOAKOA**

Eman izena  
maiatzaren 6tik 27ra.  
Ate irekiak  
maiatzak 7, 13 eta 20

**gamarra**  
ostalaritza eskola • escuela de hosteleria

Informazio gehiago

Tif. 945 25 80 25  
[gamarra@gamarraeskola.com](mailto:gamarra@gamarraeskola.com)  
[www.gamarra.eus](http://www.gamarra.eus)





ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

# Kontsumismo adiktiboa

Kontsumismoa, "beharrezkoak ez ditugun ondasunak kontsumitzeko neurrigabeko joera"; XX. mendean garatutako fenomeno, gure sistema ekonomikoaren funtsezko elementua. Planetaren osasunerako kaltegarria izateaz haratago, gizakiarengan ere badu eragin psikologikoa. Europako kontsumitzaileen heren batek kontrolik gabeko erosketa arazoak omen ditu, eta hausnartu gabeko kontsumoarekiko mendekotasun-maila handia.

Adibide argia arropen kontsumismo adiktiboa da. Urtero, 100.000 milioi arropa baino gehiago ekoizten dira –azken 20 urteetako bikoitza–. *Fast fashion* moda azkarraren ondorioz, tendentziak aldatzen doazen abiadura berean areagotzen da kontsumismoa, eta jantzi bakoitzaren bizi-denbora laburtu.

Eta adikzio horren gorakadan eragina izan dute online erosketek eta horien itzulketa-mailaren gorakadak. Oro har, online erosketen itzulketa-tasa aurrez aurreko erosketena baino altuagoa da, Internet bidez inpuitsiboki erostea errazagoa delako eta, sarri, behar ez ditugun produktuak eskuratzen ditugulako. Baina azkenaldian, tasa horrek gora

egin du –%20-30etik %75era hainbat arropa markatan–. Arrazoiak? Enpresa askoren itzulketa-politika eskuzabala, besteak beste.

Baina non bukatzen dute itzulpen horietako askok? Hainbat enpresarentzat negozio-aukera berriak ekarri ditu kontsumismo eta itzulketa masibo honen fenomenoak. Gero eta gehiago dira arropa edota beste produktu batzuekin loteak osatu eta salgai jartzen dituztenak, produktua dendara bueltatzeak duen kostua baino errentagarriagoa izan omen da-eta askotan.

Baina artikulu asko ez dira inoiz salmenta-zirkuitura bueltatzen; Txileko Atacamako desertua bezalako arropa baztertuen zabortegietan amaitzen da beraien bizi-zikloa, moda azkar eta merkearen produkzio bizkorrari esker. Arropen hiru bostenek zabortegietan amaitzen dute, ekoizten direnetik urtebeteko epean. Hurrengoa erosten dugunean, beharbada, birritan pentsatzea komeni.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Txalo erraza eta arrisku asko

MAIDER GALARDI F. AGIRRE  
'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/E12RX](https://labur.eus/E12RX)

Atzoko egunaren aitzakian kuadrillakoen lan baldintzen errepasoa egin nahi nuen: I-k tesia aurkeztu du eta ospatzeko elkartu gara Maiatzaren 1aren bezperan. "Orain zer?", dio haurdun egonda azken astera arte baja hartu ezin duenak, eta I-k erantzun 800 eurotan ordezkapenak egingo dituela. Beste I goiz joan da etxera, biharamuna jai izan arren jabeak denda irekitzea erabaki duelako. A berandu heldu da, bere erresidentziako

kide bat gaixo delako eta ez dutelako ordezkorik jarri. [...]

Pedro Sanchezen maitasun deklarazioarekin jolastu nahi nuen eta adimen artifizialak egindako boleroa euskarara itzuli, baina pentsatu dut norbaitek esango duela emakume gazte honek politikaz ezer gutxi dakiela eta zer ari den zutabe bat horretan xahutzen. [...]

Oroitu naiz aitona heriotza-urtemuga dela gaur, eta biharko egunez duela sei urte izan zela hileta, ETAK behin betiko desegitea iragarri zuen egunean. Konparazio friboloak egin nitzakeen. Pentsatu dut, ordea, gure belaunaldiari esaten zaigula ez dakigula "zer diren garai

gogorak" eta ez dugula "memoriarekiko errespeturik". Eta nire 14 urteko lehengusinak ez du jakingo zein memoriaz ari diren, aitona arenez ala gatazkaz.

Esaten zaigu, finean, *woke* batzuk gabela. *Progre* ezjakinak, jaiotzetik minduegiak. Nik ere ez nekien zer zen hitz hori duela gutxira arte. Heldu da, baina, Kaliforniatik guregana urte batzuen ostean, euskarazko itzulpenik gabe, baina euskaldunen ahotan. Sumatu dut Twitterren. Badakizue hitz hori beste batekin jarri zela modan? *Incel*. Eta horietatik asko ikusi dut nik ere azkenaldian sareetan eta euskaraz.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantxabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzardea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
EGOITZA NAGUSIA  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 18.550 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Pantailari begira bagaude, ez gaude presente"

MIREN ROS HEZITZAILEA

**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA Gipuzkoako beste herri batzuetan bezala, Bergaran ere Altxa Burua izeneko taldea osatu dute. Miren Ros adituarekin egin dute martitzenean hitzaldi-tailerra. Zarautzen sortutako *Gure aukera, Guk 16* taldeko kide da Ros. *Hemen Debagoiena* saioan elkarrizketatu du Larraitz Zeberio.

**Eskuko telefonoen erabilera da arreta eta kezka handiena pizten duen gaitako bat?**

Gori-gori dagoen gaia da; duela hamar urte, hezitzaileak eta gurasoak beste gai batzuek kezkatuta zeuden, eta nerabeen pantailen erabilera da gaur egun kezka handiena pizten duena.

**Pantailak eragin handia dute: sortzen duten menpekotasuna... Umeengan eta gazteengan jarri ohi da arreta; zuzena da?**

Ez. *Gazteak eta pantailak* esaten dugu, baina, lehenbizi, geure zilborrari begiratu behar diogu. Denok gaude, neurri batean, pantailen mendean, ez gazteak bakarrik. Mugikorra desblokeatzen dugun bakoitzean, otsoaren kobazuloan sartzen gara. Pantailaren beraren diseinua dago pentsatuta erabiltzailearen arreta pizteko. Eta, zer esanik ez, bertan aurkituko ditugun



Miren Ros hezitzailea Goienan, martitzenean. LARRAITZ ZEBERIO

aplikazioak, sare sozialak... Helduok freno zapaldu eta egiten dugun erabileraren gainean hausnartu behar dugu. Guraso edo hezitzaile garen neurrian, txikiak geuri begira daude. Eredugarri izan behar dugu.

**Zer da nomofobia?**

Mugikor barik egoteak sortzen duen urduritasunari, antsietateari..., deitzen zaio nomofobia. Biztanleriaren %53k nomofobia duela diote datuek. Nerabeak bakarrik hartuko bagenitu, esango

genuke %99,9k duela nomofobia. Eskuko telefonoa etxean ahaztu dugunean gertatzen zaiguna da, esaterako. Baina zergatik beti geurekin eroan behar? Pauso txikiak eman behar ditugu desintoxikazioa, deskonexioa, egiten joateko. Adibidez, herrian afari bat badaukazu, utzi etxean mugikorra. **Seinaleak badaude: mugikorra iratzargailua da, esnatu eta berehala begiratu, mezuak eta deiak berehala erantzuteko premia...**

Baina ez gara jabetzen. Pantailari begira gaudenean, ez gaude beste ezeri arreta jartzen. Hainbat unetan mugikorraren mendean gaude, hark kontrolatzen gaitu. Eta, hortaz, autokritika egin behar dugu, konturatu eta pausoak eman. Nahiz eta jakin ez dela gailu neutro bat eta erabilera egokia egitea erraza ez dela.

**Bergarako Altxa Burua Taldeak gonbidatuta izan zara Seminararioan; ze ekarpen egin dezakete halako ekimenek?**

Handia. Taldearen indarra ezinbestekoa da. Zarautzen duela bost urte abiatu genuen ekimena. Aitzindariak izan ginen. Ados jarri ginen, esaterako, seme-alabei lehen mugikorraren eroketa-adina atzeratzean. Handik abiatuta, pausoak ematen joan gara. Hala, duela bost urte, DBHko lehen mailan, nerabeen gehiengoak mugikorra zeukan; gaur egun, %90ek ez dauka mugikorrak adin horretan. Erronka da 16 urtera arte luzatzea epemuga. Ez da egun batetik bestera lortzekoa, baina gaur egun, jada, ez da ezinezkoa. Pausoak eman ditugu. Garrantzitsua da gurasoak sinistuta egotea.

**Nola lortu duzue, pantailaz inguratuta bagaude eta guztiak horietara bideratzen bagaitu?**

Maila eta gela bakoitzean, familia batzuek egiten dute seme-alabei mugikorra erostearen aldeko hautua. Baina taldearen indarra da garrantzitsua. Errespetatu egin behar da bakoitzaren erabakia, baina batzuen erabakiak ez dezala beste

guztiak atzetik segiarazi. Domino efektua saihestu eta gurasoen artean hitz egin, elkar babestu... Hori guztiak inportantea da. Simplea da: umeen artean inork ez badauka mugikorrak, beharrik ere ez du sumatuko.

**Saioak egiten dituzu gaztetxoekin ere; zer diote?**

Mailaren arabera ezberdina da. Baina esango nuke arazo horren gaineko kontzientzia badagoela. Batxilergoan eta mendekotasuna handiagoa da, eta erabilera okerragoa. Jabe dira ez dutela erabilera egokirik egiten, baina atsekabe puntua ere badute. Lagun guztiak hala badabiltza, haiek ere bai, bestela kanpoan geratzen direlako. Txikiagoek beste modu batera ikusten dute, DBHra iritsi artean. Gazte batzuek guraso batzuek baino kontzientzia handiagoa dute arazoaz.

**Zer da pantailaren erabilera egokia?**

Erabilera kontzientea. Norberak erabakitzea. Edozein dela erabilera.

**"GAZTE BATZUEK GURASO BATZUEK BAINO KONTZIENTZIA HANDIAGOA DUTE ARAZOAZ"**

**"PANTAIEN ERABILERA EGOKIA DA KONTZIENTEA DENEAN, EDOZEIN DELA ERABILERA"**

## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI



# "Itzulpen arloa garatzen jarraitu behar dugu"

IGOR LETURIA ORAI NLP TEKNOLOGIAK ZENTROKO KIDEA

'Euskararen mehatxuak eta aukerak adimen artifizialaren etorrerarekin' hitzaldia egingo du maiatzaren 8an, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan, AEDk antolatuta

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Adimen artifizialaren garapenearekin lotuta, euskarazko itzulpenak azkar eta ondo egiteko tresnak garatzea funtsezkotzat du Igor Leturiak (Arrasate, 1971). **Nola definituko zenuke adimen artifiziala?**

Izatez, informatikaren edo konputazio-zientzien azpiarlo bat da, helburu duena gizakiongan edo izaki adimendunongan berezkitzat jotzen diren gaitasunak imitatuko dituzten makinak sortzea eta horretarako teknikan ikertzea. Azkenaldian, ordea, terminoaren beste erabilera batzuk ere zabaldu dira.

**Zertan dihardu lanean Orai NLP Teknologia zentroak?**

NLP (Lengoaia Naturalaren Prozesamendua) adimen artifizialaren arlo bat da, ahozko zein idatzizko hizkuntzarekin zerikusia duten gaitasunekin lan egiten duena. Gure zentroa Elhuyarrek euskararentzako NLPan ikerketa egiteko sortu zen eta lan egiten dugu ikuspegi etiko, kritiko eta arrazoizkotik. Hamabost bat pertsona gara gaur egun.

**Zuk ze ardura duzu hor?**

Zentroko bi arloetako baten arduraduna naiz, hizketa-teknologiaren. Bestea testu-teknologiarena da. Ahozko hizketaren ezagutzan eta sorkuntzan aritzen gara lanean: azpitolazio automatikoa, zuzeneko transkripzioa, hizketaren sintesia, ahotsen imitazioa eta abar.

**Nola ari zaio eragiten adimen artifizialaren garapena euskarari?**

Euskararentzat asko garatu izan da eta garatzen ari da adimen artifiziala, guk eta baita beste erakunde batzuek ere, bertakoek zein ez. Eta horrek, dudarik gabe, maila handian eragiten dio euskarari, aukera ugari sortuz, eta baita mehatxuak ere.

**Zein da mehatxu nagusia?**

Euskara ez-beharrezko bihurtzea. Etorkizunean euskaraz sortuta-



Igor Leturia arrasatearra. ORAI NLP TEKNOLOGIAK

## "EUSKARARENTZAT ASKO GARATU IZAN DA ETA GARATZEN ARI DA ADIMEN ARTIFIZIALA"

ko idatzizko zein ikus-entzunezko edukia automatikoki beste hizkuntza batzuetara bihurtu badaiteke, edo ahozko komunikazioan ere makinek aldibereko itzulpena egiten badigute, zertarako ikasiko du inork euskara? Beste mehatxu bat euskara ikusezin bihurtzea izan daiteke, jendeak ez jakitea automatikoki itzulita jaso duen zerbait euskaraz sortua izan dela.

**Nola egin diezaioke aurre horri?**

Egoera hipotetiko horretara iristen bagara, desorekan ez egotea edota atzean ez gelditzea beharrezkoa da. Itzulpena azkar eta ederto egiteko tresna automatikoak euskararentzat ahalik eta gehien garatzen jarraitu behar dugu, eta beste hizkuntzen mailan, edo ahalik eta hurbilen, egoten jarraitu.

**Egoera honetan, ze bide zabaltzen zaio euskarari?**

Etorkizun horretan eta teknologia izanez gero, guk ere ez genuke oztoporik izango gure hizkuntzan aritzeko. Ez genuke ingelesez egin beharrik atzeritarrekin aritzeko, ezta hemen bertan gaztelaniara pasatu beharrik ere ez dakitenekin hitz egiteko. Era berean, eduki sortzaileek euskaraz sortu ahal izango lukete, eta mundu osoko audientziara iritsi. Eta guk ere edozein hizkuntzatan sortutako edukia euskaraz jasoko genuke, betidaniko gure eskaera izan dena egia bihurtuta.

**Euskararentzat ze garrantzi du arlo horretan ondo kokatuta egoteak?**

Ezinbestekoa da. Bestela, beste hizkuntzen bidez komunikatu beharko dugu edo beste hizkuntza batzuetan jasoko ditugu edukiak. Orain arte bezala, baina okerrago, teknologia baduten hizkuntzei haienari eusteko erraztasunak emango lizkiekelako teknologia. Esparru eta erabilera-eremu berriak galduko genituzke. Euskara adimen artifizialean nahiko ongi dagoelako ez gara konturatzen zer galduko genukeen, baina egoera okerragoan dauden hizkuntzek argi dute beharrezkoa dela.



Ander Garay eta Xabier Arrizabalaga, asteleheneko prentsaurrekoan. IMANOL BELOKI

## Autobus zerbitzua osorik berritzea gura dute jeltzaleek

Besteak beste, zerbitzua domeka eta jaiegunetara zabaltzea eta autobus flota erabat berritzea eskatu dute

**E.A.B.** ARRASATE

EAJ-PNVk Arrasaten duen udal taldeak herriko garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko proposamenak aurkeztu ditu, "udal autobusen sistemak egun dituen erroka esanguratsuei aurre egiteko". Modu horretan, autobus zerbitzuaren egungo kontratua etetea eta "arrasatearren beharretara egokitutako zerbitzua bermatzeko hobekuntza nabarmenak izango dituen berria" egitea proposatu dute.

Jeltzaleek, batetik, domeka eta jaiegunetara hedatuko luke zerbitzua: "Kontuan izanik funtsezko instalazioak, hala nola kiroldegia, beilatokia, Iturbide egoitza eta eskualdeko ospitalea, igandean ere zabalik daudela, funtsezkoa da egun horietan garraioa eskaintzea herritarren heltzea errazteko".

Bestetik, Udala, Bedoña, Gosalibar eta Garagartza landa-au-

zoetarako taxibus zerbitzu bat ezartzea proposatu dute, "Elgoibar bezalako beste udalerrri batzuetako eredu arrakastatsuetan oinarrituta, eremu horien komunikazioa hobetzeko".

Halaber, udan kiroldegirako autobus zerbitzu berezi bat sortzea ere eskatu dute, "eskaeraren gorakadari eta aparkalekuen saturazioari erantzuteko".

Azken proposamena autobus-flota erabat berritzea da: "Dauden bost autobusak zero emisioko eredu baterantz eguneratzea eskatzen dugu, jasangarritasuna bermatzeko, ingurumen-kalitate oneko politikekin bat eginez".

Ander Garay talde jeltzaleko udal bozeramailearen esanetan, "nahitaezkoa" da Arrasateko garraio publikoaren zerbitzua modernizatzea, "arrasatearren egungo eta etorkizuneko beharrei behar bezala erantzuteko".

## San Andresko jaietan bi langileri eraso egin diete bi gizonek

Joan den zapatuan, garbiketa lanetan ari ziren bi udal langileri eraso egin zieten bi gizonek. Udalak, San Andresko auzo-alkatetzak eta San Andresko Jai Batzordeak gaitzespen oharra kaleratu zuten, eta indarkeria gertaera horiek "oso larritzat" jo. Horrelako jarrerak "irmoki" salatu eta arbuiatzen dituztela azaldu zuten eta elkartasuna

adierazi zieten une hartan lanean ari ziren hiru udal langileei.

Bestalde, Arizmendi Ikastolako umezaintza gunean apurketak egin zituzten jaietan, ikasketxeak salatu duenez. "Lur jota gaude. Ezezagun batzuek apurketak eragin zituzten asteburuan: gurpilak erre zituzten, sabaia kaltetuz eta lurra eta paretak belztuz; sukaldeko txokoa ere suntsitu zuten, loreak apurtu zituzten...". Hori dela eta, ekin-tza horiek egin zituztenei hausnartzeko dei egin diete.



Jokin Hurtado eta Jare Urrutia, joan den asteburuan, urrezko domina erakusten. DESOREKA JUDO KLUBA

# Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapeldun

Nabarmentzeko lorpena erdietsi dute Desoreka Judo Klubeko Jokin Hurtado eta Jare Urrutia judoek; izan ere, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi ostean, joan den asteburuan Espainiako txapeldun ere bilakatu ziren, biak ala biak, infantil mailan

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE "Desorekako judoek historia egiten jarraitzen dute". Hala adierazi zuen Markel Urrutia entrenatzaileak joan den asteburuko emaitzen ostean. Ez da gutxiagorako. Izan ere, maila bikaina erakusten ari dira txapelketa guztietan, eta bereziki nabarmentzekoak dira Jokin Hurtadoren eta Jare Urrutiaren emaitzak, Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapeldun baitira infantil mailan.

Joan den asteburuan Iruñean jokatu zuten Espainiako, eta Hurtadok argi onartu du irabazteko helburuarekin joan zela: "Disfrutatzen eta esperientzia bizitzera joan nintzen, noski, baina baita irabaztera ere. Izan ere, nork daki... agian, ez da errepikatuko". Urrutiak, ordea, zailago ikusten zuen irabaztea. "Oso maila handia dago Estatu mailan. Ez nintzen faboritua, baina banekien aukerak izango nituela garaipenaren borrokan ibiltzeko. Nire lana ondo egin

ahal izan nuen eta horrek eman zidan garaipena", azaldu du.

## Garaipenerako hainbat gako

Domina irabazteko lau borroka irabazi behar izan zituen Hurtadok. "Taldea guztiari esker, gauza asko oso landuta eraman nituen, teknikoki zein tekniko-ki. Oso erasokor jokatu nuen, aurkariari aukerak kenduz. Hor egon zen gakoa urrezko domina irabazteko". Beste gakoetako bat zera izan zela adierazi du: "Txapelketaren aurretik, aurkariak nortzuk ziren aztertu nuen, eta nire judoa horretara egokitu".

Urrutiak, aldiz, bost borrokaldi egin zituen, eta horietako batek "zailtasun berezia" izan zuela aitortu du: "Final-laurde-

**JOKIN HURTADOK ETA JARE URRUTIAK DIOTE TALDE-LANARI ESKER ESKURATU DITUZTELA EMAITZA HORIEK**

netako borrokaldia zaila izan zen. Konplikatu egin zitzaidan, baina buelta eman eta irabaztea lortu nuen".

## Elkarlanaren emaitza

Hurtadok dio "oso pozik" dagoela lorturikoarekin, baina argi utzi nahi izan du ez dela haren lorpena bakarrik, elkarlanaren emaitza dela. "Taldearena, entrenatzaileena eta familiarena ere bada lorpena, aspektu askotan lagundu didate eta". Urrutia "gutziz ados" dago horrekin: "Oso eskertuta gaude gure alboan egon diren guztiei. Hau guztion meritua da", azpimarratu du.

Markel Urrutia entrenatzaileak, azkenik, azaldu du Desoreka lortzen ari dena handia dela: "Eduki pedagogikoak lantzen ditugu eta aurten hasi gara Espainiako txapelketetan barnerraten, emaitza zoragarriekin. Infantil mailan lortutakoa ikaragarria da, hamahiru autonomia erkidegok baino domina gehiago lortu baititu Desorekak".



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

## Auzo altuak, betiko ahaztuak

Arrasate oso atzeratuta egon da auzoetan oinezkoen irisgarritasun bertikala bermatzeko orduan. Orain bi agintaldi, hiru igogailu bakarrik zeuden eta inolako egitasmorik ez zegoen berririk eraikitzeko. Horrela, ba, injustizia historiko hori bukatzeko, 2015etik hona, Erguinen, Makatzenan eta Santa Teresan bederatzi igogailu publiko osatutako sistemak abian jarri dira. Nabarmena da igogailuek, batez ere, adinduei, emakumei eta umei onura egiten dietela, eta, horretxegatik, arduraz ikusten da Udal Gobernuak legealdirako aurkeztu duen plan estrategikoan ez duela Gorostizarako igogailu sistema aurreikusi eta Jose Luis Iñarrak behar dituenak bigarren maila batean jarri dituela. Udal Gobernuak erakutsi du, hitz politex haratago, ez daukala auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko borondaterik. Baina badago aukera 2015eko Mugikortasun Planaren berrikuspen prozesuan parte hartu eta denon artean Gobernuaren borondate falta horri buelta emateko, auzo altuen ongizatea berriro udal plangintzaren erdigunean jarriaz.



MONDRA

## Mondrako beteranoak garaile

Elkartasunez bete zen eguaztenean Mojategi, Izan Inurri elkartean aldeko txapelketa solidarioan. Finalean Intxaurdi eta Mondra aritu ziren lehian, eta etxeok nagusitu ziren (2-1). Amorebieta eta Eibar izan ziren hirugarren eta laugarren sailkatuak, hurrenez hurren. Sari banaketaren ostean, bi otarre zozkatu zituzten (Informazio guztia, [Goiena.eus-en](http://Goiena.eus-en)).

## OHARRAK

### Haurren danborradarako izen-ematea

Oraindik badago aukera izena emateko. Kulturen egin daiteke, gaur eta astelehenean, 17:00etatik 18:00etara.

### Sexualitateari buruzko bi saio

Maiatzaren 7an eta 14an egingo dituzte, *Familiari sexualitateaz hitz egiten* lelopean, 18:00etan, Kulturaren. Izen-emateak 943-25 20 00 zenbakira deituta edo udal webgunean egin daitezke.

### Hiruko saskibalo txapelketa bihar

Leintz Eskola Kirolak antolatuta, 25. edizioa izango da aurtengoa. Arizmendiarieta plazan egingo dute, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:30era.

## KONTU KONTARI

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Arrasateko Olandixo baserrian egin du hitzordua GOIENAK Carmen Altunarekin (Arrasate, 1940). Eraikin hori ermita bat izan zen garai batean, nahiz eta gerora baserri bilakatu. "Ni jaiotzen nintzeneko, baserria zen. Izan ere, nire aitona-amonon gurasoek erosi zioten Monterongo kondeari. Santu bat hemendik San Josepe elizara eramaten zuten. Garai hartan, San Josepe sekulako eliza zen, harrobi ondokoa", adierazi du arrasatearrak.

Txikitako oroitzapenak ondo iltzatuta ditu, baserrikerria eskolara oinez joaten zirenekoak: "Oinez jaisten ginen, gurdibidetik, eta deseatzten egoten ginen elurra egin zezan. Izan ere, orduan asko egiten zuen". Eskolatik ihes egin eta Uribera joaten zirela ere aitortu du. "Egun, ez da halakorik entzuten, umeak pozik joaten dira eskolara".

Colegio de la Asuncion zuen izena garai hartako eskolak, eta neskak bakarrik zeuden ikastetxean. "Erdaldun hutsak ziren irakasleak, *las cucarachas* deitzen genienak, eta oso elizkoiak ziren. Ez ziguten uzten euskaraz hitz egiten, eta, beraz, erdaraz egiten genuen haiekin, nahiz eta gure artean euskaraz egin. Gainera, eskolatik irteteko, arrosarioa errezzatu behar izaten genuen".

Ama-hizkuntza euskara izanik, eskolan ikasi zuten gaztelaniaz hitz egiten. "Etxean ere beti esaten ziguten erdaraz ikasteko, Gasteiza joateko. Izan ere, Gasteiz oso erdalduna zen orduan. Nola aberastu den Araba euskarari dagokionez, eta zenbat poztzen naizen", gaineratu du.

**Eskolatik etxeko lanetara**

Eskolatik bueltatutakoa, etxeko lanak egin behar izaten zituzten. "Askotan, etxe barruan inor ez zen egoten, guztiak soroan egoten baitziren". Denetarik egiten zuten: "Artoa eta garia ezagutu nituen nik, ganadu pila batekin". Bost anai-arreba ziren, eta ondo bereizita zituzten lanak: "Guk sukaldetako lanak egiten

**"ESKOLATIK BUELTAN, IA INOR EZ ZEN ETXE BARRUAN EGOTEN, GUZTIAK SOROAN EGON OHI ZIREN"**

# "Arizmendiarieta goiz hil zen; oraindik haren falta zegoen"

**CARMEN ALTUNA SAGASTA**

Olandixo baserrian jaiotakoa eta han lan egindakoa da Carmen Altuna Sagasta; bizi izandakoak kontatu ditu Aitor Moraza bergararrarekin egindako solasaldi mamitsuan



Carmen Altuna arrasatearra, Olandixo baserrian. MARKEL ARRAYAGO

genituen eta mutilek, sorokoak. Gure aita oso fina zen, basoak sukaldetako baino garbiago izaten zituen. Garai hartan, inportanteak ziren lursailak". Horren harira, anekdota polit bat ere badu gordeta arrasatearrak: "Hiru anaiak parrandara joaten zirenean, azkena etxeratzen zena lehenengo esnatzen zuen aitak, ganaduari jaten emateko. Oso argia zen gure aita".

**Jaiek zuten balioaz**

Jaietako erromeriak ere gogoan ditu, eta penaz hartu du horien gainbehera: "Nolako balioa ematen genien jaietari... Sanjuanez gain, San Bartolome jaiak ere garrantzitsuak izaten ziren Uribarrin. Erromerian askotariko

**"Su txikiarekin, zerua zabaldu zitzaidan"**

Asmakizun onenak garbigailua eta butanoa izan ziren, Altunaren ustez. "Baserriko bizimodua gogorra zen, eta garbigailuarekin asko hobetu ziren gauzak, baita butanoarekin ere. Bestela, egurra behar zen denerako. Su txikiarekin, zerua zabaldu zitzaidan".

dantzak egiten genituen eta bikote harremanak ere han sortzen ziren. Gizonak etortzen zitzaizkigun dantza eske, eta makina bat kalabaza ere ematen genien, gure gustukoak ez baziren". Bixikeria moduan, zera adierazi du: "Kanpai hotsak hemendik entzuten ziren jaietan, ez zegoe-lako trafikorik".

**Arizmendiarieta eta Olandixo**

Olandixo baserriak aterpetxe gisa ere funtzionatu zuen, Mondragon Taldeko askotariko bezeroak hartuz, eta 30 urtez lan horietan aritu zen Altuna. "Ikusteko eta zortzi egun pasatzeko oso etxe ederra da hau, baina lanerako ez. Eskailera asko ditu, eta egun osoan gora eta behera aritzen ginen. Jatordu guztiak prestatzen genizkien bezeroei, eta, pentsa, nire ama ere etorri zen denboraldi batez, laguntzera", azaldu du.

Urte haietan, hainbat enpresatako zuzendariak ezagutzeaz gain, Jose Maria Arizmendiarietarekin ere egin zuen harremana: "Oso jatorra zen, bisio handiko gizona. Olandixora askotan etortzen zen, laneko batzarrak-eta egitera. Nabarmenezkoa da Auzolagun sortu zuela; andre askorendako liberazio handia izan zen hura. Izan ere, ordura arte, etxean sartuta egoten ziren, garbia zegoena garbitzen".

Arizmendiarietak ikastaroak ere ematen zituela dio Altunak, ekonomiari buruzkoak. "Santa Teresan ematen zituen ikastaroak, eta bizikletan joaten zen. Esaten zuen etxeko ekonomia emakumeen eskuetan zegoela. Hau da, gizonak ondo irabazi arren andrea ekonomialari ona ez bazen, alferrik zela". Hark ekarpen handia egin zuen Arrasaten, Altunaren esanetan, baina gazte hil zela deitoratu du: "Oraindik haren falta zegoen hemen".

Arizmendiarietaren hileta-eguna ere ondo gogoratzen du. "Nik lan egin behar izan nuen, mahaia prestatzen. Elizatik irten eta zuzenean hona etorri ziren guztiak. Pentsa, Espainiako Lan ministroa ere etorri zen Olandixora, emaztearekin, afaltzera eta lo egitera", azpimarratu du.



Elkarrizketa bideoan ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

# Biluzten eta barrenak ateratzen "bakarrak"

Arrasaten batzen den El Volquete hirukoteak lehen diskoa kaleratu du plataforma digitaletan: 'El NO-DO de El Volquete'. Zazpi abestiko lana "artistak berezko izan behar duen konpromisoarekin" egin dutela diote, "gaur egun ezohikoa dena"

**Hasier Larrea Herrero** ARRASATE

Batzuetan, detaile txikiak eragiten dute iritziz aldatzea. Adibidez, kamiseta jakin bat eramatea musika talde bat sortzeko txinparta izan daiteke. Aitor Barbadillo bateria-jotzaileari hori gertatu zitzaion Antton Carretero Lords Of The New Church bandaren elastikoarekin ikusi zuenean: "Ordura arte, dezente gogaitzen ninduen abesti propioak zeuzkala eta erakutsi nahi zizkidala esanez, eta egun hartan pentsatu nuen agian merezi zuela kasu egitea".

Eta horrela eratu zen El Volquete, 2020 inguruan. Carreterok hitzartuta zeukan Gillen Mendikute lagun baxu-jolearekin entseatzeko hastea, behin perkusioa nork jo lotzen zuenean. Talde-lanean, gitarra akustikoarekin lagundutako hitzei forma musikala emateari ekin eta kantu landu samarrak atera zitzaizkien, azkenetako.

Depos Gaz lokaletatik irten gabe, Mikel Arriarani eskatu zioten *el NO-DO de El Volquete* izeneko zazpi kantuko lana ekoitz zezan, eta, diotenez, "kolorea eman die konposaketei". Nere Txakartegi ere jarri du bere alea, azalaren diseinua egin eta *Las perreras* abestian klarinetara sartu baitu.

Rock gordina gustuko duenak plataforma digitaletan frogatuko du hirukotearen esentzia. Era berean, kantu bakoitzean igarriko du Carreteroren erreferenteen kutsua: "Obligaciones, Nacho Vegas, Eskorbuto, Doctor Deseo... Eta hitzen estiloan, agian, Bukowskiren eragina ere badaukate; izan ere, abesti gehienak maitasun suizidari buruzkoak dira. Tira, gehienbat, gizarteari botaka egitea bilatzen dut; inguruan dauzkagun gaiak presente izanda, adibidez, adikzioak, erlijioa eta terrorismoa, paretaren aurka jaurtitako maitasunaren metaforak egitea".



Antton Carretero, Gillen Mendikute eta Aitor Barbadillo. IRATXE PEREZ

## "Artistaren konpromisoa"

Ez dute inongo konplexurik tristura, abandonua eta estresa adierazteko, ezta "punk-rocka egiten dutela esaten duten taldeak" kritikatzeko ere. Horren harira, Gabriel Celayak *La poesía es un arma cargado de futuro* olerkian darabilen gaiari egin diote keinu: "Guk barrenak husteko egiten ditugu kantuak, eta ez inork onartu gaitzan. Egiak kontatzen ditugu, eta uste dugu konpromiso hori daukan bakarretakoak garela; hau da, nik badakit

gaizki gera naitekeela abesti bat idazterakoan, baina hori da daukadan konpromisoa. Aldiz, talde gehienek ez dute ausardiarik euren bizitzako egiak kontatzeko. Hortaz, hitz hutsalak idazten dituzte, konpromiso gutxikoak. Ez daukate artista batek izan behar duen biluzteko obligazioa. Ez dira bustitzen eta errazkeriatan erortzen dira".

Carreteroren esanei Barbadillok jarri die ginga: "Inguru-ko taldeen musika betiko txikle bera mila bider mastekatzera bezalakoa egiten zait, ez dute zaporerik, ez dira bata elkarren artean bereitzen".

## Helburu argia

Gustura asko jasoko lituzkete kontzertuak jotzeko gonbidapenak Instagramen, horrekin batera helburuetako bat lortzeko urratsak egingo lituzketelako: gazte jendearengana iristea, hain zuzen. "Izan ere, 35 urtetik gorakoengandik jaso ditugu iruzkinik positiboak".

Hala ere, ez dute ezagun egiteko intentzio handirik: "Pozik gaude garen modukoak izanda; izan zaitez zu zeu!".



## EL NO-DO DE EL VOLQUETE

- **Grabaketa** Mikel Arriaran.
- **Diseinua** Nere Txakartegi.

## Arrasate Musikaleko txistulariek hasiko dute udaberriko zikloa

Musika eskolak 21 emanaldi egingo ditu maiatzean eta ekainean; lehenengoa, domeka eguerdian, JAMen

**H.L. ARRASATE**

Bereziki ekainean emango dituzte Arrasate Musikaleko taldeek kontzertuak, baina maiatzeko ere programatu dituzte hainbat hitzordu; guztiak, Udaberri Ziklo Musikalaren baitan. Lehen emanaldia maiatzaren 5ean izango da, domeka, 12:30ean, Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean. Arrasate Musikaleko Txistulari Bandako kideak igoko dira oholtzara, eta dozena inguru pieza joko dituzte, Juan Karlos Larreategik zuzenduta.



Txistulari Banda. A.M.

## Hainbat nobedade

Antolatzaileek berrikuntzak txertatu dituzte egitarauan; esaterako, maiatzaren 17ko ate irekiak, gurasoei eta haurrei zuzenduta. "Izan ere, lehen aldia da egungo egoitzan halako jardunaldi bat antolatzen duguna",

adierazi du Edorta Ayastuy komunikazio arduradunak. Bestelako ekitaldien artean, ekainaren 7an Debagoieneko hari musika-tresnen topaketa eta hurrengo egunean Euskal Herri mailako klarinete topaketa egingo dituztela aurreratu du.

## Arrasatearren %60 dira Udal Liburutegiko bazkide: 13.539 lagun

2023. urteari dagokion memoria-txostena aurkeztu berri du Arrasateko Udal Bibliotekak. Goiburuan aipatutako datuarekin batera, nabarmentzekoa da iaz azken bost urteetako bazkide kopuru gehien batu zirela bibliotekara: 517, guztira. Horrek "bibliotekaren erritmo eta jarduera ona" erakusten duela adierazi dute bertako langileek.

Bestalde, dokumentuetan ere hazkundeak izan dute, 3.474 alekoa; hala, Kulturategiko bilduma 68.679 dokumentuz osatuta dago gaur egun, eta Santa Marinakoa, aldiz, 6.846 dokumentuz. Gainera, liburuen mailegutan joera bera gertatzen da; ez, ordea, pelikulen eta musikaren kasuan, "harpidetza plataformengatik".

Hizkuntzari dagokionez, euskarazko liburuak gailentzen dira haurren eta gazteen artean, eta gaztelera-koak, aldiz, helduen artean.

## AEDren eskutik, film laburren emanaldia eta hika tailerra

Datorren martitzenean, hilak 7, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Laburbira film laburren zirkuitu ibiltaria iritsiko da Arrasatera, AEDk gonbidatuta, eta Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Guztira, euskarazko zortzi pieza proiektatu dituzte, eta horietako hainbat mundu mailako zinema jaialdietatik pasa dira dagoene-

ko. Emanaldia 19:30ean hasiko da, Amaia antzokian. Sarrerak salgai daude antzokiko leihatilan eta udal webgunean, 5 eurotan.

Horrez gain, AEDk eta AGAKOK hika, noka zein toka ezagutu eta ikasten hasteko tailerra antolatu dute elkarlanean. Bi saio izango dira, maiatzaren 25ean eta ekainaren 1ean, 10:00etatik 13:00etara, gaztetxean. Izen-ematea maiatzaren 20ra arte egin daiteke, [aed@aedelkar-tea.eus](mailto:aed@aedelkar-tea.eus) helbidera idatzita; plaza mugatuak izango dira.

# 2.253.580 euroko udal aurrekontua onartu dute

Aho batez onartu ditu Aramaioko udalbatzak 2024ko udal aurrekontuak, aldeko zazpi botorekin. EAJK adierazi du euren alderdiak egin dituen proposamen gehienak Udal Gobernuak onartu dituelako eman diela baiezkua aurtengo aurrekontuei

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO  
2024ko ekitaldirako 2.253.580,83 euroko aurrekontua onartu zuen Aramaioko udalbatzak joan den astean eginiko ohiko osoko bilkuran, aldeko zazpi botorekin: EH Bilduko sei eta EAJren bat -EAJtik Alberto Amenabarrek bakarrik hartu zuen parte osoko bilkuran; Jonatan Moreno eta Teresa Molinuevo ez ziren egon-. Libe Ramila Udal Gobernuko ordezkararen esanetan, "kostatu" egin zaie aurrekontuak egitea: "Berandu, baina seguru. Alkate aldaketa bat egon da, eta, azkenean, luzatu egin zaigu. Gu gara baiezkua ematea komeni zaigun lehenak. Gainera, adostasuna egon da. Hortaz, pozik gaude".

Aurrekontuaren %85 inguru zerbitzuetara bideratuko da, eta Kultura zinegotziak nabarmendu du inbertsio nagusiak dirulaguntza bidez egingo dituztela: "Inbertsio nagusiak dirulaguntzen bidez egiten dira; orduan, aurrekontuetan inbertsio horiek ez dira nabari". Berritasunen artean aipatu du Berdintasun arloa Ongizatatetik ezberdindu dutela: "Berdintasunari bere izaera propioa eman diogu, eta, hortaz, igo egin da diru kopurua". Alabaina, proiektu nagusien artean azpimarratu ditu, besteak beste, zebra-bideak egokituko dituztela eta Mugikortasun Plan bat idatziko dutela. Plan Orokorrean, berriz, etxebizitzak birplanteatuko dituztela dio, eta ondarea inbertsion jarraituko dutela. "Nabarmen-tzeko zati handiak horiek dira. Kulturari saiatu gara auzoetako dirulaguntzak handitzen, jaiak eta herri izaten laguntzen diguten ekintza horiek aberasteko", dio Libe Ramilak.

Orokorrean, aldaketa "drastikorik" ez dela egongo azaldu du Ramilak: "Urteroko lan ildoekin jarraitzen dugu. Saiatzen gara herria bizigarriago egiten duten



Osoko bilkura joan den astean. I.A.A.

## AURREKONTUETAN EZ DIRA INBERTSIO HANDIAK AGERTZEN, DIRULAGUNTZETARA BIDERATU DIRELAKO

elementu eta ekintza horietan handitzen diru kopuruak, txikiak izan arren".

### EAJren proposamenak

EH Bilduren Udal Gobernuak egindako aurrekontua "ondo" ikusi zuten jeltzaleek, baina "hutsune batzuk" ikusi zituzteenez proposamenak egin dituzte. Ekarpinak eginda eta gehienak onartuta, oniritzia eman diote aurrekontuari. "Apirilaren 23an eduki genuen batzorde bilera eta bertan proposamen batzuk egin zituzten. Gehienak onartu ditugu; batzuk, gainera, interesgarriak izan ziren", dio Udal Gobernuaren ordezkariek.

EAJK egindako eta onartutako proposamenen artean daude, besteak beste, Guraso elkarte-ri 1.000 euro gehiago ematea, Pedro Inazio Barrutia kalean baranda jartzea, etxeetan suteen

kontrako sistema jartzeko partida bat eta nerabeen mugikorraren erabilerean kontzientziaroko kanpaina martxan jartzea. "Bereziki zuzenduta dago seme-alabendako, gurasoei irizpideak emanez noiz, nola, zein egoeratan eman behar zaien mugikorra... Ez da helduek segurtasunez erabiltzeko mugikorra, baizik eta segurtasunezko baldintzak eskaintzeko da", azaldu dute EAJko Alberto Amenabarrek eta Jonatan Morenok.

Amiantoaren errolda egitea ere eskatu dute. "Errolda hori urtean zehar lantzea da asmoa, gero ikusteko zer egin behar den guztia kentzeko. Hori kudeatzera behartuta gaude, Europar Batasuneko legeak direla eta. Herri guztiek egin behar dute lehendabizi errolda bat eta horren arabera fitxa bat egin amianto kentzeko leku guztietatik", diote EAJko ordezkariek.

Bestalde, osasun mentalari dagokionez aholkulariren bat jartzea ere proposatu du EAJk, eta Udal Gobernuak gaia aztertzea geratu da.

Hurrengo ohiko osoko bilkura maiatzaren 30ean izango da, arratsaldeko seietan.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

## Naibe-gaztelua

Farandula munduan, arteetan, musikan... beti existitu izan dira botere harremanak. Barruan zaudela horretaz konturatzen zarenean, hasierako danbatekoa izugarria da. Iritsi zaren mundu berri batean tratatu txarrak, jazarpena eta mehatxuak gai-zerrendan daude. Baina zu, esan bezala, iritsi berria zara, katearen azken katebegia. Azkena zarenean, botako zaituzten beldurrez, isilik mantentzen zara, zure atzetik datozenak abisatuz, eta konplize izanda ohera joanez gauero.

Hala ere, danbatekoa handiagoa da pertsona horien fama ezaguna dela ikustean edota batzuetan barre artean ere "asko gustatzen zaio lankideengana hurbiltzea, gehienbat gazteengana" eta horrelakoekin jarrera justifikatzen zaiela ikustean. Albisteetan atera berri da aktore askok beraien zuzendariekin lan egiteari uko egin diotela salaketak medio. *Me too* mugimendu berri bat omen dator arteetara. Behintzat, horrela, azken katebegi izanda ere, konplize izateari utziko diogu. Bazen garaia karta-gaztelua behera erortzeko. Erortzeaz zundeten.

## Lagunarteko Pilota Txapelketan izena emateko epea zabalik

16 urtetik gorako aramaioarrei zuzendutako Binakako Lagunarteko Pilota Txapelketan izena emateko azken eguna maiatzaren 5a da. Izena emateko, [aramaiopelota@gmail.com](mailto:aramaiopelota@gmail.com)-era idatzi edo 680 58 70 02 edo 649 65 83 99 zenbakietara deitu behar da. Maiatzean hasiko da txapelketa eta partidua egubakoitz arratsaldeetan jokatu da.

## Hiru ikastaro antolatu dituzte Lorabarri Astearen bueltan

Hilaren 7an, Garbiñe Larreak *Emakumearen zikloak eta osasun hormonalak* ikastaroa eskainiko du; 8an, Izpiliku kosmetika naturalaren eskutik, xanpu solidoa egiten ikasiko dute partaideek; eta maiatzaren 9an, berriz, DAI etxearen eskutik, konbutxa eta kefir ura egiten. Izena eman behar da 665 70 21 92 zenbakian. Prezioa: 10 euro.

## Arabako Eskolarteko lehen kanporaketa eguenean Sastiñan

Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere Aramaion izango da, maiatzaren 18an, kultura etxean

### I.A.A. ARAMAIO

Arabako 12 eta 18 urte bitarteko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa jokatu da Aramaioko Sastiña ermitan maiatzaren 9an, 19:00etan. Hegoi Azkarate, Anitz Abarrategi eta Ane Arexolaleiba aramaiarrekin batera hartuko dute parte saioan Hegoi Amabizkak, June Astegietak eta puntuatuko ez duen beste bertsolari batek. Sarrera libre da.

Beste bi kanporaketak Aldaben eta Kanpezun izango dira, maiatzaren 10ean eta 16an, hurrenez

hurren. Eta, azkenik, finala ere Aramaioko kultura etxean jokatu da, hilaren 18an, 17:30ean hasita; 12-14 urte bitarteko gazteen taldekakoa eta 14-18 urteko bitarteko finala izango dira.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako ikasleek 3-6 lagun arteko taldeek maiatzaren 10era arte dute aukera lau koplak edo bi bertso aurkezteko. Eskualde bakoitzean topaketa bat egingo da, lan aukeratuen egileek euren bertsoak jendaurrean kantatzeko. Gorbialdekoa maiatzaren 17an izango da, Legutian.



# DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11  
43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Udalaren ordezkari Albizu eta Etxabe eta EHUko Eloseggi, Pagaldai eta Larrañaga udaletxeko lorategian. ARETXABALETAKO UDALA

## Herriko ingurumen balioak ezagutzeko lana abian da

Aretxabaleako inguruak ezagutzeko diagnostiko baten beharra antzeman du Udal Gobernuak, eta EHUrekin elkarlanean diagnostiko bat egingo du; helburua da balio naturalak eta arriskuak identifikatzea, kudeaketa egokia egiteko etorkizunean

### Mirari Altube ARETXABALETA

Gizakiaren jarduerak "ingurunean duen eragina gero eta handiagoa" dela jakinik eta jasangarritasunaren aldeko erronkak tokiko erantzunak ere behar dituela uste izanda, Aretxabaleako Udal Gobernuak azterketa baten beharra antzeman du: "Ezinbestekoa da ingurumen-diagnostiko zehatza izatea, balio eta arrisku nagusiak ezagutu gabe ezin baitira giza jarduerak optimizatu eta etorkizun jasangarriago baterako bideak zehaztu".

### EHUrekin batera

Horri heltzeko, EHUrekin elkarlanean jardutea erabaki du. Apirilaren 10a ezkerro Nerea Pagaldai arrasatearrak dihardu lan hori egiten, Aitor Larrañaga eta Arturo Eloseggi unibertsitateko irakasleen tutoretzapean. Hain zuzen ere, lanaren gainean jarduteko, apirilaren 18an Angel Etxabe eta Ion Albizu zinegotziekin elkartu ziren Pagaldai, Eloseggi eta Larrañaga, baita bi

basozainekin ere. Inguruko hainbat gunetan ere egon ziren orduan, "sakonago ezagutzeko".

### Herritarren ekarpenak jaso

Lantalde horrek Aretxabaleako udalerriaren ingurumen-diagnostia egingo du. Horretarako, eremu urbanoaz gain landa-eremua eta ekosistema naturalak aztertuko ditu, eta lehenengo egitekoa izango da erakundeek jasota duten informazioa bildu eta aztertzea, esaterako, Debagoieneko Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Lan hori osatzeko, landa-irteerak egingo dituzte ikertzaileek, baita herritarren ekarpenak jaso ere, Udaleko ordezkariak adierazi dutenez: "Balio berezia duten

**BALIO BEREZIA DUTEN EREMUAK ZEHAZTUKO DITUZTE, ETA HAIEN GAINEKO ARRISKUAK ZERRENDATU**

eremuak identifikatu, haien gaineko arriskuak zerrendatu eta balizko irtenbideak zehazteko".

Txosten batean jasoko dute hori guztia, eta hor, besteak beste, honako atal hauek garatuko dituzte: ingurune fisikoa eta araudiaren araberrako banaketa; flora eta fauna: intereseko espezieak eta balizko inbaditzaileak; ur-masak: kalitate ekologikoa, arrisku eta potentzialtasun nagusiak; ekosistema nagusiak: basoak, larreak...; ekosistema bereziak: labarrak, kobak...; landa-eremua: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza; eremu urbanoak: ingurumen-egoera eta etorkizunerako mugak; eta diagnostiko orokorra: puntu berdeak –babeatu beharrekoak– eta puntu beltzak –hobetu beharrekoak–, baita horiei begira Udalak egin dezakeenaren ildoak.

Diagnostiko hori Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) barruko Ingurumen Txostenaren osagarria izango dela gaineratu dute.



NIRE USTEZ

MARTIN ANTIXIA ABASOLO

## Lerro artean

Aditu gehienak ados daude Pedro Sanchez mende honetako politikari harrigarrietako bat dela, bera gustatu ala gorrotatu. Gidoi aldaketak ohiko bilakatu ditu eta fresko dagoen azken jokaldi honek ere eman du zeresana han eta hemen.

Bere gutunak *lerro artean* zer esaten zuen ulertu nahian ari ziren mahai-inguru bat ikusten hasi nintzen, eta bertan, interpretazioak koloreak baino anitzagoak ziren; ze imaginazioa!

Holako batean, kutsaduraz edo, bi txispa buruan. Lehen: gelditzea eta hausnartzea. Bi ekintza. Hau ez al da pandemiak erakutsi ziguna? Majo ahaztu dugu! Gurpila aspaldi hasi zen berriz biraka, betiko bidetik eta betikoen gozamererako.

Bestea: gizarte honen *lerro arteko* irakurketa pertsonala. Monosilaboz jantzitako elkarrizketa *sakonak*. Ikuspuntu lausoak zehaztasunak eskaintzen merkeprezioan. Eta bai, Martin; ezin zen bestela izan. Makinaren gainean goaz, abiadura handian, haizea parez pare dugu, eta ez da kasik ezer entzuten.

## Film laburrak, 'Bizkarsoro' eta 'Arantzazu', aukeran

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Laburbira zirkuitua Arkupera iritsiko da maiatzaren 9an, 19:00etan. Zortzi lanek osatzen dute aurtengo emanaldia, denak ere azkeneko urtean eta euskaraz ekoiztutakoak; besteak beste, hauek daude: Ane Cuesta zolotarraren *Zirrara* eta Jone Arriola elgoibartarraren *Dena asmatuta dago*.

Euskarazko bi film luze ere eskainiko dituzte Arkupen. Bihar, zapatua, 17:00etan, Josu Martinez zuzendari bizkaitarraren *Bizkarsoro*. Ixotu taldeak eta Gazte Mugimenduak antolatu dute eta debalde izango da.

Eta hilaren 8an, eguaztenean, *Arantzazu: 36 zm, 5 mende, herri 1* dokumentala emango dute, 10:00etan, Goienagusik antolatu. Pello Sarasua zuzendariak berak aurkeztuko du eta grabaketaren nondik norakoekin berri eman.

## Pornografiaren gainean jardungo du Eider Goiburu adituak

*Pornografia* gaiari helduko dio oraingoan Eider Goiburu Moreno adituak gurasoendako egingo duen hitzaldian. *Pornografia, gaur egungo sexu heziketa ote?* izenburupean, hainbat hausnarketa mahai gaineratuko ditu maiatzaren 9an, eguaztenean, Arkupen, 18:00etan. Foru Aldundiak antolatutako Treba programaren barruan dago berbaldia, eta izena aurretik eman behar da, *gazteria@aretxabaleta.eus* helbide elektronikora idatzita.

Haurren eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzea du helburu programa horrek, gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz. Horretan lagunduko die Goiburuk.

## Udaberriko Jaia ospatuko du Arizmendik bihar

Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunek Udaberriko Jaia ospatuko du zapatuan: "Egun berezia da ikastolako komunitatearentzat, 2 urtetik hasi eta batxilergora arteko ikasleen topagune eguna baita". Ekintza ugari izango dituzte; goiz partean, esaterako, herri jolasak, trikitilariekin kalejira, buruhandiak, plaza dantzak eta taloak, Herriko Plazan. 13:00etan, topa berezia egingo dute, ikastolaren urteurrena gogoan: "Arizmendi 20 urtez elkar eraikitzen ari garela ospatzeko".

Arratsaldean girotuko dute musikak, jolasek eta Argitxok, eta *Artistaz blai!* ekimenarekin esango diote agur egunari.



# Alacanten irabazita, hurrengorako "gogotsu"

Rachid Archaoui MMAko borrokalariak irabazi egin zuen joan den zapatuko WOW txapelketako borrokaldia eta gora egin du bere kategoriako -65,8 kilo- rankingean; entrenamenduetan buru-belarri murgilduta dabil azken bi urteotan


## Mirari Altube ARETXABALETA

Rachid Archaoui (Hegoaldeko Tinghir, Maroko, 1994) aretxabaletarra arte martzial mistoko (MMA) WOW txapelketako borrokalari semiprofesionala da eta azken bi urteotan buru-belarri dihardu horretan. Joan den zapatuan, apirilaren 27an, pauso garrantzitsua eman zuen Alacanten, haren kategorian bigarren zegoen Zaragozako Richard Jacomeri irabazita.

## Lehen posturako bidea

Oso pozik dago azken garaipenarekin: "Lehen roundean hartu nuen mendean; round bakoitzak hiru minutu irauten du, eta bi minutu eta erdian mendean nuen: kolpeak eman nizkion, kaiolaren aurka estutu, lurrera bota, eta bukaera eman nion gillotinarekin". Zaragozarrak esperientzia handiagoa izan arren, konfiantza osoarekin joan zen Archaoui: "Nik baino urte gehiago daramatza, eta nire borrokaldi kopurua hiru bidera irabaztu du. Baina nik ere denbora asko eman dut prestatzen eta konfiantza handia nuen neur buruarengan".

Jacome bigarrena zen rankingean, 65,8 kiloko kategorian, lehen postua hutsik zegoelako: "Hortaz, ni egongo nintzateke, oraingoz, lehen postuan".



Richard Jacome eta Rachid Archaoui, zapatuan, borrokan. RACHID ARCHAUI

## UFC txapelketa amets

Orain dela zazpi bat urte hasi zen arte martzial mistoak lantzen: "Zaletasun gisa hartu nuen, kirola egitearren. Baina azken bi urteotan ez dut besterik". Arrasaten Javi Diez entrenatzailearekin ekin zion ibilbideari, Yaman Mjahed eta Iker Davilarekin batera, eta oso gustura dabil: "Hirurok osatzen dugu taldea, Original MMA Team, eta Espainiako onenen aurka gabilta jokatzeko; Yaman dagoeneko onena da bere kategorian eta ni ere bide beretik noa".

Egunean sei ordu inguru entrenatzen da eta haren ametsa da UFC txapelketan jokatzeko noizbait: "Munduko borroka onenak dauden liga delako". Horretarako dihardu prestatzen, eta, Alacanteko garaipenaren ostean, hurrengorako gogotsu dago: "Izan ere, azken horretatik garbi irten nintzen, minik gabe. Yamanek, adibidez, Madrilen, Vista Alegren, dauka maiatzaren 25ean; Espainian izan den MMAko orain arteko ekitaldirik handiena izango da. Sekulakoa izango litzateke han egotea".



LUKEN UGARTEBURU

## Ikasleak Garazi Abasolorekin

Kurtzebarri BHIko ikasleek Garazi Abasolo nutrizionista eta mendi korrikalaria elkarrizketatu dute Goiena telebistako *Galdegazte* saioan. Platoan izan dira Lartaun Aiausti, Irati Betegi eta Beñat Zubizarreta; eta errealizazio gelan, Oinatz Urkia, Uxue Fernandez eta Maialen de Miguel. Saioa emango dute maiatzaren 7an, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.

## Maiatzaren 12an egingo dute Ojala Zelaiko lasterketa

Maiatzaren 12an, domeka, egingo dute Joseba Mardo-ren omezeko 44. Ojala Zelaiko krosa. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, Ibarra kiroldegira jota edo [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) atarian; aurrez emanez gero, 8 euro ordaindu beharko da, eta egunean bertan, 15 euro.

Haurren lasterketek emango diote hasiera, 10:00etan. Adinaren arabera hiru multzotan banatuta egingo dute korrika: benjaminen (2014-2015), 500 metro; alebinen (2012-2013), 1.000 metro; eta infantilek (2010-2011), 1.500 metro.

Helduak 11:00etan abiatuko dira eta 8.410 metro egingo dituzte urtegiaren bueltan.

## Geroa Sortuz campusean izena emateko epea zabalik

Aretxabaleta kirol elkarteak aurtun ere antolatu du Geroa Sortuz futbol campusa. Uztailearen 1etik 19ra bitartean izango da eta 2011n, 2012an, 2013an, 2014an eta 2015ean jaiotako neska-multioak elkartuko dira. Izena emateko, formulario bat bete behar dute interesatuek, maiatzaren 31 baino lehen ([https://labur.eus/Geroa\\_Sortuz\\_2024](https://labur.eus/Geroa_Sortuz_2024)). Zalantzak argitzeko, [uda.kudeatzailea@gmail.com](mailto:uda.kudeatzailea@gmail.com) helbidera idatz daiteke, edo 659 79 44 65 telefono-zenbakira deitu.

Campusaren ordutegia izango da astelehenetan, martitzenetan eta eguenetan 09:30etik 16:30era eta eguaztenetan eta egubakoitzetan 09:30etik 13:30era.



**ANDRA MARI**  
ASESORIA / AHOLKULARITZA

*Etorri eta lagunduko dizugu*

# 2023ko errenta kanpaina

Aholku pertsonalizatua



2022an egindako Atxorrotx Egunean, Gurutze Santuaren basilizako haitzetik ateratako erretratua. GOIENA

## Maiatzeko lehen domekan Atxorrotxera

Atxorrotxeko tontorreko Gurutze Santuaren basilizan urtero egiten den meza eta bailararen bedeinkapena gaur egingo dute, 12:00etan, domekan beharrean. Horrekin batera, Atxorrotxen taberna jartzeko ardua Atxorrotx Kultura Elkarteak hartuko du

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA**  
Ohiturari jarraituz, maiatzeko lehenengo domekan Amaren Eguna izateaz batera, Atxorrotxeko Eguna ospatuko dute eskoriatzarrek, eta, bide ezberdinak hartuta, 738 metroko altuera duen tontorrera igoko dira zenbait herritar.

Hala, Atxorrotx mendiaren magalean mokadutxo bat jan eta zerbait edateko taberna izango da, urtero moduan, eta XVI. mendeko Gurutze Santuaren basilizako kanpaia jotzeko, basiliza pareko haitzeko kobazulotik pasatzeko eta lagunartean edo familiarekin goiz-pasa ederra egiteko aprobetxatuko dute askok. Horrekin batera, Erdi Aroko Nafarroako Erresumako Eneco de Orizen gazteluaren arrastoak ikusteko ere hartuko dute tartea baselizaraino igotzen direnek -azken indusketak 2009ko urrian eta 2010eko maiatzean, Naia Senper arkeologoaren eta Iñaki Sagredo historialariaren gidaritzapean-.

**Eguna herrian hasi eta bukatu**

Atxorrotx Eguna 09:00etan herrigunean hasiko da, Eskoriatzako txistulariek eskainitako dianarekin; eskoriatzarrek esnatu eta Atxorrotxerako bidea hartu dezaten. Gora igo eta zerbait hartzeko taberna egongo da, urtero moduan. "Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundea izan da urte luzez taberna jartzen egun honetan. Afrikan zituzten proiektuetara bidaltzen zuten irabazitako dirua; gero, Caritamera bidaltzen hasi ziren; eta iaz, San Pedro eta Intxaurtxuetako Bizilagun Elkarteok hartu zieten erreleboa. Esperientzia ona izan arren, aurten ere eurek egon behar zuten, baina atzera egin dute. Hala,

**DOMEKAKO ERROMERIA 18:00ETAN HASIKO DA, FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN**

Atxorrotx Kultura Elkarteak hartu du taberna jartzeko ardua", adierazi dute Eskoriatzako Udaleko ordezkariak. Atxorrotx goiz-pasa egin ostean, arratsaldean herrigunean jarraituko du jaiak. Izan ere, 18:00etan erromeria egongo da Fernando Eskoriatza plazan, Imanol eta Larrañaga bikotearekin.

**Meza, egunez aldatuta**

Atxorrotx Egunean bertan egin ohi da Santa Kurtz eguneko meza eta bailararen bedeinkapena, baina aurten ezinezkoa denez, egunez aldatu eta gaur, maiatzak 3, egingo dute. "Jose Migel Zubia *Josemi* arduratzen da Atxorrotx Egunean meza emateaz, baina hark ezin duenez eta gaur Santa Kurtz Eguna dela aprobetxatuta, Atxorrotx bertan meza esango du 12:00etan, eta bailara bedeinkatuko du. Ea datorren urtean egunean bertan posible den meza eta bedeinkapena egitea", azaldu dute Eskoriatzako Udaleko ordezkariak.

## Palestinako egoera jasangaitza salatzea izan dute berbagai

Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak aurkeztutako mozioa onartu zuten osoko bilkuran; oposizioa, aurka

**I.B. ESKORIATZA**

Apirilaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran zenbait gai jarri zituzten mahai gainean udalbatzako kideek. Besteak beste, Palestinarekiko Erantzukizuna Plataformak eskatuta alkatetzak aurkeztutako mozioa izan zuten berbagai. Eskoriatzako EH Bilduren baieztok zapi boto jaso zituen mozioak, eta oposizioaren ezezko hiru boto.

"Palestinan berehalako su-etena eskatzea, Israeliek biztanleria zibilaren aurka egindako eraso guztiak salatzea, Israelgo Gobernuarekin harreman institu-

zional guztiak etetea behin betiko su-etena izan arte... erabaki dugu", adierazi zuen, laburbilduz, Xabi Uriartek, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak.

**Oposizioaren ustez, motz**

Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak, mozioa motz geratzen dela azaldu zuen: "Palestinaren aurka egindakoak gaitzetsi arren, Hamas-ek egindako terrorismoa ere salatu beharko litzateke, dituzten bahiketak... ez da minaren kopurua neurtu behar, sufrimendu guztia gaitzetsi behar da".



Eskoriatzako udalbatzako kideak, apirilako ohiko osoko bilkura hastear. I. BELOKI

### 'Udalatx' eta 'Zuloan zu?' dokumentalen proiektzioak gaur

Bi dokumental ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, Zaldibar antzokian: batetik, *Udalatx, ura eta atxa*. Udalatxi dagokion balioa emateko Besaide Mendizale Elkarteak ekoiztutako dokumentala da, Eñaut Iturbek eta Iban Ayesak zuzendutakoa. 37 minutuko ikus-entzunezkoa da, Arrasaten hain kuttuna den Udalatx mendiari balioa ematen dio. Horrekin batera, 23 minutu dituen *Zuloan zu?* dokumentala proiektatuko dute. Oñatin egindako espeleologia filma da; izan ere, Arantzazuko leize batean izandako azken esplorazioak eta ustekabeak batzen ditu Aloña Mendi Espeleologia Taldeak.

### 'Loratu' loreen azoka antolatu dute zapaturako

Usurbilgo Urtinea lorategiokoe loreekin beteko dute Fernando Eskoriatzako plaza zapatuan, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Axtroki Merkataritza Elkarteak dendetan egindako erosketa bakoitzarengatik txartel bat jaso, eta zapaturako hitzorduan loreekin trukatzeko aukera eskaini dute merkatariek. "Herriko komertzioetan erosita, txartel bat jasoko du bezeroak; gero, zapatuan, lore batzuk txartel batekin aldatzeko aukera izango da; beste batzuk jasotzeko, bi edo hiru txartel beharko dira... Hala ere, loreak txartel gabe erosteko aukera ere izango da", adierazi du Jabi Altunak, Axtroki Merkataritza Elkarteak.

# Zabalik da udalekuetan izena emateko epea

Udaleku irekiak hurrek aisialdiaz gozatzeko uztaileko antolatzen dituzte, eta Eskoriatzan prestatutakoetan –uztailaren 4tik 23ra– parte hartzeko eman daiteke izena. Horretarako, hainbat bide zehaztu dituzte antolatzaileek

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Udaleku irekiak 3 eta 12 urte bitarteko hurrei zuzendutako udako programa da, non hurrek ondo pasatzeaz gain, sormena, naturan jolastea, kirola egitea eta Eskoriatzako bazterrez gozatzea bultzatzen diren. Udaleku irekiak euskaraz eskaintzen diren programa da, eta, horretarako, Eskoriatzako Udalak urtero antolatzen ditu. Aurten, uztailaren 4tik 23ra bitartean egingo dituzte, eta 2012-2020 urteen artean –biak barne– jaiotako hurrei zuzendutakoak izango dira. Hala, interesdunek eman dezakete dagoeneko izena.



Udalekuetan haurrak jolasean. I.BELOKI

## Goizeko ordutegian

Eskoriatzako udaleku irekien ordutegia goizetara mugatu zuten duela urte batzuk, eta aurtengoak ere horrela izango dira. Hau da, astegunetan, egunero, 09:00etatik 13:00etara; uztailaren 11n eta 18an, berriz, egun-pasak egingo direnez,

09:00etatik 17:00etara. Hori horrela, hezitzaileen gidaritzapean Eskoriatzan eta inguruetan egingo dituzte ekintzak herriko gaztetxoek. Aisialdi eskaintzaren prezioa 75 euro da haur bakoitzeko; bi haurrengatik,

145 euro; eta hiru haurrengatik, 219. Izena emateko azkenengo eguna maiatzaren 10a da.

## Izena emateko bidea

Izena emateko dokumentazioa udal webgunean jaso daiteke. Bertan erantsita dagoen formularioa bete beharko da, eta ordainketa agiria bidali [txirikila@gmail.com](mailto:txirikila@gmail.com) helbidera. Eskoriatzako Udaletik jakinarazi dutenez, garrantzitsua izango da ordainagirian haurren izen eta abizenak eta jaiotza-urtea jartzea. Haur bat baino gehiago apuntatuz gero, haur bakoitzeko izen-emate formulario bat eta ordainketa-ordainagiri bat bidali beharko dira, eta formularioarekin arazoren bat duena edo bestelako zalantzarik izanez gero Tortolis ludotekara joan daiteke, astelehenerik egubakoitzera bitartean, 17:00etatik 19:00etara bitartean –ludotekan ere bete ahal izango da eskaera-orria–.



Dorleta Elkorobarrutia eta Azahara Dominguez batzartuta. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Gatzagako autobus zerbitzuan aldaketak egingo dituzte

Elkorobarrutiak egindako bost proposamenetik hiru gauzatu dituzte, eta bi eskaera aztertzeko geratu dira

### Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako diputatu Azahara Dominguez eta Leintz Gatzagako alkate Dorleta Elkorobarrutia Lurraldebus zerbitzuaren gainean hitz egiteko batu dira, herritarren beharretara egokitzea adosteko.

Bost eskaera egin zion Elkorobarrutiak, Dominguezi, eta, bost eskarietatik hiru eskaerari baietz esan arren, beste biak aztertzeko geratu direla azaldu du Leintz Gatzagako alkateak, eta egingarriak direla azpimarratu.

### Bost eskakizun

"Hiru eskaera azkar egitekoak dira: autobusa bost minutu arurreratzea, Eskoriatzako Aingeru Guardako geltokian ez geratzea eta astean zehar dagoen 20:45eko zerbitzua zapatuetan ere jartzea Aretxabaletaraino, adierazi du Elkorobarrutiak. Aztertzeko geratu diren eskaerei dagokienez: "Eskariko autobus zerbitzuaren ordutegia moldatzea eskatu dugu, batez ere, nerabeentzat izango litzatekeen onura betez; eta, bestetik, arratsaldeko autobus guztiak orduro izatea, Aretxabaletaraino joanez".



ITZARTU GAZTE ASANBLADA

## Gazte Eguna "ondo" ospatuta

Itzartu Gazte Asanbladako kideek Gazte Egunaren bigarren edizioa ospatu dute, eta egunak emandakoarekin "pozik" daude. Balorazio "positiboa" egin dute. Programatutako ekintza guztiak egin zituzten, nahiz eta kontzertuak kontzejupean egin zituzten. Horrekin batera, bazkaltzeko 100 lagun batu ziren, eta, amaitutakoan, talde argazkia atera zuten.

## San Juan Txiki Eguna ospatuko dute Mendiolan

Zapatuan ospatuko dute Mendiola elizateko auzotarrek eta bertaratzen direnek San Juan Txiki Eguna. Kurtzebarri mendiaren magalean dagoen San Juan Txiki ermitan egingo dute ospakizuna, eta honako egitarau hau prestatu dute: 10:00etan, etxafuego jaurtiketa egingo dute, eguna hasteko, eta, horrekin batera, kanpai jotzea. Ordu horretan egingo dute San Juan Txikira igoera; 11:00etan, berriz, meza izango da ermitan; eta amaitzean, 11:30ean, salda eta txorizo dastatzea egongo da, musikak lagun eginda. Eguraldi txarra eginez gero Mendiolan egingo dutela ospakizuna adierazi dute antolatzaileek.



UDA

## Lehia Eugenio Otsoa bolatokian

Leintz Gatzagako Eugenio Otsoa bolatokian jaurtialdia egin zuten joan den zapatuan, eta puntuagarria izan zen Gipuzkoako Txapelketarako. Hain zuzen ere, San Migel elkarteke Angel Ibarluzea izan zen nagusi Gipuzkoako 53. hiru txirilo bola-txapelketako seigarren jaurtialdian. Guztira, 66 bolari elkartu ziren, eta aipatzekoa da elgetarrek egindako saioa.

# Punta-puntako marken aldeko apustu garbia

2023an gehien saldu ziren bost autoetatik bi Arrasateko Udalaiz Autoak kontzesionarioan aurkitu ditzakezu; maila handiko marken aldeko apustua erabatekoa da, eta etorkizunera begira auto elektrikoetan ere konfiantza handia dute

Geroz eta auto gehiago saltzen ari dira. Datuek ez dute gezurrik esaten. Salmenten hazkundera begi-bistakoa da. Martxoan 111.361 auto matrikulatu ziren Espainia osoan, eta, iazko martxoko kopuruarekin alderatuta %3,6 gutxiago saldu bazen ere, urte osoko hamabi hilabeteak kontuan izanda %9,41 igo da autoen salmenta; guztira, 1.136.189 matrikulazio izan dira. Gainera, tarte honetan gehien saldu diren bost auto marketatik bi Arrasateko Udalaiz Autoak kontzesionarioan erosi daitezke. Automobilaren eskaintza zabala dute eta punta-puntako markekin egiten dute lan; besteak beste,



Volkswagen Tiguan, Alemaniako markaren auto salduenetako bat. VOLKSWAGEN

Audi, Seat, Volkswagen eta Skodarekin. Geroz eta auto gehiago saltzen ari diren garaian, aukera ona izan daiteke Arrasateko Udalaiz Autoak kontzesionarioa joatea.

## PUNTA-PUNTAKO MARKAK

2023. urtean gehien saldu diren bost auto marketatik bi aurki daitezke Udalaiz Autoak kontzesionarioan: Volkswagen eta Seat markako autoak, hain zuzen. Iaz, guztira, Volkswagen markako 63.871 auto saldu ziren Espainian –hirugarren salmenta kopuru handiena–, eta, Seat markari dagokionez, 58.586 auto saldu ziren –bosgarren salmenta kopuru handiena–. 2019. urtetik hona, Espainiako bost auto marka salduenen artean egon dira Volkswagen eta Seat, eta gaur egun ere bost onenen artean egoten jarraitzen dute; beraz, esan daiteke punta-puntako auto markak daudela Udalaiz Autoak kontzesionarioan.

Horiez gain, harrera izugarria izaten duten beste bi auto marka ere saltzen dituzte Udalaiz Autoak kontzesionarioan. Audi eta Skoda markako autoak dira

horiek, eta, 2023ko salmentei dagokienez, hamaikagarren eta hamahirugarren postuetan daude, 40.663 eta 31.778 salmentarekin, hurrenez hurren.

## TIGUAN BERRIA

Volkswagenek Tiguan modelo berria merkaturatu du 2024an, eta aukera erakargarria izan daiteke auto berri baten bila ari direnentzat. Tiguan modelo aurrenekoz 2007an merkaturatu zutenetik, Volkswagenen auto arrakastatsuenetako bat bilakatu da. Modelo berri hori eTSI gasolinazko motorrarekin edo 125 kilometroko autonomia elektrikoa duen bertsio hibrido entxufagarriarekin hornitu ahalko da. Deitu, galdetu edo joan Udalaiz Autoak kontzesionarioa eta eskatu informazioa. Zure ametssetako autoa zure zain dago.

**2023. URTEKO BOST AUTO MARKA SALDUENETATIK BI, UDALAITZ AUTOAK KONTZESIONARIOAN**

**Zutaz arduratzen gara**

Audi Q2

VW Caddy

VW T-Roc

Skoda Kodiaq

Seat Arona

**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71  
udalaiz@otola.org | www.udalaiz-arrasate.com

# Udalaitz kontzesionarioa: etorkizunera begira, kalitatea bermatzen

Seat, Audi, Volkswagen eta Skoda marketako autoak dituzte salgai Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan. Begirada etorkizunera begira izanda, auto elektrikoaren aldeko apustu sendoa egiten dute, horretarako eskaintza zabala izanda

Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan Volkswagen etxe-marka guztiarekin egiten dute lan: Seat, Audi, Volkswagen eta Skodarekin. Punta-puntako autoak dituzte, eta marka horiek duten berme osoa eskaintzen dute; automobil aukera benetan zabala dute bezeroen eskura. Auto bat erosi gura duen ororen beharretara egokitzen den ibilgailuaren gaineko aholkua ematen dute bertan, betiere, segurtasuna eta kalitatea bermatuz, eta gidatzean lasaitasun handiagoa izateko teknologia eta gidatze funtzio berritzaileekin hornitutako autoak eskaintzen dituzte.

Udalaitzen teknologia aurrerakoiaren alde egiten dute, etorkizuna horixe dela argudiatuta. Auto elektrikoak errealitate bihurtu dira aspalditik, baina orain, gidari asko hasi dira benetan baloratzen halako auto bat erostea. Aurrerapenak badiu abantailak, eta, etorkizuneko hiriak bizitzeko espazio hobetzat ikusi behar direla azpimarratuta, Udalaitz autoetako gama elektrikoaren lehentasun honekin diseinatuta dago: errentza-motorrek sortzen dituzten gasak murrizteko teknologien alde eginez eta zero isuri dituzten propulsioteknologiak berriak garatuz. "Gure kontzesionarioio marka eta modeloaren arabera, proposatzen ditugun autoen artean azpimarragarriena eta berritasun nagusi bezala nabarmendu dezakeguna da online zerbitzuak eskaintzen dituztela auto horiek, dituzten beste hainbat ezaugarriekin batera, eta merkatuan geroz eta indar handiagoa hartzen ari diren auto elektrikoak direla ahaztu barik", dio Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioio Asier Fernandezek.

## SEAT LEON E-HYBRID

Seat etxe-marka Leon E-Hybrid berria energia elektrikoarekin eta gasolinarekin dabilen ezohiko hibrido bat da. Bateria kargatu daiteke ibilgailua martxan dagoen bitartean, baina entxufatu ere egin daiteke. Auto horrek duen teknologia horri esker, hibrido konbentzional edo elektriko batek baino autonomia handiagoa lortzen du, eta, motor elektrikoari esker, emisiorik sortu gabe gidatu daiteke. 204 ZP ditu, eta 64 kilometroko autonomia elektriko homologatua, WLTP zikloan -zero ingurumen bereizgarria-. Bi karrozeriarekin dago esku-argarri: bost atekoa eta familiarra (Sportstourer). Erosoa, isila eta azkarra da, eta oso erregai gutxi gastatzen du.

## AUDI Q4 SPORTBACK E-TRON

Audi Q4 Sportback e-tron berria, berriz, %100 elektrikoa da, SUV kategoriakoa, autonomia handikoa eta DGTren zero etiketa duena. Aurreko modeloekin alderatuz, karrozeria desberdinarekin, sabai lerro inklinatuagoa du, zutabe etzanagoekin, aleroi handiago batekin eta luneta txikiagoarekin. Q4 Sportback e-tron berria hiru motorizazio elektrikoekin dator: 35 e-tron, 170 ZPko motor elektrikoarekin eta 52 kWh-ko bateriarekin; 40 e-tron, 204 ZPko motorarekin eta 77 kWh garbiko bateriarekin; eta 50 e-tron Quattro, ardatz bakoitzean 299

**LAU MODELO HORIEK ELEKTRIKOAK DIRA ETA ONLINE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUZTE**

zaldiko potentzia handiarekin. Kargari dagokionez, modu errazekoa da, eta e-tron compact sistema 26 herrialdeetara hedatuta, 200.000 karga-leku eskaintzen ditu. Etxean ere karga daiteke modu erosoan. Sistema horrek eskaintzen duena baino azkartasun handiagoa behar izanez gero, wallbox sistema ere instalatu daiteke.

## VOLKSWAGEN TIGUAN

Volkswagen Tiguan autoa merkatuko SUV onenetako bat da, eta, hain zuzen ere, erreferentzia bihurtu da, gidari zorrotzeneri eskaintzen dien gaitasun, diseinu, berrikuntza teknologiko, konektibitate eta segurtasunagatik. Teknologiarri dagokionez, gidatzeko modua aldatzeko modua eskaintzen du Normal, Eco, Sport, Comfort eta Individual moten artean. Tiguanen barruan hainbat gama daude; besteak beste, Tiguan R-a 2.0 TDI motorarekin eta 320 ZPko potentziarekin; eta Tiguan eHybrid, 245 ZPko potentziarekin eta 50 kilometroko autonomia elektrikoarekin duena, esaterako.

## SKODA ENYAQ IV

Skoda markaren lehen SUVa da ENYAQ IV auto elektriko berria, 204 ZPko potentzia eta 510 kilometroko autonomia du. 4,64 metroko luzera du eta 585 litroko maletategia, markaren indargune eta bereizgarri handienetako bat. Ibilgailuak 0 eta 100 km/h arteko azelerazioa eskaintzen du bederatzi segundo baino gutxiagoan. Skodak Cockpit instrumentazio sistema birtuala ere eskaintzen du. Abiadura baino askoz gehiago erakusten duen TFT pantaila digitala dauka.



Seat Leon E-Hybrid. UDALAITZ AUTOAK



Audi Q4 Sportback e-tron. UDALAITZ AUTOAK



Volkswagen Tiguan. UDALAITZ AUTOAK



Skoda Enyaq IV. UDALAITZ AUTOAK

# Grupo Easo Motor: Ford eta Hyundai autoetako modeloak aukeran

Familiei zuzenduta, egunerokotasunerako zein bidaiak egiteko Ford Tourneo Courier autoa proposatzen du Grupo Easo Motorrek; horrez gain, Hyundai familiako modelo arrakastatsuenetako baten aldeko apustua ere egiten du: Hyundai Kona

1979an hasi zen Grupo Easo Motor automozioaren munduan, Gipuzkoako Ford kontzesionario batekin, eta, ordutik, hamalau markaren ordezkari lan egiten du taldeak Gipuzkoan eta Bizkaian: Ford, Hyundai, Mazda, Jaguar, Land Rover, Citroën, Opel, Peugeot, Fiat, Abarth, Jeep, Mitsubishi, Aiyas eta Maxus. Taldearen helburu nagusia da bere bezeroen mugikortasunari buruzko behar guztiak asetzea eta, era berean, marken salmenten emaitza nazional onenak lortzea lan egiten duen eremu geografikoan. Gaur egun, Euskal Herrian liderra da automozioaren merkatuari dagokionez.

"Etorkizuneko proiektu sendoa" gisa izendatzen dute euren burua, eta taldearen egitekoa euren "indarraren iturri diren langileengan oinarrituta" dagoela aitortzen du Easo Motor taldeak. Bertako langileek "taldearen ospea eta bizitasuna determinatzen dute eta taldeari hazten" laguntzen diotela dio taldeak. Enpresaren balioei dagokionez, "bezeroen ongizatearekiko kezka, haiekiko zintzotasuna eta bikaintasuna lortzeko bidean" lan egiten dutela nabarmentzen dituzte.

Arrasateko San Andres kaleko 6. atarian du egoitza Easo Motorrek -Hyundai Oarso Car-en eta Ford Easo Motor Mugarrin-, 200 auto baino gehiago dituzte momentuan entrega egiteko aukerarekin, eta, horrez gain, eskaintza bereziak ere badituzte.

## EROSKETA MALGUA AUKERAN

"Izan ere, ibilgailu bat erosteko modurik onena erosketa malgua da. Berria erosi eta hiru edo lau urtez autoaz gozatu ostean eta epe hori igarotakoan, bezeroak erabakitzen du beste auto baten

truke aldatu nahi duen; adibidez, auto elektrikoa hartu edo itzuli. Horrela, bezeroa lasai dago merkatuak edo teknologiak eman ditzakeen aldaketan aurrean, eta hilean ordaindu beharreko kuota baxua da, 200 eurotik hasita".

## FORD TOURNEO COURIER

Ford Tourneo Courier berria diseinu guztiz berritzailearekin dator. Estilo balioanitz eskaintzen duen ibilgailua da, familia-

ko kideekin erabiltzeko baliagarria izan daiteke eta asteburuan kanpora joatea dibertigarriago eta errazago egiten du; aldi berean, lanerako eta egunerokotasunean erabiltzeko aproposa den ibilgailu bat da. Ford Tourneo Courier autoa bost bidaiari garraiatzeko diseinatuta dago, 570 litroko maletategia du eta 2.000 litrorako bano gehiagora irits daiteke eserlekuak jaisten baditugu. Gainera, maletategian diseinuan ondo inte-

gratutako albo-panel batzuk daude. Hori dela eta, objektu txikiagoak modu erabat seguruan gorde daitezke. Forden modelo berri hori 125 ZPko ecoboost gasolina-motor bakar batean bakarrik badago ere, hiru akabera desberdinetan merkaturatzen da: Ford Tourneo Courier Trend, Ford Tourneo Courier Titanium eta Ford Tourneo Courier Active. Ford Tourneo Courier berriari buruzko informazio gehiago jasotzeko, eskaneatu

QR kodea edo sartu grupoeasomotor.com web orrialdean.

## HYUNDAI KONA

2023an Tucson izan zen Hyundai auto markaren salmenten erregea, 19.027 salmentarekin, baina gertutik jarraitu zion Kona modeloak, 11.617 salmentarekin. Horiek biak izan ziren Hego Koreako auto markaren modelo arrakastatsuenak, eta 2024ko aurreikuspenek diote Hyundai Tucsonen eta Konaren arteko aldea txikituko egin daitekeela, azken horrek izan dezakeen hazkunde dela eta.

Kona berria bere aurrekoa baino SUV nabarmen handiagoa da. 4,35 metroko luzera, 1,83 metroko zabalera eta 1,58 metroko altuera iragartzen ditu eta ardatzen arteko distantzia 2,66 metrokoa da. Estetikoki, aurrealdeari dagokionez, minimalismoa nagusi duen egitura bat nabarmentzen da. Maletategiari dagokionez, gehienezko edukiera 466 litrokoa da.

Punta-puntako teknologia adimendunaren gama ikaragarriarekin, Kona modeloak estandar berriak ezartzen ditu SUV subkompaktuen segmen-tuan. Orain, konektagarritasunaren eta erosotasun adimendunaren azken funtzioez gozatu daiteke. Kona da nabigazio konektatu berria (Connected Car Navigation Cockpit) duen lehen Hyundai modeloa. Kona berriak NFC giltza digitala ere badu eta ibilgailua smartphone edo smartwatchetik irekitzea ahalbidetzen du giltza digital berri horrek.



Tourneo Courier berriaren informazio gehiagorako, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



Ford Easo Motor Mugarrin egoitza. GRUPO EASO MOTOR



Ford Tourneo Courier autoa. GRUPO EASO MOTOR



Hyundai Kona autoa. GRUPO EASO MOTOR



**ARRASATE, Mugarri**  
Ibilgailu berriak  
Aukerako Ibilgailuak  
Saldu osteko zerbitzua  
Ordezko piezak



**ESKAINTZAK!**



Ford PUMA  
175 €/hilean\*



Ford TOURNEO COURIER  
179 €/hilean\*



Ford KUGA  
189 €/hilean\*



Hyundai i20  
170 €/hilean\*



Hyundai KONA  
186 €/hilean\*



Hyundai TUCSON  
199 €/hilean\*

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

📞 682 909 625

**GRUPO  
EASO  
MOTOR**

[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



Easo Motor



**HYUNDAI  
Oarso Car**

# Baltsen jaitsiera, beste nobedade batzuek gain

Maiatzaren 17tik 21era ospatuko diren jaietarako "aspaldiko batzorde jendetsuena" aritu da lanean, Udalaren arabera; berritasunen artean daude Xaxauren baltsen jaitsiera eta gaztetxoendako egitarau berezia. Mugimendu Sozialistak gaur emango du ekintzen berri

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Ate joka dira Pentekosteak, eta, astelehenean egitarau osoa aurkezteko egindako agerraldian iragarri zuten, nobedade aipagarriekin datoz. Maiatzaren 17an jaitsiko da Bitorianatxo, eta hilaren 21ean berriro igo bitartean ez da aspertzeko astirik izango Bergaran. Eskaintza zabala dago, adin eta gustu guztiak asetzeko modukoa; eta antolatzaileek nabarmendu dute 150.000 euroko inbertsioa egin dela.

## Jai Batzorde "jendetsuena"

Jaien antolakuntza aspaldiko "parte-hartzaileena" izan dela dio Kultura zinegotzi Maite Usabiagak: "Jai Batzordea aspaldiko jendetsuena izan da. Aurten, festen bueltan ibiltzen diren eragileen ordezkariak gain, herriarrak ere animatu dira parte hartzera". Horrek kezka eta proposamen berrien agerpena eragin du, eta, horrenbestez, hainbat berrikuntza izango dira aurtengo egitarauan.

Berrikuntzekin hasteko, 8 eta 12 urte arteko gaztetxoentzat zegoen "hutsune handia" identifikatu eta haiendako hainbat ekintza antolatu dituzte; besteak beste, kaleko dantza tailerra, ginkana bat eta gaztelekuan egingo den gazte bazkaria.

## Baltsak eta erraldoi berriak

Nobedade ikusgarrienetako bat da Xaxauren eskutik bueltan datorren baltsen jaitsiera: "Urte asko pasatu dira ekintza hori egin zenetik, eta urteak daroztaz berreskuratu nahian. Aurten, egia bihurtuko da". Kuadrilla bakoitzak baltsa bat sortu behar du, eta harekin ibaian behera jaitsi, autobus geltokitik Bideberriraino; hilaren 20an izango da, 11:30ean. Era berean, Xaxauk janari-txosna jarriko du Bideberrin: "Oso pozik gaude herriar talde bat prest agertu delako janari txosna kudeatzeko".



Pentekosteak iragartzeko astelehenean egindako agerraldia, plazan. G.B.



Jaietako egitarau osoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Bergarako Erraldoi Taldeak (BET) dantzari itxurako bi erraldoi aurkeztuko ditu jaietan: "Herri dantzaria da Bergara, eta herriko dantza taldeak omendu nahi genituen", esan du Ibon Gantxegi taldekideak. Udalaren eta Jardunen laguntza izan dute, ikastetxeetan erraldoi berriendako izen-proposamenak jasotzen ari dira-eta umeen eskutik.

## Zuzeneko musika eta kartela

Aurten ere "puntako" kontzertuak egongo dira, besteak beste, Su Ta Gar, Janus Lester, Xabi Solano, Raimundo El Canastero, Trikidantz, Unidad Alavesa eta Haize Arroza daude-eta egitarauan. Mikel Aginagalde ilustratzaile eta tatuatzaile bergararraren *Aste ta Jai*, *Beti Alai* kartela izan da herritarrek aukeratu dutena, hamalau proposamenetatik. "Bergararra izanik, sekulako ilusioa egiten dit herriko kaleetan nire kartela ikusteak", esan du Aginagaldek.

## Herri bazkarirako txartelik ez

Maiatzaren 20ko herri bazkari nagusirako txartelak apirilaren 29an jarri ziren salgai eta berehala agortu ziren. Hilaren 20an, 2009an, 2010ean eta 2011n jaiotako begira bazkaria egongo da gaztelekuko frontoian; maiatzaren 10erako eman behar da izena; eta jaiak hasteaz bat Seminarioko karpan egin ohi den haur eta gurasoendako parrilladarako txartela udal liburutegian salduko dituzte, sei eurotan, maiatzaren 6tik agortu arte.

Bestalde, eskalatzaileendako Mokoloblock ere egingo dute aurten, hilaren 19an; izena eman behar da hilaren 10erako, [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus) webgunean.

## Mugimendu Sozialistaren gunea

Mugimendu Sozialistak gaur emango du jaietarako ekintzen berri, Usoa tabernan, 19:00etan –ondoren, Irimo taldearen kontzertua egongo da–. Udalar txosna jarri ahal izatea eskatuko dute gaur: "Ezin daiteke txosna kudeatzeko eskumena zozketa batera mugatu, ezta txosna jarri eta egitaraua antolatzeko eskubidea eragile bakar baten esku bakarrik utzi ere".



NIRE USTEZ

EIDER NAJERA

## Ahaztutako Gernikak

Martxoaren erdialdean egutegi persiarrak urte berria ospatu zuen, Newroz-a. Automatikoki Halabjako sarraskia etorri zitzaidan gogora, eta baita Um Draigako bombardaketa ere, otsailean izan baitzen bere 48. urteurrena. Ez da harritzekoa orain Palestinan gertatzen ari den genozidioa burutik pasatzea. Burutik pasatu baino gehiago, heldu eta barruan gelditzen zaizkit bertatik iristen zaizkidan irudiak, testigantzak eta izenak.

Hainbat Halabja eta Um Draiga daude munduan zehar sakabanatuak, eta hemendik gertu dago horietako bat. Hala ere, egunero jasotzen ditugun berri guztiekin izutu, nazkatu eta altxatu beharrean, minari eta sufrimenduari gure egunerokotasunean lekua egin diegula ematen du. 41ko gosea eta plazako bala markak atzean utzita, gerrak gugandik urrun daudelakoan. Urrun egon daitezke, baina ez dira desberdinak, ez dira arrotzak. Zertan dira desberdin hemengo bombak eta gosea eta Rafahkoak? Neure buruari galdetzen diot ea posible den herri bat inoiz sendatzea bere hiltzaileak munduan zehar beretan jarraitzen duen bitartean. Denon barruan gelditu beharko lukeen zalantza da, agian.

## Bigarrenez ospatuko dituzte jaiak Ernai kalean asteburuan

Bihar, hainbat ekintza izango dituzte: crossfit erakustaldia (10:30); Ernaitxoren jaitsiera eta txosna-irekiera (12:00); umeendako jolasak (12:30); bazkaria (14:30); helduendako herri kirolak (17:00); txokolate-jana (18:00); eta Good Vives eta Low Cost taldeen kontzertuak (19:00). Domekan, ibilaldia (10:00) eta sari banaketa izango dituzte (13:30).

## Bakarrizketa eta bertso saioa Sorturen 'Udaberri feminista'-n

*Udaberri feminista* izeneko zikloa amaitzeko bi saio antolatu ditu Bergarako Sortuk Arrano tabernan: gaur, maiatzak 3, Ane Lindaneren bakarrizketa saioa egongo da (22:30); eta datorren egubakoitzean, hilak 10, Nerea Ibarzabal eta Eli Pagola bertsolariak arituko dira Jone Igartuak jarriko dizkien gaiei abesten (22:30).

## OHARRAK

### Agorrosingo taberna eta jatetxea, lizitaziora

Kontratua lau urterako da eta kiroldegia zabalik dagoen egunetan taberna irekita egon behar du. Izena emateko azken eguna maiatzaren 9a da. Argibide gehiago: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

### Gorlako kantina kudeatzeko aukera zabalik

Udalak hiru urterako lizitatu nahi du Gorlako kantina; proposamena aurkeztu behar da maiatzaren 14a baino lehen. Argibide gehiago: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

### Txistulari Bandaren kontzertu berezia

Maiatzaren 5ean udaletxean joko dute, 13:00etan. Hamar pieza joko dituzte, Jose Miguel Laskurainen zuzendaritzapean.

### EAJ: posta bidezko botoa Europara begira

Ekainaren 9an egingo diren Europako hauteskundeetara begira botoa posta bidez emateko aukera ireki du EAJk; batzokian egongo dira, astelehenetik egubakoitzera, 10:30etik 12:30era.

### Ospakizuna San Juango Santikurutz basilizan

Domekan, hilak 5, ospatuko dituzte jaiak: meza (12:30) izango dute, eta, ondoren, salda eta txorizoa, trikitilariak lagunduta.





Tokiko Klima eta Energia Plana aho batez onartu zuten; PSE-EEko Alberto Alonso ez zen asteleheneko bilkuran egon. J.B.L.

## Energia Plana aho batez, eta elkarlanerako gertu

Tokiko Klima eta Energia Plana onartu zuten EH Bilduk eta EAJK, "jasangarritasunean eredu" izango den Bergarako bat lortzeko bost helburu eta 115 ekintza jasotzen dituena. Bestalde, jeltzaleak ez daude ados aurten HAPOrako 100.000 euro murriztearekin

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Tokiko Klima eta Energia Planaren onarpena eta Arrizuriaga proiekturako 100.000 euroko kreditu aldaketa izan ziren gai nagusiak asteleheneko bilkuran.

### Erronkak, "oso handiak"

Planak "jasangarritasunean eta energia berdeagoetan" du jarrita arreta. Planean 115 ekintza jaso dira, 2030erako bete behar-liratekeenak, eta bost helburu zehatz ditu: energia eragin-kortasuna sustatu, aurrezpenetik eta berriztagarrien sorreratik; garraio publikoaren eta motorizatu gabeko bitartekoen erabileran oinarritutako mugikortasun iraunkorra bultzatzea; ekonomia zirkularrean oinarritutako kontsumo-ereduak sustatzea, hondakinen prebentzioa eta kudeaketa egokitik; klima agertokietara egokitzea; eta Bergarako klima-erronkei erantzuteko udal gobernantza-eredu berri bat sustatzea.

Energia Plana aho batez onartu zuen udalbatzak –PSE-EEko Alberto Alonso ez zen egon–, eta, EH Bilduk zein EAJK azpimarratu zuten, erronkak "oso

handiak" dira, eta bi taldeek erakutsi zuten prestutasuna dagoeneko gainean dagoen 2030era begira lan egiteko.

### Kreditu aldaketa, ezbaian

Bestetik, EAJ abstenitu egin zen EH Bilduk Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPOn) eguneratzeko aurreikusita zuen 150.000 euroko partidatik 100.000 euro beste proiektu batera bideratzeagatik: "Gure kezka da aldaketa horrek HAPOn eragin-prozesua atzeratzea; Mugikortasun Plana aurreko agintalditik ari gara eskatzen, eta ez dago, eta guretzat lehentasuna hori da, Mugikortasun Plana egitea eta HAPOn txertatzea".

EH Bilduk ukatu egin zuen kreditu aldaketak HAPOn eragin-prozesua atzeratuko duenik: "Arrizuriagan aurreikusita ez zegoen gastu bat ekarriko du berogailu sistemak, eta dirua HAPOrako partidatik hartzea erabaki dugu. Aurrekontuaren planteamendua zenbait urtetarako izateak ahalbidetzen digu halako aldaketak egitea Mugikortasun Planerako eta HAPOrako epeak baldintzatu gabe".

# BERGARAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

2024 MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK  
2025 Maiatzaren 2tik ekainaren 7ra

MUSIKAREKIN, DANTZAREKIN,  
40 URTE HERRITIK HERRIARENTZAT

## GERTURATU ETA EZAGUTU GAITZAZU

943 76 57 80 - 679 15 45 12  
idaz@bergarakomusikaeskola.com  
www.bergarakomusikaeskola.com






# "Agorrosin beteta ikusi izanak ilusioa egin digu"

**SARA BALENTZIAGA BERGARAKO KAPITAINA**

Lehen urtea du Bergarako kapitain gisara Sara Blentziagak, joan zen denboraldian bi kapitainek taldea utzi ostean. Ohorezko Mailara igotzea lortu dute bergararrek.

## Gontzal Belategi Zubia

Ohorezko Mailara igotzea lortu dute Bergarako jokalariek. Igoera horretan parte-hartze handia izan du Sara Blentziagak (Bergara, 2002), taldeko kapitainak. **Nola joan da denboraldia?**

Aurreko denboraldian nahiko triste amaitu genuen, kategoriaz jaitzi ginelako. Gainera, galera handiak izan genituen, Ainhoa eta Mariñe kapitainek taldea utzi zutelako. Taldea sortzea ere zalantzan egon zen, kopuruz gutxi ginelako. Kartel bat ere atera behar izan genuen, jendea apuntatu zedin. Azkenean, poliki-poliki, taldea sortzen joan ginen. Gure hasierako helburua onena ematea zen, baina erronka txikiak bete ahala gure helburuak mailaz berriro igotzea izan behar zuela ikusi genuen. Emaizta ikusi da, eta denboraldia modu positiboan baloratze-ko moduan gaude.

## Zelan ikusi duzu taldea?

Bueno, taldea motibatuta ibili da, ilusioarekin. Aurreko urtean gaizki pasatu genuen, partidua galtzen eta kopuruz pertsona gutxirekin. Hala ere, aurreko emaitzak zela joan diren ikusita eta astean zehar egiten genuen lana ikusita, taldea pozik ibili delakoan nago; bereziki, azken txanpa honetan.



Sara Blentziaga, zapatuko partiduaren ostean. S.B.

## Behin igoera bermatuta, ospatzeko aukera izango zenuten, ezta?

Egun oso polita izan zen; batez ere, Agorrosin hain beteta ikustek ilusioa egin zigun. Herrian emakumezkoen futbolak hartu duen indarra ikustek poztu egin gintuen. Partidua etxean jokatzek behar genuen bultzada eman zigun. Familia eta lagunak etorri ahal izatea eta etxean ospatzea ikaragarria izan zen. Partiduaren ostean, zuzendaritzako kideekin afaltzeko aukera izan genuen, eta gaua bera ere oso ondo joan zen.

## Nola aurreikusten duzu hurrengo denboraldia?

Lehenengo, epe motzean pentsatu behar dugu. Bi partidu ditugu oraindik, eta ezin gara erlaxatu. Egindako lan guztiaren ondoren, urtea ondo bukatzea gustatuko litzaiguke. Final bat ere badugu oraindik, eta horra ere prestatu behar dugu. Hasiera batean, maila mantentzea izango da asmoa. Kategoriaz zelan dagoen ikusi eta horra moldatu nahi dugu. Bestela, betikoa, astean zehar egindako lana asteburutan erakustea.

## Elosuko gazteluaren mitoez eta egiez hausnartzeko aukera

Lanbroa Kultur Elkartearen eskutik, *Elosuko gaztelu nafarra*. *Egia ala mitoa?* izeneko hitzaldia egingo dute gaur, 19:00etan, Irizar jauregiko azken solairuko aretoan. Andoni Larrañagak gidatuko du Lanbroa Kultur Elkartearen estreinako ekitaldia izango dena. Lehen ekitaldi horretan Elosuko gazteluaren inguruan hitz egitea erabaki dute.

Gaztelu horren zantzu gutxi batzuk bakarrik gelditzen dira, eta, ikerlarien arabera, Nafarroako Erresumaren zaintza-gortorlekuen sarea osatzen zuen. Gaztelua benetan defentsa saren parte ote zen argitu nahi dute berbaldean. Ostean, afaria egingo dute, baina horretarako izen-emate epea itxita dago jada.

Behin aurkezpen-hitzordu hori igarota, uda ondoren itzuliko dira Lanbroako kideak. Hiru hitzaldiko bi ziklo prestatzen dabilta dagoeneko.

## 'Markos Gimenezen Karteletrak' ikusgai Olasto dorrean

Maiatzaren 7tik ekainaren 14ra, *Markos Gimenezen karteletrak* erakusketa ikusgai egongo da Olasto dorrean. Bere ibilbidean zehar hainbat alor jorratu zituen Gimenezek, baina palindromogintza da gehien landu zuena. Joseba Sarrionandiak eta Esteban Montoriok zuzendutako erakusketa horretan, Gimenezen palindromoetan oinarritu-

tako kartelak biltzen dira. Batzuk Gimenezek berak diseinatu zituen, baina Sarrionandiaren bitartez, haren lagunak eta beste hainbat euskal artistak ere palindromoak kartel formatuan ilustratu dituzte.

Erakusketaz gain, askotariko ekintzak egongo dira. Maiatzaren 7an, inaugurazio egunean, Sarrionandiak hitzaldia egingo du, 19:00etan. Bestalde, maiatzaren 14tik 16ra, 19:00etan, eta ekainaren 8an, 11:00etan hasita, bisita gidatuak egongo dira.

## Eduardo Alsasuaren erakustaldia egongo da Aroztegi aretoan

Maiatzaren 12ra arte Eduardo Alsasuaren *Material bisual sentikorra* erakusketa ikusgai egongo da Aroztegi aretoan. Alsasuaren pintura egungo errealismo piktorikoan kokatzen da. Artista gasteiztarraren lana bere errealitatearekin lotuta dago, eta eguneroko leku eta objektuetan aurkitzen du inspirazioa, eta sentsazio ezagunak sortu.

## Guztia prest dago 'K dantzan' ikuskizuna eskaini ahal izateko

Korrontzi musika taldeak eta Moises Azpiazu dantza taldeak *K dantzan* ikuskizuna egingo dute bihar, 21:30ean, Seminari-xoan. Moises Azpiazu taldeko hamahiru dantzari Korrontziren abesti ezagunenak dantzatuko dituzte, eta beste zazpi dantzari ohik arin-arina eta fandangoa. Sarrerak eskuragarri daude [seminari-xoa.eus](http://seminari-xoa.eus) atarian.

## Ohorezko Mailan berriro ere

Goraino bete ziren Agorrosingo harmailak zapatuan Bergarak eta Segurak jokatu zuten partidua ikusteko. Igoera bermatzeko berdinketa batekin nahikoa zuten, baina, azkenean, 3-1 irabazi zuten, Nahia Etxarrik, Maider Jorgek eta Lide Albenizek sartutako golei esker. Hala, datorren denboraldian Ohorezko Mailan izango da berriro ere Bergarako taldea.



Partida ostean ateratako talde argazkia. BKE

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurrira  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihoak · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugartearoztegia.com](mailto:aroztegia@ugartearoztegia.com)



Enpresa Registrada N°90/025



# Algaraka

BAKARRIZKETA LEHIAKETA

## Lehen saioko partaideak!



Mikel  
Iriarte



Xabin  
Fernandez



Maider  
Mimi



Asier  
Galarza

**Aurkezlea:** Miren Nogales **Epaimahaia:** Iosu Zubia, Idoia Torregarai eta Aner Peritz



Bakarrizketari  
gonbidatua:  
**Idoia Torregarai**



Epaimahai  
gonbidatua:  
**Ana Goitia**

Maiatzaren 10ean, 20:00etan,  
**Bergarako Seminarixoan.**



**Eskuratu sarrerak:**  
*seminarixoa.eus* webgunean  
edo egunean bertan leihatilan.

#### ANTOLATZAILEAK



#### BABESLEAK



#### LAGUNTZAILEAK



#### SAIOEN EKOIZPENA





Atzeko Herri Txapelketako partidu bat, iaz. IMANOL SORIANO

## Pilotaren festa herrikoia egingo dute asteburuan

Atzeko Herri Txapelketa jokatu dute gaur eta bihar pilotalekuan, eta 9 eta 48 urte arteko 92 parte-hartzailek hartuko dute parte. Aurten, gainera, herritik kanpo bizi diren antzularren seme-alabek eta aihertarrek parte hartzeko aukera izango dute

### Amaia Ramirez de Okariz

#### Kortabarría ANTZUOLA

Olalde pilota elkarteak hirugarren aldiz antolatu du Atzeko Herri Txapelketa, Antzuolako udal pilotalekuan. Guztira, 92 parte-hartzaile arituko dira pilotan, iaz baino hemeretzi gehiago, eta gaur, hilak 3, hasiko dira partidak. Hain justu, benjamin mailakoek jokatu dituzte lehendabiziko partiduak, 17:30etik 18:30era, eta alebin mailakoek txanda izango da ondoren, 18:30etik 21:15era. Alebinetik hiruk, gainera, final hamaseigarrenetara sailkatzeko aukera izango dute, helduekin jokatzeko: 21:15etik 01:00etara jokatu dira partida horiek, baina jarraipena izango du bihar, 09:00etik aurrera. 13:30ean final zortzirenak jokatu dituzte, 17:00etan final laurdenak, 17:45ean final erdiak eta 19:00etan, azkenik, finala.

9 urte ditu parte-hartzaile gazteenak eta 48, berriz, helduenak: hamar partaidetatik hiru 9 eta

12 urte artekoak dira, gutxi gorabehera, eta gainontzeko guztiak, beraz, 12 urtetik gorakoak. 137 partidu jokatu dituzte, guztira: pilotari bakoitzak gutxienez bi partidu, hamar tantora iritsi arte.

#### Berritasunak

Orain arte, herritarrek hartu ahal izan dute parte txapelketa herrikoi horretan, baina, antolatzaileek jakinarazi dutenez, edizio honek badu berritasun bat: Antzuolatik kanpo bizi diren antzularren seme-alabek ez ezik, aihertarrek ere parte hartzeko aukera izango dute; hain justu, Antzuolan bizi ez diren bost lagun egongo dira txapelketako parte hartzaileen artean.

### FESTA HERRIKOI BAT OSPATZEA DA HELBURUA, "PILOTA INDARTUZ ETA HERRIA EGINEZ"

Herri batekoa edo bestekoa izan, ordea, denentzako afaria egongo da partiduak amaitu ondoren, afari-merienda egingo baitute Olalde elkarteak.

Hala, antolatzaileek euren poza adierazi nahi izan dute: "Aurten ere asteburu osoan frontoiaren inguruan pilotaren festa herrikoia ospatuko dugulako, pilota indartuz eta herria eginez". Horretarako, ordea, herritarrek pilotalekura joatea ere funtsezkotzat jotzen dute: "Antzuolar guztiei gonbita egiten diegu bi egun hauetan frontoira etor daitezen".

#### San Isidro txapelketa

Martxoaren 17an hasi zen San Isidro txapelketaren hirugarren aldia, eta Euskal Herriko 54 pilotarik dihardute pilotan orduz geroztik. Joan den domekan, hilaren 28an, amaitu zituzten final laurdenak, eta maiatzaren 12an ekingo diete finalerdiei, astebete geroago, hilaren 18an, izango baita finala.



NIRE USTEZ

OLATZ ABASOLO

### Aupa, kaixo!

"Aupa, kaixo!".

Agur simple bat, gurutzatzean elkar ikusi dugun seinale. Gizaki batetik bestera, berdinen arteko errekonozimendua.

Herri txikietan oraindik ohitura hau praktikatzen dela pentsatu nahi dut, denok elkar ezagutzen baitigu, baina harago noa: uste dut gure mendialde eta natur inguruetako erritua ere badela gurutzatzean *aupa, kaixo* edo *egun on* esatea; edo buruaz gorakada bat egitea. Ezagun zein ezezagun izan, parekoari errekonozimendu bat.

Baliteke aldaketa aspaldi gertatu izana –ni ere gutxi nabil mendian–, baina badirudi sustoak ematen nabilela: aurrez aurre datorkidana agurtu, eta hark inondik inora ere ez espero.

Baliteke aldaketa aspaldi gertatu izana, eta dagoeneko ohitu naizela, baina aurreko aldi batean parekoak agurtu ninduenen ia estropezu egin nuen. Hori sorpresa!

Sorpresa, baina, egia esan, atsegina. Ezagun zein ezezagun, espazio eta denbora istant batez gure bidean agertu den horri aitortza: "Aupa, kaixo!".

### Larrain dantzako entseguak hasiko dira astelehenean

Herriko jaietako domekan –aurten, uztaillaren 21ean– egiten da larrain dantza, Oinarin dantza taldeak antolatuta, eta datorren astelehenean, hilaren 6an, hasiko dira entseguen, Torresorako. Horretarako, aurrez izena eman behar da: [labur.eus/larraindantza](http://labur.eus/larraindantza). Ikastaroa abiatzeko gutxienez hamar pertsonako taldea osatu behar da.

### Zabalik da dantza garaikideko saioan izena emateko epea

Udalak abenduan abiatu zuen *Gorputza da hitza*, Gipuzkoako koreografo emakume batzuen eskutik dantza garaikidea zabaltzeko, eta maiatzaren 11n izango da bigarren saioa, 11:00etatik 13:00etara, 16 urtetik gorakoei zuzenduta, Nerea Gurrutxaga eta Oihana Vesgarekin. Izen-ematea: udaletxean, liburutegian edo [udala@antzuola.eus](mailto:udala@antzuola.eus).

### GORA ETA BEHERA




### Olarango komunak ez dira jolaserako gune

Udaletik iritsi da oraingo honetan kexa. Nabarmendu dutenez, Olaran kultur etxean jolasean ibili ohi dira umeak, batik bat, komunean, baina nabarmendu dute Olaran ez dela jolaserako gune bat; eta, beraz, gurasoei eskatu diete adi egon daitezela haurrak non dabilzan jolasean.

#### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



# Saio irekia urmaelaren bioaniztasunaz jabetzeko

Bada urte eta erdi San Roke osteko urmaela egin zela. Eskolen Urmaelen Sarean kokatua, hainbat jarduera didaktiko egiten dituzte bertan eskolako umeei. Aranzadiko bi aditu izango dira gaur Elgetan habitat txiki honen garrantzi handiaz berba egiteko

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Udalaren ekimenez, Aranzadi Zientzia Elkartearen gidaritzapean eta eskolarekin elkarlanean egin zen urmaela 2022ko urrian. Ordutik, espazio didaktikoa da ikasleendako. "STEAM jardueri leku erreala eta esanguratsua emateko aukera da, eta ikerketa proiektu gisa metodo zientifikoaren ikaskuntzan zein ingurumen hezkuntzako jardueretan erabat osagarri", azaldu du zuzendaritzak.

Eskolatik sarri joaten dira urmaelera. Neurtzen dituzte uraren kantitatea eta tenperatura, erreparatzen diete urtaroei eragiten dituzten aldaketari, bitatzen eta izendatzen dituzten intsektuak eta landareak... "Ikasleentzako motibazioa eta jakin-mina pizten ditu, eta familiengan ere bai. Aurreko ikasturte amaierako balorazioan, proiektuaren inguruan gehiago jakiteko nahia jaso genuen familiengandik. Saio ireki hori antolatu dugu behar edo nahi horri erantzuteko", gaineratu dute.

**Bi atal izango ditu saioak**

Herritar guztiei zabalik, 16:30ean hasiko da gaurko jarduera, eskola atarian. Aranzadi Zientzia Elkarteak bi adituen eskutik *Uraren hegoak* erakusketa ikus-




Eskolako ikasle taldea urmaelean lanak egiten. ESKOLETAKO URMAELAREN SAREA

teko aukera izango da. "Sorgin-orratzen gaineko erakusketak da. Bioadierazleak dira eta eltxoen etsai nagusiak dira", azaldu du Aranzadiko herpetologo Ion Garinek. Adituak dio jendeak sarri eltxoekin lotzen dituela urmaelak eta hortik datorrela hezeguneei dagoen mesfidantza handia. "Askok beldur handia diete eremu horiei, baina esan behar da urmaela osasuntsu badago bioaniztasuna handiagoa dela eta horrek sorgin-orratzen edo burruntzien ugaritzea dakarrela".

Garinek gaineratu du urmaelaren bueltan eskolak denbora honetan zer-nolako lana egin duen ere erakutsiko dutela erakusketaren bitartez.

Saioko bigarren zatia urmaelean egingo dute: "Urmaela ez da putzu soil bat. Ondo begiratu gero, ikusiko dugu eremu bizia dela. Jendeak, gehienetan, anfibioekin lotzen ditu urmaelak, baina landaredi handia dago eta intsektu txiki asko. Hezeguneei duten aberastasunaren inguruan arituko gara. Laginketak ere egingo ditugu".



Urmaela aurreko astean. L.Z.L.

## Eremu bizia bezain didaktikoa

2022ko urrian egin zuten urmaela auzolanean eta euri urarekin bete zen gero. Landareen eta intsektuen bizilekua da ordutik. Ikusgaitzak dira eta oharkabean pasatzen dira, baina animaliak ere badaude. Gaur emango dituzte azalpen gehiago.

**Habitat galduak**

Aranzadi Zientzia Elkarteak adituak gogorarazten du urmaelak habitat galduak direla: "Asko eta asko lehortu egin dira, gizakiak beti hartu dituelako eremu lauak bere erabilerarako". Gogorazi du hezegune gutxi daudela eta horiek berreskuratzeko lanean dabiltzala Aranzadin. "Batzuetan, egiten dira biodibertsitatearen kontserbaziorako; eta beste batzuetan, Elgeta kasu, ikaste-eremu moduan. Oso espazio txikian bioaniztasun handia elkartzen denez, urmaelak puntu oso egokiak dira azterketarako zein sentsibilizaziorako", azaldu du Garinek.

Eskolen Urmaelen Sarean dago Elgetako urmaela: "Helburua da ikasleak izatea ikertzaileak edo zientzialariak, eta oso ondo erantzuten dute, gehienetan.

Aukera handiak ematen ditu urmaelak; izan ere, lanketa guztiak ez du zertan izan natur zientziekin lotutakoa. Neurtu daitezke hainbat parametro fisiko eta kimiko, zenbat euri egin behar duen urmaela ez lehortzeko... Baina euskara ere landu daiteke. Espezieak galtzen dira, eta izenak ere bai, eta tokian tokiko landare eta intsektu izendegiak lantzen ditugu. Urmaelak ekosistema oso dinamikoak dira, eta bilakaera oso azkarrekoak, gainera. Aldaketak urtetik urtera ikus daitezke. Ez dago aspertzirik".

**TALDEA 16:30EAN ABIATUKO DA ESKOLATIK; EKIMENA ZABALIK DAGO HERRITAR GUZTIEI**

## Lehen faseko lanak amaituta

Ur Kontsortzioak euri urak eta ur zikinak banandu ditu eta Udalak espaloi bietako baldosak berriitu ditu irisgarritasuna hobetuz. 43.000 euroko inbertsioa izan da Udalarendako. "Elizara arteko zatia egin da. Orain aztertu beharko dugu hurrengo proiektua zein izango den San Roke kaleko goiko aldean ere irisgarritasuna hobetzeko", esan du alkateak.



L.Z.L.

## Domeka eguerdian kantu jira koruko lagunen eskutik

13:00etan abiatuko dira Mendizaleen Plazatik eta tabernaz taberna ibiliko dira atzera ere plazan amaitzeko. Soinu-jole batekin eta hainbat gitarra-jolerekin egingo dute ibilbidea, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte kantu jiran parte hartzera. Azaldu dute *Elgeta kantuan* liburuko abestiekin osatuko dutela errepertorioa.

## OHARRAK

### Bisita gidatua

Domekan, hilak 5, bisita gidatua Intxortako ibilbide tematikora. Irteera 10:00etan, Espaloitik. Beharrezkoa da izena ematea: 943 79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).

### Erretiratuen irteera

Ordizia, Donostia, Aginaga, eta Getaria bisitatuko dituzte eguaztenean. Taldea 09:15ean irtengo da plazatik.



Sokaren gorulari Jesus Irizar Etxezarreta *Txutxin*, dantzako arku bat eskuetan duela. ASIER EGAÑA

## Dantza-maisu eta erreferenteari agur

Oñatiko dantzetan ez ezik, Euskal Herri mailan ere erreferente izan da Jesus Irizar 'Txutxin'. Transmisioan lan handia egindakoa, herriko dantzen ingurukoak zein Corpus jaiaren bueltako ohiturak jasotzen ari zen, ohikoa zuen zorrotzasunarekin

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

"Dantzarekiko pasioa", "utzitako hutsune handia", "lanean zuen seriotasuna" eta "xehekaria". Halako hitzekin gogoratzen zuten Jesus Irizar *Txutxin* (Oñati, 1949-2024) hura ezagutu eta harekin harremana izan zuten herritar askok, haren heriotzaren biharamunean. Eguaztenean, maiatzak 1, hil zen, ezustean. Azkar zabaldu zen albistea herrian; baita tristura ere herritar askoren artean.

### Nekaezina

Oñatz dantza taldeko kideen artean bereziki sumatu da samina, taldeko erreferente nagusienetakoa izan baita *Txutxin*. Osaba eta aita ere dantzariak zituen eta gertutik eta pasioz bizi izan du dantza hark beti, ez dantzari moduan bakarrik, baita dantza moldeak ikertzen, lantzen eta hark jaso eta bizitakoa ondorengoei transmititzeko lanean ere. "Haren adorea eskerrera irau du Oñatz dantza

taldeak; Euskal Herrian ez dago horrelako beste talderik. Pasioz bizi zuen dantza, sinistu egiten zuen, eta detaile guztiak zaintzen zituen. Indar handia zuen eta guztion errespetua lortu zuen", dio *Txutxin*-ekin batera 1970eko lehen Haurren Eguna antolatze-ko taldean ibili zen Lourdes Idoiak.

Lander Diaz de Gereñu txistulariak ere bat egiten du haren izaerak herriko dantza taldean izan duen garrantziarekin. "Nekaezina izan da. Harreman estua izan dugu, eta eztabaida asko, zorionez. Transmisioan lan handia egin du eta jakin izan du garai berrietara ere egokitzen". Kultura batzordeburu Iñaki Olalde ere gogoan ditu harekin

**CORPUSEKO  
KOFRADIAKO KIDE  
ZEN, ETA AURTENGO  
PROZESIOKO LANEKIN  
HASITA ZEGOEN**

egindakoa bilerak: "Makina bat egin dugu. Zehatza zen, serioa lanean, zorrotza. Dantzaren bueltan, erraldoi txikien proiektua, Inauteriak, Corpusak... askotan elkartu ginen. Hari esker Oñatiri buruz asko ikasi dutela aitortzen dute kulturako langile hainbatek, esaterako".

Oñatz dantza taldeko kide izateaz gain, Corpusetako kofradiakide eta Corpusetako buru ere bazen *Txutxin*. "Martitzen iluntzean elkarrekin egon ginen, apostoluen ileordeak lokaletik ateratzen, orrazteko. Hutsune handia utzi du, eta hori ez dute dozena bat lagunek ere beteko", dio kofradiako kide Manu Egañak.

### Euskal Herrian erreferente

Euskal Herri mailan izan da erreferente *Txutxin*, eta "dantza-maisuaren" ibilbidea jaso du Dantzaren elkarteak. Euskal Herri osoko hainbat dantza taldeko kideek eta txistulariek izan dute oñatiarra gogoan.

### Zubikoan eguzki plakak jartzeko lanak esleipen fasean dira

Zubikoa kiroldegiko teilatua eguzki plakak jarriko dituzte, energia ez-berriztagarrien kontsumoa murrizteko asmoz, eta lan horiek egiteko kontratazio prozesua esleipen fasean dago. 125.12 kWp-ko potentziako instalaziorako materiala hornitu eta obra egiteko kontratazioa egin gura du Udalak. Lanak Ekitemik enpresak egindako exekuzio proiektuaren arabera egin behar dira, hiru hilabeteko epean eta 123.700 euroko gehienezko aurrekontuarekin. Maiatzaren 20ra aurkez daitezke proposamenak, eta biharko, zapatua, bisita antolatu dute, 10:00etan, asmoa bertatik bertara ezagutzeko. Izena emateko: 943-78 04 11.

### Araozko ostatua eta Selma Huxley beka, osoko bilkurako bi gai

Araozko ostatua ustiatzeko hirugarren deialdi bat egitea onartu zuen udalbatzak apirilko ohiko osoko bilkuran. Azken deialdian ez zen proposamenik jaso, baina interesa duen bat badago, auzotarren esanetan, paperak epe barruan ezin izan baditu aurkeztu ere. Hori ikusita, maiatzaren 13ra arteko epea zabaltzea onartu zuen udalbatzak, baldintzak mantenduta. Interesatuak proposamen ekonomikoa, plana, ostalaritza arloko esperientzia eta negozio ereduaren txostena aurkeztu behar dituzte. Bestalde, Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren oinarriak eta 2024ko deialdia egitea ere onartu zuen udalbatzak.



SANTI MENDIOLA

### "Txukun" aritu dira beteranoak

Aloña Mendiren 75. urteurrenaren baitan, lagunartekoa jokatu zuten Aloña Mendiko eta Realeko beteranoek eguaztenean Azkoagain. Zazpi gol egin zizkieten donostiarrek etxekoei eta hauek ezin zulatu izan zuten kanpokoen atea, baina "txukun" jokatu eta amaitu zutelako pozik zeuden. Ikusmina piztu zuen partidua lepo bete zen Azkoagain.

### Herri Urratsera joateko autobusa egongo da Oñatitik

Maiatzaren 12an izango da aurtengo Herri Urrats eguna, eta autobusa egongo da Oñatitik joan-etorria egiteko. Txantxiku ikastolak antolatu du eta bertan eman behar da izena, hilaren 6a aurretik: 943-78 12 04 edo [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus). 08:00etan aterako da Ibarrik eta 19:00etan bueltatuko da Senperetik. Prezioa 12 euro da.

### GPSa telefonoan nola erabili ikasteko saioa antolatu dute

Apirilko ikastaroan jende asko kanpoan gelditu zela ikusita, GPSa telefonoan nola erabili erakusteko beste saio bat antolatu du Aloña Mendiko mendiko sailak. Bihar, zapatua, izango da, 09:30ean, egoitzan. Doan da, eta hauek eraman behar dira: Android sistema eragilea duen telefonoa, kargadorea eta SD txartela -zortzi GB-koa, gutxienez-.

# Ilusioa eta esperientzia lehian zapatuko finalean

Aurten lehen aldiz parte hartu duen Hangöver taldearen eta iazko liga irabazi zuen Albok taldearen aurkako finala jokatuko da zapatu arratsaldean, 17:30ean, Azkoagainen. Kopakoan, Shatoken Moura eta Weingüter lehiatuko dira

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zapatu arratsaldean jokatuko da herriko futbol txapelketako ligako final preziatua, eta partidu "gogorra" eta "zaila" izango dela aurreikusten dute talde biek. Lehen aldiak ematen duen indarra eta esperientzia arituko dira elkarren kontra.

## Final gogorra aurreikusten da

Hangöver da finalistetako bat; aurten hartu du parte lehen aldiz txapelketan eta finaleraino iritsi da, "finalerdietan oso partida onak" eginda, eta koparekin bukatu gura du denboraldia. "Egia esan, oso denboraldi polita izan da, zentzu guztietan. Lehenengo, kuadrillako ekipoa sortu genuelako; gero, partidu guztietan futbolaz gozatu dugulako; eta, azkenik, espero ez genuen final batera heldu garelako. Lehenengo urtea izanda denentzat, ez da batere erraza izan Championseko finalera heltzea. Aurreko hiru partiduak ez genituen irabazi, baina, azkenari begiratu gero,

oso sentsazio onak ditugu gogorra izango den finalera begira. Esperientzia dute besteek, eta hori abantaila txiki bat da, baina ziur naiz ilusio aldetik ez gaituztela irabazten, eta horrek izan behar du gura biharko motibazioa", dio Hangöver taldeko Anje Eskarzak.

Talde berriak Albok izango du aurkari, duela bi urte kopa eta iaz liga irabazita "sekulako ilusioarekin eta gogoarekin" zelairatuko dena. "Aurtengoa ez da denboraldi samurra izan. Iaz liga irabazi arren, aurten Superkopa galduta eman genion hasiera denboraldi berriari, eta ligaxkan kostatzen egin zaigu erregularitasuna mantentzea. Adinean gora goaz eta, gura edo ez; iga-

## BERRIAK ETA BETIKOAK "ONDO" KONPONDU DIRA, ANTOLATZAILAEN ESANETAN

rri egiten da gazteen aldean txispa gutxiago dugula. Championsera oso justu heldu ginen, berdinketa hausteko partiduan penaltietan irabazita. Eta finalerdi oso ona egin ostean, ilusio handiz heldu gara finalera. Oso partidu zaila izango da. Aurtengoa zailagoa, gainera. Hangöverren aurka 2-1 galdu genuen ligan; beraz, badakigu ondo ez bagaude ez dugula irabaziko. Urduritasuna ondoen kudeatu eta akats gutxien egiten duen taldeak irabaziko du txapelketa", dio Mikel Zubiagirrek.

## Azkoagainera joateko deia

15:30an, kopako finala jokatuko dute Shatoken Moura eta Weingüter taldeek, eta partidu biak ikustera joatera gonbidatu gura dituzte herritarrak antolatzaileek: "Ekarri ditzatela euren taldeetako kamisetak, nahi izanez gero. Azken finean, zapatuko beterrano guztien festa eguna izaten da, eta guztiok horrela sentitzea nahiko genuke".



Anje Eskarza (Hangöver) eta Mikel Zubiagirre (Albok) jokalariek Azkoagainen, eguaztenean. IÑIGO BARRENA



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

## Amaren Eguna

Ama jostuna da. Nik praken zuloak josten ditut; baina hobe amak ikusten ez badu. Beno, esaten nuenez, ama jostuna da. Eta sukaldaria, garbitzailea, kontularia, hezitzailea, haur eta zaharren zaintzailea, hogeita lau orduko begiralea, animatzailea... eta ziur zerbait ahazten zaidala.

Igandean Amaren Eguna izango da. Ama guztien eguna. Loreak, koloniak... oso ondo daude, baina zer da ama batek gehien desiratzen duena? Bereak zoriontsuak izatea, jakina; eta baldin bagara, haiei esker da, neurri handi batean. Beraz, amentzat oparirik hoberena aurkitu dut, nahiz eta behar eta eskatzen ez duten zerbait izan: errekonozimendua. Pentsa dezagun amak zer egin duen gugatik, bere eragina gure bizi-ibilbidean eta gaur garenean, igandean berari esateko. Ahal bada, besarkatzen dugun bitartean. Seguru beste ezer baino gehiago gustatuko zaiola. Bihur dezagun egun komertziala egun emozionala. Eta nik, behintzat, ez dut berriz entzun beharko: "Zertarako gastatzen duzu dirua erabiliko ez dudana zerbaitetan?".

## Jarraitzeko gogoz bukatu du ikasturtea Burrunda Faktoriak

Taldea zabalik dagoela ekarri dute gogora kideek, bakoitzak "gura eta ahal duen neurrian" parte hartzeko

## O.E.G. OÑATI

Lehen ikasturtearen balorazioa positiboa egin du Burrunda Faktoriak: "Bi denboraldietan harrerera oso polita izan dela iruditzen zaigu. Jende ugari ibili da ekitaldietan; askotariko jendea izan da, gainera, adinari nahiz gustuei dagokienez. Umeei begira antolatutako ekintzek ere oso ondo funtzionatu dute".

Emanaldietan parte hartu duten artistei buruz, euren aldetik jasotako esker hitzak baloratu ditu Burrundak: "Pozik gaude horrekin; hasieratik izan da gure

asmoa ahalik eta traturik onena ematea artistei. Gainera, gazte-txean ikusle ugari izan dituzte, eta iruditzen zaigu horrelako plaza batean jotzea pozgarria dela haientzat ere. Bestalde, fanzinearen bi zenbakiek ere harrerera polita izan dutelakoan gaude; zenbait herritarrengandik, behintzat, feedback positiboa jaso dugu". Datorren ikasturtera begira lanean jarraitzeko eta horrelako egitarauak prestatzeko gogoz daudela gehitu dute taldeko kideek, eta taldea zabalik dagoela gogora ekarri.

## Xabier Ugarteren omenezko kontzertua bihar Bidaurretan

Oñati Abesbatzak urtero egiten duen elkartrukean, aurten, Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Madrilgo Euskal Etxeko orfeoiarekin egingo dute. Zapatuan, maiatzak 4, Bidaurretan izango da emanaldia, 12:30ean, eta Xabier Ugartere omenezko aprobetxatuko dute; bertako kide izan zen urteetan. Hamazazpi pieza entzungo dira.

## 'FutbolisTOK' saioa dakar Gurrutzagak Santa Ana antzokira

Futbola eta osasun mentala uztartzen dituen Zuhaitz Gurrutzagaren FutbolisTOK bazarriketa ikusteko aukera egongo da datorren astean Oñatin. Datorren egunean etorriko da algoibartarra, maiatzaren 9an, eta Santa Ana antzokian egingo du emanaldia, 18:30ean. Aloña Mendiren 75. urteurrenaren barruko ekitaldia da.

# Euskadiko Txapelketan jarraitzea jokoan

**SASKIBALOIA** Biotz Aloña Mendik eta Soraluze BKEk mailari eustea dute jokoan biharko derbian (18:00). Oñatiarrek aurkariak baino garaipen bat gutxiago dute; beraz, irabaztea komeni zaie. Soraluze BKEk, aldiz, pauso handia emango luke irabaziz gero

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI Biotz Aloña Mendi eta Soraluze BKE ataka larrian iritsi dira denboraldi amaierara; izan ere, biak ala biak jaitsiera ekiditeko lehian daude murgilduta. Ez da denboraldi erraza izan ez oñatiarrentzat ezta bergararentzat ere, urte osoan egon dira eta sailkapenaren erditik beherako postuetan. Dena dela, itxaropena da galtzen den azkenengo gauza, eta gelditzen diren bi neurketetarako prest daudela aitortu dute bi entrenatzaileek. "Azken neurketa txarra izan zen; horregatik, taldeak are amorreragoa du biharko. Prest gaude azken bi neurketetarako", dio Aitor Ugartek, Biotz Aloña Mendiko entrenatzaileak. Bergararrek ere derbia dute begiz jota. "Garaipen garrantzitsua lortzetik gatz eta moral aldetik oso ondo iritsi gara bai derbira eta baita azken bi neurketa hauetara", adierazi du Xabat Irazolak, Soraluze BKEko entrenatzaileak.

## Derbi hutsa baino gehiago

Esan gabe doa biharkoa ez dela nolana hiko partidua, alde batek, derbia delako, eta, bestetik, galtzen duenak oso zaila izango duela mailari eustea. Aloña-koentzat azken aukera da biharkoa. "Garaipenak bakarrik balio du; bestela, ezingo dugu berdintzea lortu sailkapenean. Aurkari zuzena da eta joanekoan irabazi egin genuen; beraz, biharko garaipena errepikatzen badugu, gol aldea ere gure alde izango genuke", aitortu du Ugartek.

Begararrek, aldiz, joan den astean Azpeitiko taldeari irabazita, euren eskuetan dute maila mantentzea. Galdu egiten badute, ordea, gainontzekoen emaitzei itxaron beharko diete. "Joaneko porrotari buelta eman nahi dugu. Gainera, biharko irabazita hurrengo, partiduan gure eskuan legoke. Aldiz, biharko galtzen due-



Joaneko neurketan Biotz Aloña Mendi nagusitu zen. IMANOL SORIANO

## LAU TALDE JAITSIKO DIRA: ALOÑA BEHETIK HASITA HIRUGARRENA DA; BERGARA, BOSGARRENA

nak hanka eta erdi Gipuzkoako ligan izango du", azpimarratu du Irazolak.

### Gakoa, erritmoa ezartzea

Horrelako partiduak datozenean astea berezia izaten da, entrenamenduen kalitatea eta seriotasuna eta jokalarien kontzentrazio maila ere bai. Hala eta guztiz ere, astean egindako lan guztia baloia airera botatzean erakutsi beharra izaten da, eta kantxan neurketaren gidaritza hartzea da gako nagusietako bat. "Neurketaren gakoa gure erritmoa ezartzea izango da, erasoan zein defentsan", dio bergararren entrenatzaileak. Eta txantxikuarrena ere iritzi berekoa da: "Erritmoa ezartzea izango da garrantzitsua; hortaz, hori lortzen duenak aukera asko izango ditu garaipena eskuratzeko".

### Akatsak ekidin beharra

Bi neurketaren faltan, akats txikiak ere garesti ordainduko dira, eta hori ondo baino hobeto dakite bi taldeek. Aitor Ugartek argi du estutu beharra dutela: "Lau talde gaude borroka horretan, eta detaile guztiak dira garrantzitsuak. Orain, denek estutzen dute kantxan, eta guk ere hor egon behar dugu". Irazolak ere final gisa hartzen du biharkoa: "Behealde oso estu dago. Azken hiru neurketetan azken laurdenetan izandako akatsen ondorioz gaude gauden lekuan. Bi final gelditzen zaizkigu".

### Deia zaleei

Giroa ere garrantzitsua izango da biharko. Oñatin jokatzeko denez, Zubikoa bero-bero egotea nahi dute Aloña Mendikoek. "Etxean eroso egoten gara eta bertan egin ditugu partidu onenak aurten. Zubikoa beteta egotea gustatuko litzaiguke", aitortu du Aitor Ugartek. Xabat Irazolak ere espero du Bergarako zaleak gerturatzea: "Gure alboan egon direnak ere bertan egotea nahi dugu, eurekin indartsuagoak baikara".

## 54. Arantzazuko Igoera jokatu dute bihar arratsaldean

**TXIRRINDULARITZA** Bederatzi debagoiendar izango dira lasterketan, Arantzazun besoak altxatzeko prest

### I.B.K. OÑATI

Gazte mailako Arantzazko Igoerak 54. edizioa izango du bihar, eta bederatzi debagoiendar egongo dira irteera puntuan, helmugan besoak altxatzeko prest. Lasterketa arratsaldeko lauretan hasiko da, Oñatiko Triana auzoan, eta 150 txirrindularik parte hartuko dute, gutxi gorabehera. Gazteek 70 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta azkenengo Arantzazurako igoeran erabaki daiteke dena.



Alex Gomez iazko irabazlea. I.S.

### Debagoiendarak, prest

Iaz, Alex Gomez izan zen irabazlea, eta Ulma-Aloña Mendiko Unax Errasti laugarren sailkatu zen. Aurten maila bera emateko prest daudela aitortu du Aitor Atorrasagastik, Aloña Mendi txirrindularitza saileko presidentek, nahiz eta ez diren

aste errazak izaten ari: "Gaixorik izan dugu jendea, eta batzuk ez dira une egokienean iritsiko. Dena dela, etxean izanik, ea ihesaldirik harrapatzerik dugun eta norbait aurrean dugun. Lasterketa polita izango da, maila handiko kirolariak baitatoz".

## Motor hotsa berriz entzungo da Gorkako errepedean gora

**AUTOAK** Ibilbideak zituen gorabeherak konponduta, berriz egingo dute Gorkako Igoera, bost urteren ostean

### I.B.K. BERGARA

Bost urte igaro dira azkenekoz Gorkarako bidean motor hotsak entzun zirenetik; tartean pandemia bat ere igaro da, baina aurten bai, Gorkako Igoera itzuliko da. Pandemiaren ondorioz ezin izan zen antolatuta bi urtean, eta 2022. urtean itzuli behar zuela zirudienean, errepedearen egoera txarrak bertan behera uztea eragin zuen. "2022an errepedea konpondu behar zutela esan zuten, eta orain, egin dituzten konponketak ikusita, aurrera egotea erabaki dugu. Baimen guztiak ere lortu ditugu; beraz, aurten bueltan gaude", dio Xabier Zabaletak, Gorkako Igoerako antolatzaileetako batek.

### Berriro hastera

Bost urte askotarako ematen dute, baita lasterketarekin aurrera jarraitu edo ez birplantea-

tzeko ere, baina Zabaletak aitortu du ez dutela inolako zalantzarik izan, nahiz eta berriz hastea kosta egiten den: "Lehen, urterot egiten genuen, eta gauzak automatizatuta eta barneratuta genituen. Orain, dena Internet bidez egiten da, eta aldatu egin dira gauzak, baina betiko talde txoa elkartu ginen eta aurrera egitea erabaki genuen".

### Aldaketarik ez

Lasterketari dagokionez, errepedean egin dituzten konponketek gain, Zabaletak esan du lasterketa ez duela "aldaketarik" izango eta 2019. urtera arte egiten zuten formatuari eutsiko diotela. Aurten edizioan izango den parte hartzaile kopuruari buruz galdetuta, hori jakiteko oraindik "goizegi" dela gaineratu du; izan ere, astean beste lasterketa bat dago.



# Herriaren izenean maila emateko prest daude

**PILOTA** Gaur hasiko da 56. Herri Arteko Pilota Txapelketa, eta Debagoieneko bi talde arituko dira lehia: Bergara eta Oñati. Bergararrek Amasa-Villabona izango dute aurkari eta txantxikuarrek, hirugarren urtez jarraian, Amezketauren aurka jokatu dute

**Iñigo Barrena** DEBAGOIENA

Iluntzean abiatuko da 56. Herri Arteko Pilota Txapelketa, Debagoieneko bi talde tartean direla: Oñati eta Bergara. Oñatiarrek hirugarren urtez jarraian Amezketa izango dute aurkari eta bergararrek, berriz, Amasa-Villabonaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Helburua, nola ez, kanporaketa gaitztea izango da.

**Errebanxa gogoarekin**

Oñati eta Amezketa elkar eza gutzen duten aurkariak dira; izan ere, azken bi urteetan elkarren aurka aritu dira. Bietan, baina, Amezketa izan da nagusi. Oñatiarrek errebanxa gogoarekin daude gaur (20:00) hasiko den kanporaketarako. "Ea gaur punturik eskuratzerik dugun eta datorren astean etxean kanporaketa gaitzitu ahal dugun. Ea hirugarrena gure aldera datorren", dio Mikel Aramendia Oñatiko entrenatzaileak.

Kadete mailan Iker Rodriguez eta Etxahun Lizarralde, gazte mailan Joanes Osés eta Manex Madinagoitia eta nagusien mailan Ibon Perez eta Iñigo Erle arituko dira. Aramendiak dio kadeteetan Amezketa dela "favorito" eta nagusietan "parekatuta" egongo dela; beraz,

gazte mailako neurketan egon daiteke gakoa.

**lazko arantza kendu nahi dute**

Begararak aho-zapore txarreakin amaitu zuen lazko Herri Artekoa, eta arantza hori "kendu" nahi dutela esan du Julen Aranburu entrenatzaileak. Kadete mailan, Aritz Etxabe eta Aratz Etxeberria, gazte mailan Aratz Ormaetxea eta Peru Alberdi eta nagusien mailan Ander Etxaniz eta Arri Otermin izango dira Bergarako pilotariak. Kanporaketan aurrera egiteko moduan daude-

la uste du Aranburuk: "Taldea motibatuta dago. Uste dut gure maila ematen badugu aurrera egin dezakegula. Kadeteen eta nagusien mailan bikote politikak ditugu, eta haien partiduak irabazteko moduan gaudela esango nuke. Gazte mailan, aldiz, ikusi egin behar zer gertatzen den. Ahalik eta tanto gehien egitea ere oso garrantzitsua izango da". 18:30ean ekingo diote bergararrek aurtengo Herri Artekoari, eta, gaur emaitza onak lortuz gero, datorren astean etxean borobildu nahi dute.



lazko Oñatiren eta Amezketauren arteko kanporaketa. IMANOL SORIANO

## Denboraldi borobilari ginga jartzea falta zaio UDARI

**FUTBOLA** Lau jardunaldiren faltan, kategoriako liderra da, eta eskura du Hirugarren Mailara igotzea

**Iñigo Barrena** DEBAGOIENA

Denboraldi bikaina egiten ari da UDA Ohorezko Erregional Mailan. Txapelketako liderra da eta izan da ligaren zati handi batean, eta Hirugarren Mailara igotzea eskura du Unai Calzonek zuzentzen duen taldeak. Lau jardunaldi besterik ez da falta liga amaitzeko, eta bi puntuko alde dute Eibar bigarren sailkatuarekiko eta bostekoa hirugarrena den Zaurantz taldearekiko.

Domekan (16:30) bertan lehen urratsa egiteko helburuarekin zelairatuko dira Deusto Donostiaren aurka, etxean. Ondoren etorriko da, agian, neurketa erabakigarria izan daitekeena; izan ere, Eibar taldearen zelaia bisitatuko dute; gero, etxean Oiartzun hartu, eta liga Elgoibarren zelaian amaituko dute. Aretxabaletarrek ginga jarri



UDAKo jokalaria gola ospatzen . I.S.

gura diote egiten ari diren amesteko denboraldiari, baina azken mendatea igotzea falta zaie. Bide batez, 2015. urtean lortu zuen UDAK azkenengoz Hirugarren Mailara igotzea, eta balentria errepikatu nahi du belaunaldi berri honek.

## Musakolako BTT irteera egingo dute domekan

Mendiko bizikleta gustuko dutenek hitzordua dute domekan; izan ere, Musakolako Jai Bartzordeak antolatuta, hamabosgarren Musakolako BTT irteera egingo dute etzi. Irteera goizeko bederatzietan izango da, Legarra plazan, eta bi ibilbide egiteko aukera egongo da: motza eta luzea; motzak 29 kilometroko ibilbide izango du, eta 950 metro

positiboko desnibela; ibilbidea luzeak, berriz, 36 kilometro eta 1.500 metro positiboko desnibela izango ditu.

Internet bidez izena emateko epea apirilaren 29an itxi zuten, baina egunean bertan ere, irteera baino ordubete lehenago, aukera egongo da izena emateko, 35 euroren truke. Nagusientzat ez ezik, aurten ere etxeko txikientzat Umeen BTT eguna antolatu dute. 10:30ean izango da irteera, hura ere Legarra plazan.



Realaren eta Valentziaren arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Real-Valentzia norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek: **Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.**

Partidua malatzaren 16an izango da, 22:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: malatzaren 9a.

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**



**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!



**Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!**

**goiena**  
**kide**

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia



Maiatzaren 1ean egindako pandero tailerra. MAIXA LIZARRIBAR

## Debagoieneko Trikitixa Egunerako dena prest

Dena prest dago bihar ospatuko den Debagoieneko Trikitixa Egunerako. 400 bat lagun espero dituzte antolatzaileek, eta Eskoriatza, Elgeta, Aretxabaleta, Aramaio, Soraluze, Bermeo, Bergara, Oñati, Antzuola eta Arrasateko jendea bertaratuko da

### Gontzal Belategi Zubia

Bihar ospatuko dute Arrasaten Debagoieneko Trikitixa Eguna. Urtero ospatzen den eguna da hori, baina modu ibiltarian egiten da. Elgetan ospatu zuten eguna joan den urtean, eta aurtentzen Arrasateren txanda izango da. Hirugarren buelta izango da aurtengoa; hau da, Arrasaten ospatuko den hirugarren aldia. Eskoriatza, Elgeta, Aretxabaleta, Aramaio, Soraluze, Bermeo, Bergara, Oñati, Antzuola eta Arrasateko trikitilariak bertaratuko dira aurtengo ediziora.

Egun osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek, baina aurretik ere tailerrak egin dituzte Maiatzaren 1ean izan zen lehen ekimena, pandero taillerekin. Izer eta Iraide Ansorenak eman zituzten tailerrak, Kultu-

rolan. Ondoren, *Soinuak duena* tailerra eman zuen Maixa Lizarribarrek. Gaur ere tailerrak egingo dituzte, arratsaldeko zortzietan, Portaloian. Hain zuzen, Vanesa Muelak emango du tailerra, eta askotariko perkusioak erakutsiko ditu.

### Trikitixa Eguna

Egitarau oparoa antolatu dute Trikitixa Eguneako antolatzaileek zaturako. 10:00etan emango diote hasiera egunari, Vanesa Muelaren beste tailer batekin. Ondoren, 11:30ean, eskolara banatu eta kalejiran ibiliko dira parte-hartzaileak. 12:30ean Portaloian bilduko dira eta haurrek emanaldia egingo dute han. Ondoren, kalejiran Garibaira joango dira, eta helduen txanda izango da han bertan. Kalejira

amaitzeko, 13:30ean Herriko Plazan geldituko dira, eta gazteen txanda izango da.

Ondoren, 14:00etan, lekuko aldaketa egingo dute. Hirugarren buelta horretako lehen lekuko aldaketa izango da. Modu horretan, Aretxabaletari egokitu zaio datorren urteko Trikitixa Eguna antolatzea. Horren ostean, hainbat kantu joko dituzte elkarrekin. Plazatik Uarkapera joango dira jarraian, eta bazkariari ekingo diote. Antolatzaileek 400 pertsonatik gora espero dituzte bazkaltzeko.

Bazkalostean, 17:30ean, kalejira erraldoia egingo dute parte hartzaile guztiek elkarrekin. Kalejira Uarkapen bertan hasiko da, eta poliki-poliki Herriko Plazara gerturatzen joango da. 19:00etan, Herriko Plazan, Iratzar

taldeak erromeria saioa egingo du. Erromeriaren doinuekin emango diote amaiera aurtengo Trikitixa Egunari.

### Trikitia, goranzko bidean

Eneritz Urrutia Arrasateko Trikitixa Eskolako irakaslearen arabera, Arrasateko eskola goranzko bidean dago eta trikitia, orokorrean, osasuntsu dago. "Gorabeherak izan ditu, guztiak bezala. Gazteengan eta txikiengan moda kontua izan ohi da, baina, gure ikuspuntutik, gorakada handia izan dugu jende helduarekin. Gazteak ere bada- toz, baina aurtentzen esparru horretan izan dugu gorakada. Oso polita da bizitzaren fase horretan bizitzari beste poztasun bat eman nahi izatea". Debagoieneko gainontzeko eskolak ere bide beretik doazela uste du Urrutiak.

Hala ere, goranzko joera hori ez da Debagoienera mugatzen. "Lehenengo taldeek boom bat edukitzen jarraitzen dute. Argi eta garbi ikusten da, Arrasate mailan, aurreko egunean Gozategik izan zuen arrakasta", adierazi du Urrutiak. Erromeria tradizionalak beheguzko joera izan duela uste du, betiere, Neomak, Huntza, Süne eta halako trikiti talde berriekin alderatuz gero. Hala ere, onartzen du gaur egun ere bizirik mantentzen direla erromeria tradizionalago horiek: "Tradizio hori beti mantendu da indartsu, eta gaur egun ere badu indarra. Egia da gazteenek, Maixa gure irakasle izanda, Maixa eta Ixiar entzun eta ez dituztela ezagutzen testuinguruan jarri arte. Hala ere, denborarekin kutsu hori mantentzen dutenek lotura egiten dute, eta hortik ulertu daiteke Aristerrazu moduko lekuek gazteen atean izan duten gorakada".

## Martxoaren 4ko egitaraua

### Perkusio tailerra

- 10:00

- Kulturaten

### Kalejirak

- 11:30

- Seber Altube plazan

### Testigu aldaketa

- 14:00

- Plazan

### Bazkaria

- 14:30

- Uarkapen

### Kalejira erraldoia

- 17:30

- Uarkapetik

### Erromeria Iratzar taldearekin

- 19:00

- Herriko Plazan

## Vanesa Muela perkusionista

Trikitixa Egunaren bueltan antolatu dituzten tailerretan gonbidatu berezi bat izango dute: Vanesa Muela. Laguna de Duero (Valladolid) herrian jaioetako musikaria da Muela. Abeslaria, askotariko instrumentu-jotzailea eta musika tradizionalaren dibulgatzailea da. Ezohiko elementuekin eta betiko instrumentuekin perkusioa jotzen erakusten du Muelak tailer horietan: koilarekin, zartaginekin, panderoekin eta abarrekin.

## 'Algaraka' bakarrizketa lehiaketak baditu lehiakideak

Hamabi bakarrizketari lehiatuko dira, guztira. Hamaika epaimahaikideek aukeratu dituzte; azkena, publikoak

### G.B.Z. DEBAGOIENA

Hamabi bakarrizketari lehiatuko dira *Algaraka* bakarrizketa lehiaketan. Hamabost pertsona aurkeztu ziren, guztira, lehiaketara, eta epaimahaikideek horietako hamaika aukeratu

zituzten: Xabin Fernandez, Maider *Mimi*, Joana Arakistain, Gaizka Sarasua, Ander Malbadi, Manex Astigarraga, Amaia Ruiz de Galarreta, Ion Martinez *Txiki*, Mikel Iriarte, Joxe Aldasoro eta Asier Galarza. Bestalde,

publikoak, boto bidez, bakarrizketari bat aukeratu zuen: Josu Arrizabalaga.

Lehiaketa maiatzeko lau egubakoitzetan egingo dute. Bergaran hasiko da, maiatzaren 10ean. Hurrengo biak Zumarraga-Urretxun maiatzaren 17an eta Zumaiian maiatzaren 24an izango dira. Finala, berriz, maiatzaren 31n izango da, Bergaran. Saio guztiak 20:00etan hasiko dira. Lehen saiorako sarrerak eskuragarri daude dagoeneko *seminarixoa.eus* atarian.



Algaraka-ren 12 lehiakideak. GOIENA



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 3. LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Oiarate kalean kokatuta dagoen Etxoste taberna errentan ematen da. Interesa izanez gero, idatzi mezu elektronikoa bat bat naiamcneill2000@gmail.com helbide elektronikora, edo deitu hurrengo telefono zenbakira: 605 43 93 04

## 4. LANA

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Umeen zein nagusien zaintza edota garbiketa lanetan aritzeko prest. Goizetan lan egingo nuke, arratsaldetan lan egiten baitut. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 94 30 78.

**Bergara edo Antzuola.** Emakume euskalduna arratsaldetan hiru edo lau ordu artean lan egiteko gertu. Zaintza lanak edo laguntzaile lanak egingo

## TABERNARIA

Bergarako Labegarieta tabernan langilea behar da. Interesatuok utzi curriculum tabernan.

nituzke. Deitu 637 52 89 83 telefono zenbakira.

**Bergara edo Antzuola.** Emakume euskalduna arratsaldetan hiru edo lau ordu artean lan egiteko gertu. Zaintza lanak edo laguntzaile lanak egingo nituzke. Deitu telefono honetara: 637 52 89 83

**Debagoiena.** Pertsonen zaintza lanean esperientzia duen emakumea. Berehala lanean hasteko aukera. Malgutasun osoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 27

**Debagoiena.** Emakumezkoa pertsona nagusiak

zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara: 677 00 90 26

**Debagoiena.** Etxetik kanpo bizi izaten pertsona nagusien zaintza lanean egin nahi dut. Asteburueran eta gauetan etxe zein ospitaletan lan egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono honetara: 602 80 15 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edota garbiketa lanak egingo nituzke, baita sukaldari laguntzaile lanak ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 26 66 18

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zein umeak zainduko nituzke edota garbiketa lanak egin. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 30 15 86

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

# Korosti

inmobiliaria

**Bergara: San Antonio,**  
69m<sup>2</sup> erabilgarri,  
2 logela, terraza,  
trasteleku eta garajea  
igogailuarekin.  
**203.000€**



**Bergara: Ibarra,**  
87m<sup>2</sup> erabilgarri,  
3 logela, ganbara eta  
trastelekua. Erabat  
kanpoaldekoa.  
**140.000€**

**Bergara: Aumategi bidea,**  
96m<sup>2</sup>, 3 logela, trastelekua  
duplexa egiteko  
aukerarekin; lur saila  
aparkaleku bezala  
erabiltzeko. **155.000€**



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)

Informazio  
gehiago:




## EZKONTZAK



**Garbiñe eta Luis Mari**  
Aretxabaletako bikoteak 62 urte bete zituen ezkontuta apirilaren 30ean. "Urteurren zoriontsua opa dizuegu etxeko guztiok. Maite zaituztegu".

**Ekhia eta Olatz**  
Ekhia Larzabal azkoitiarra eta Olatz Barrena oñatiarra zapatuan ezkontuko dira. "Segi orain arte moduan, pozik eta zoriontsu, urte pila bat. Etxeko guztion partetik".



## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**KAZETARI GAZTEAK GARAZI ABASOLOREKIN**  
Kurtzebarri BHI Eskolako ikasleek egin diote elkarrizketa mendi lasterkari eta nutrizionistari.

'Galdegazte' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30



**ZEIN DA BAILARAKO HERRI ABERATSENA?**  
Datuetatik tiraka atalean kontatuko dute zein den herri aberatsena, hainbat arlo kontuan hartuta.

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## URTEURRENA

**Jose Ramon Carmona Alonso**

'Mak'

2023ko apirilaren 30ean hil zen, 60 urte zituela.



Eskerrik asko azken urte honetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Baita urteurreneko-mezara gerturatu zaretenoi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.  
Arrasaten, 2024ko maiatzaren 3an.

## URTEURRENA

**Maria Arantzazu Urzelai Aiastui**

Juan Guridi Arriaranen alarguna

2023ko maiatzaren 6an hil zen, 89 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren eliza nagusian.

Elizkizunetara joango zareten guztioi eskerrik asko, familiaren izenean.  
Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

## URTEURRENA



**Aita Jose Pablo Madinabeita Barandiaran**

'Karmeldarra'

2023ko maiatzaren 5ean hil zen, Donostian, 91 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 5ean, 12:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko Ama parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Aretxabaletan, 2024ko maiatzaren 3an.

## URTEURRENA



**Ceferina Erostarbe Lazkano**

Rikardo Ibaeren alarguna

2023ko apirilaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

ESKER ONA

## Ana Mari Zubiagirre Uriarte

Federico Mendizabalen alarguna

2024ko apirilaren 24an hil zen, 91 urte zituela.



---

*Azken amasak eraman zaitu aittaita besarkatzera. Gure eredu izan zarete ta gatozkizue eskertzeraz. Udaberriko gau fresko honetan elkartu gara batera. Izar berri bat dago zeruan ta gatoz ospatzera.*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

---

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

ESKER ONA

## Teresa Delgado Hernandez

Casiano Leteren alarguna

2024ko apirilaren 25ean hil zen, 93 urte zituela.




---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

---

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Aretxabaletan, 2024ko maiatzaren 3an.

ESKER ONA



## Pilar Vitoriano Aguirre

Aniketa Gorosarriren alarguna

2024ko apirilaren 26an hil zen, 96 urte zituela.



---

*Tia amama laguna Emakume zintzo eta leiala, zure bizipoza eta irriparra gure bihotzetan gelditu dira. Eskerrik asko guztiagatik. Izugarri maite zaitugu.*

Mila esker hiletara etorri eta egun hauetan gurekin egon zareten guztioi.

---

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Eskoriatzan, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA



## Jesus Irizar Etxezarreta

"Txutxin"

2024ko maiatzaren 1ean hil zen, 74 urte zituela.



---

*Aitzindari, maisu, erreferente. Zure oinatzan bidea ez da inoiz ezabatuko. Eskerrik asko, Txutxin!*



---

Oñatz Dantza Taldea. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA

## Jesus Irizar Etxezarreta

"Txutxin"

2024ko maiatzaren 1ean hil zen, 74 urte zituela.



---

*Lurrean bidelagun, Zeruan izar distiratsua. Segi dantzan gure txistuarekin. Ez adiorik, gero arte baizik*



---

Oñatiko Aita Madina Txistulari Taldea. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA



## Jesus Irizar Etxezarreta

"Txutxin"

2024ko maiatzaren 1ean hil zen, 74 urte zituela.



---

*Gure sokaren aitzindaria. Eskerrik asko, Txutxin!*

---

Oñatz Dantza Taldeko dantzari ohiak. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA

## Joxe Mari Zubia Barrena

2024ko apirilaren 26an hil zen, 65 urte zituela.



---


*Nere abotsa entzuten dokenean hator nigana. Hemen txorien besarkadaz altxatuko gaittuk, zabaldu egik begixak hegazka habilen tartean.*



---


Mendibuealtako lagunak. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA



## Jesus Mondragon Zubizarreta

2024ko apirilaren 30ean hil zen, 76 urte zituela.



---

*Jesus laguna, beti izango zaitugu gogoan.*

---

Zure kuadrilla. Arrasaten, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA

## Maria Carmen Urizar Larrañaga

2022ko maiatzaren 2an hil zen.



---

*Duela bi urte esan genizun agur eta guregan bizi zara harrezkero. Asko maite zaitugu*

---

Zure familia. Bergaran, 2024ko maiatzaren 3an.

OROIGARRIA

## Joxemari Zubia Barrena

2024ko apirilaren 26an hil zen, 65 urte zituela.



---

*"... eta izarren hautsa ziñalako esentzian,*

*Berau bilakatuko zara berriz.*

*Izan libre..."*


---

Bere familia. Oñatin, 2024ko maiatzaren 3an.

ESKELA

## Jesus Mondragon Zubizarreta

2024ko apirilaren 30ean hil zen, 76 urte zituela.



---

Bere emaztea: Begoña Galindo; semea: Ion; anai-arrebak: Isabel, Ramon (†), Manolo, Rosa Mari eta Espe; ezkon anai-arrebek, ilobek, lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideek jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue eta Jesus senitardean agurtua izango dela jakinarazten dizue.

---

Arrasaten, 2024ko maiatzaren 3an.

**BADESLEA**

# Oroilore

*Hileta zerbitzuak*

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gure artean agarnitako guztiei esan bidea azaritzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango date agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak guzan izan dituen konfiantzagarri eta maitasunagatik.*

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Elena Arrazola Aranburu**  
Maiatzaren 9an, 6 urte.  
Zorionak, Elena! Primeran pasau zure urtebetetze eguna famili eta lagunartian. Laztan haundi bat etxeko danon partetik.



**ARRASATE**  
**Peru Madinabeitia Lasa**  
Maiatzaren 8an, 2 urte.  
Zorionak, sagutxo! Bi urtetxo jada! Patxo haanaundi bat etxeko partetik!



**ARETXABALETA**  
**Lia Mengual Fernandez**  
Maiatzaren 8an, 2 urte.  
Zorionak, maitia! Patxo Potolo bat danon partetik! Asko maite zaitugu.



**ARRASATE**  
**Itsaso Ginart Velez de Mendizabal**  
6an, 7 urte. Zorionak, laztana! 7 urtetzar dagoeneko, handitzen handitzen! Ondo ondo pasala! Asko maite zaitugu!



**BERGARA**  
**Elene Gabilondo Muguruza**  
Maiatzaren 4an, 8 urte.  
Zorionak, maitxia! Segi zan modukou izaten. Patxo haundi bat familixako danen partetik.



**ARRASATE**  
**June Andres Lopez**  
4an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Oso ondo pasa zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik. Izugarri maite zaitugu!



**OÑATI**  
**Karen Perez Arregi**  
Maiatzaren 3an, 3 urte.  
Zorionak, Karen! Egun polita pasa aitekin eta Oliverrekin. Muxu pila bat.



**OÑATI**  
**Ane Urigoen Osa**  
3an, 11 urte. Zorionak, Ane! Egun polit bat pasau familixa eta lagun artian. Besarkada eta patxo haundi bat maite zaitugun danon partetik!



**BERGARA**  
**Hodei Bolibar Sanchez**  
Maiatzaren 3an, 10 urte.  
Zorionak, Hodei! Topera disfrutau zure urtebetetze eguna. Muxu haundi haundi bat etxeko danon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Aimar Loiti Etxeberria**  
Maiatzaren 2an, 4 urte. 5 egun, 4 egun, 3, 2, 1, 0! Azkenien heldu da zure eguna! Zorionak Aimar! Egun politxa pasau! Patxo bat, familixa danan partetik!



**ARRASATE**  
**Unai Uribeetxeberria Errasti**  
30an, 5 urte. Zorionak! Bizia zainetatik ziztu bizian doala...5 urtetzar honezkero! Izan zoriontsu! Patxo bat etxeko partetik!




**IBARRA**  
**Enaitz OIlden Arejolalebia**  
Apirilaren 29an, urtebete.  
Zorionak, politoi! Ondo ondo ospatukou zure lehenengo urtebetetzea! Musu haundi bat Atxabaltatik!



**DEBAGOIENA**  
**Alluiz Aznal Azpeitia**  
Apirilaren 29an, 2 urte.  
Zorionak, famiili guztiaren partetik! Ondo ondo pasala!



**OÑATI**  
**Lur Erretolaza Agirre**  
Apirilaren 29an, 4 urte.  
Zorionak, Txapeldun! Oso ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik.



**ELGETA**  
**Haizea Agirre Osa**  
Apirilaren 27an, 8 urte.  
Hainbeste maite zaituen familiaren partetik, Zorionak, Printzes! Primeran pasatuko dugu denok batera.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 3

## ESKORIATZA Atxorrotx Eguneko meza

Herritar guztiendako.  
*Gurutze Santuaren ermitan, 12:00etan.*

## ELGETA 'Urmaeleko biodibertsitatea' saioa

16:30ean, eskolan, *Uraren hegoak* erakusketa, eta ostean, urmaelaren biodibertsitatea ezagutzeko saioa Aranzadi Zientzia Elkarte kide baten eskutik.  
*Elgetan.*

## ARRASATE Haurren danborrada: izen-ematea

Gaur eman daiteke izena.  
*Kulturolan, 17:00etatik 18:00etara.*

## ELGETA Areto-futbol txapelketa

9-16 urte artekoendako  
*Bolatokiko kantxan, 18:00etan.*

## ESKORIATZA Dokumentalen proiektzioa

*Udalatx. Ura eta atxa eta Zuloan zu?* emango dituzte.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## BERGARA 'Elosuko Gaztelu Nafarra. Egia ala mito?' hitzaldia

Andoni Larrañagak egingo du berba.  
*Irizar jauregian, 19:00etan.*

## ARETXABALETA 'Sehaska kanta gorriari' antzezlan

Arta Kolektiboak sortutako lana, Alaine Agirre idazlearen *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* liburuan oinarrituta.  
*Arkupen, 20:00etan.*

## BERGARA Bakarrizketa saioa

Bergarako Sortuk antolatutako Udaberri Feminista ekimenaren baitan, Ane Lindane umorista bizkaitarraren emanaldia.  
*Arrano tabernan, 22:30ean.*

## ZAPATUA 4

## BERGARA Elkartasun azoka

Mariaren Lagundia Ikastolaren eskutik, askotariko postuekin.  
*San Martin plazan, 09:00etan.*

## ESKORIATZA San Juan Txiki Eguna

10:00etan, etxafuegoak eta kanpai-jotzea; ordu berean, San Juan Txikira igoera; 11:00etan, meza; eta 11:30ean, salda eta txorizo-pintxoak, musikak girotuta.  
*San Juan Txiki ermitan.*

## ARRASATE Hiruko saskibalo txapelketa

Leintz Eskola Kirolaren eskutik. Orduetgia: 10:00-13:00 eta 15:00-18:30.  
*Jose Maria Arizmendiari plaza.*

## ESKORIATZA Loratu: Lore azoka

Axtroki merkataritzaren elkarteko komertzioetan txartelak eskuratu daitezke, azoka egunean loreak doan hartzeko.  
*Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.*

## ARETXABALETA Udaberri Jaia

Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean, herri-jolasak, kalejira, plaza-dantzak eta jolasak, tailerrak eta buruhandiak, besteak beste.  
*Aretxabaleta, 10:45ean.*

## BERGARA Bisita gidatua

11:00etan eta 12:30ean. Erreserba egiten duen lehenengo pertsonak aukeratuko du bisita mota eta hizkuntza. Izena: 943-76 90 03.  
*Laboratoriumen.*

## ARRASATE 'Makinak gara' tailerra, familian

Arraguak dinamizatuta.  
*Kulturaten, 11:00etan.*

## ARRASATE Debagoieneko Trikitixa Eguna

400 trikitilari inguru elkartuko dira eta Arrasateko hainbat txokotan jardungo dute, taldeetan banatuta.  
*Arrasaten, 11:00etan.*

## LEINTZ GATZAGA Etxekalte eta The Clayton taldeak

Makilakorta Fest jaialdiaren baitan.  
*San Migel plazan, 11:00etan.*

## ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurrenerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30.  
*Erguingo gazte txokoa, 11:30ean.*

## OÑATI Xabier Ugarteri omenaldi kontzertua: 'In memoriam'

Madrilgo Euskal Etxeko Orfeoik eta Oñati Abesbatzak egingo diote omenaldia.  
*Bidaurretan, 12:30ean.*

## ARRASATE 'Kutxartean' antzezlan

Umeendako. Sarrerak, bost euro.  
*Amaia antzokian, 17:00etan.*

## ARETXABALETA 'Bizkarsoro' filma

Josu Martinez zuzendariaren lana. Debalde.  
*Zaraia aretoan, 17:00etan.*

## BERGARA Kontzertua: Korrontzi eta Moises Azpiazu dantza taldearen 'K. Dantzan'

Korrontzi taldea eta Moises Azpiazu dantza taldea elkarrekin. Sarrerak, zortzi euro.  
*Udal pilotalekuan, 21:30ean.*

## DOMEKA 5

## ARRASATE 'Bakue-Kortaburu-Etxezarreta' ibilaldia

10,5 kilometrokoa. Izena emateko: 943-25 20 00.  
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

## ESKORIATZA Atxorrotx Eguna

09:00etan, diana txistulariekin; eta 18:00etan, erromeria, herrian. Atxorrotx barra egongo da.  
*Eskoriatzan, 09:00etan.*

## ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Izena emateko: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus.*  
*Mendizaleen plazan, 10:30ean.*

## BERGARA Irukurutzeta Eguna

Salda banatuko dute tontorrean.  
*Irukurutzetan, 11:15ean.*

## BERGARA Santikurutz Eguna

12:30ean, meza; eta ostean, trikitilariak eta luntxa.  
*San Juan auzoan.*

## ARRASATE Arrasate Musikaleko txistulariak

Udaberri Zikloaren baitan.  
*Juan Arzamendi Musika Etxean, 12:30ean.*



ARTA KOLEKTIBOA

### BERGARA Txistulari Bandaren kontzertua

Hamar pieza eskainiko dituzte. *Osoko bilkuren aretoan, 13:00etan.*

### ELGETA Kantu jira

*Elgeta kantuan* liburuak abestiak kantatuko dituzte. *Mendizaleen plazan, 13:00etan.*

### OÑATI Haur eta gazte abesbatzen topaketa

Gangara Faktoriak antolatuta. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 6

### DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio publiko duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Arrasaten eta Aretxabaletan. *Herri horietan, 12:00etan.*

### ARRASATE Haurren danborrada: izen-ematea

Gaur eman daiteke izena. *Kulturoloan, 17:00etatik 18:00etara.*

### OÑATI 'Sonidos en el recuerdo' erakusketa

Javier Solerrek urtetan batutako irrati zaharren bilduma ikusgai, gaurtik hilaren 19ra arte. *Kultura etxean, 18:00etan.*

## MARTITZENA 7

### ARAMAIO 'Emakumearen zikloak eta osasun hormonalak' ikastaroa

Garbiñe Larreak emango du, Lorabari Astearen baitan. Plaza mugatuak. Izena emateko: 665 70 21 92. Prezioa: hamar euro. *Erretiratuen elkartearen, 17:00etan.*

### BERGARA 'Errozabalgo guda eta Iruñeko erresumen sorrera' hitzaldia

AEBetako Nevada Unibertsitateko katedradun Xabier Irujok egingo du berba. *Olaso dorrean, 18:00etan.*

### ARRASATE Katearen Loturak elkartearen aurkezpena

Elkartea aurkeztu eta patologia dualaren gainean –mendekotasuna

### ARETXABALETA 'Sehaska kanta gorriari' antzezlan

Arta Kolektiboak sortutako lana da, Alaine Agirre idazlearen *Bi aldiz erditu ziren nitaz, ama* liburuan oinarrituta. Irene Balzategi y Amaia Castañeda oñatiarrak eta Gentzane Martinez egongo dira oholtza gainean. *Gaur, egubakoitza, Arkupen, 20:00etan.*

eta buru-nahastea– hitz egingo dute hainbat adituk. *Kulturaten, 18:00etan.*

### ARRASATE 'Familian, sexualitateaz hitz egiten' hitzaldia

0-5 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako, Sexologia Zerbitzuaren eskutik. Izena emateko: 943-25 20 00. *Kulturaten, 18:00etan.*

### ELGETA Hitez Pitz irakurketa taldea

Saio irekiak. Izen-ematea, liburutegian. *Liburutegian, 19:00etan.*

### ARRASATE Laburbira

Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 8

**ELGETA Erretiratuak, Ordiziara** Geldialdiak egingo dituzte Ordizian, Donostian, Aginagan eta Getarian. *Mendizaleen plazan, 09:15ean.*

**ARETXABALETA 'Arantzazu: 36 zm, 5 mende, herri 1' dokumentala** Pello Sarasua zuzendariarekin. *Arkupen, 10:00etan.*

**ESKORIATZA 'Sasi guztien artetik' masterraren bigarren jardunaldia**

*Bizkarsoro* filmaren zuzendari Josu Martinezek, Xabier Irujo

historialariak eta Alaitz Aizpuru filosofoak egingo dute berba. *Huhez, 16:00etan.*

### BERGARA Kafe Konpon

Etxeko tresna txikiak konpontzeko. *San Joxepe elkartearen, 16:00etan.*

### ARAMAIO Xanpu solidoa egiteko ikastaroa

Lorabari Astearen baitan, Izpiliku kosmetika naturalaren eskutik. Plaza mugatuak. Izena emateko: 665 70 21 92. Prezioa: hamar euro. *Erretiratuen elkartearen, 17:00etan.*

### BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

### BERGARA Etxeen alokairuari buruzko aholkularitza

Alokairuen inguruko jardunaldien baitan, Kontseilu Sozialistak eta Etxebizitza Sindikatuan antolatuta. *Zubitzako eskolan, 18:30ean.*

### ARRASATE 'Euskararen aukerak eta mehatxuak adimen artifizialaren etorrerarekin' hitzaldia

Igor Leturiak egingo du berba. Herritar guztiendako. *Kulturaten, 19:00etan.*

### BERGARA 'Le successeur' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 9

### BERGARA Bergara Oinez

Herritar guztiendako paseoa. Iraupena: 60-90 minutu. Denboraldiko laugarrena. *Agorrosinen, 10:00etan.*

## ZINEMA

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**Maria Montessori** Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.  
**Emma y el jaguar negro** Domeka: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Pequeñas cartas indiscretas** Egubakoitza: 22:00. Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka eta astelehena: 19:30.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Pequeñas cartas indiscretas** Egubakoitza: 19:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 19:30. Martitzena: 17:00, 20:15.

**La familia Beneton** Zapatua eta domeka: 12:00.

**Menudas piezas** Egubakoitza: 20:30, 22:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 20:30, 22:30. Astelehena eguena: 19:45.

### Civil war

Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehena eguena: 19:15.

**Dragonkeeper** Egubakoitzetik domekara: 18:30. Astelehena eta eguaztena: 17:00.

**Siempre nos quedará mañana** Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:15, 21:45. Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:45, 19:15. Martitzena: 16:45.

**Ama Gloria** Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30. Martitzena: 16:45.

### El especialista

Egubakoitza: 16:30, 19:30, 21:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 19:30, 21:00. Astelehena eta eguaztena: 19:15. Martitzena: 19:30. Eguena: 20:00.

**Rivales** Egubakoitza: 16:45, 22:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45, 22:00. Astelehena eguena: 19:15.

**Gardfield: la película** Egubakoitza: 16:30, 18:45. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:45. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:00.

### ARRASATE Sasoibide

Bi ibilbide aukeran: bata, Loora; eta bestea, Loora eta Obenerrekara. *Biteri plazan, 10:00etan.*

### ARAMAIO Konbutxa eta kefir ura egiteko ikastaroa

Lorabari Astearen baitan. Plaza mugatuak. Izena emateko: 665 70 21 92. Prezioa: Hamar euro. *Erretiratuen elkartearen, 17:00etan.*

### ARRASATE Komiki Kluba

Antonio Altarribaren *El cielo en la cabeza* komikiaren gaineko saioa, Joseba Gomezek gidatuta. Egilea egongo da saioan. *Kulturaten, 18:00etan.*

### ARETXABALETA 'Pornografia, gaur egungo sexu-heziketa ote?' hitzaldia

Eider Goiburu Morenok egingo du berba. *Arkupen, 18:00etan.*

### BERGARA Pintura erakusketa

Eduardo Alsasuaren lanak ikusteko azken egunak: domekara arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

### BERGARA 'Hablemos de sexo, pensemos con-ciencia' hitzaldi antzeztua

Natalia Urteaga sexologoarekin eta Jaione Fernandez de Jauregi narratzailearekin. Debalde. *Irizar jauregian, 18:30ean.*

### ARETXABALETA Literatura solasaldia

Eneko Barberenaren *Suak erreko ez balu* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Liburutegian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Laburbira 2024** Zortzi film labur emango dituzte. *Arkupen, 19:00etan.*

**ARAMAIO Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa** Lehenengo kanporaketa. *Sastiñan, 19:00etan.*

### OÑATI 'FutbolisTOK' bakarrizketa

Futbola eta osasun mentalaren gaia bateratzen dituen Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa. *Santa Ana antzokian, 19:30ean.*



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

## Berpiztua

Iragan asteburuan, Gonzalez Iñarriguren *The Revenant* (Berpiztua) ikusi genuen etxean. Ederra bezain gogorra. Missouri ibaiak ardatzen duen paisaia zoragarriaz gozatuko du ikusleak; zer esanik ez DiCapriok (Hugh Glass) egiten duen paperaz.

XIX. mendeko larru-ehiztari bat izan zen Hugh Glass. Ezagun ez ezik mito ere bilakatu zuen denboraren iraganak. Ez da gutxiagorako; izan ere, kronikak dioenez, Missouri ibai inguruan ehizan zebilela grizzly hartz batek bortizki eraso zion, ia hilik uzteraino. Hain zegoen larriki zauritua, ezen bere kideek lurrean hobi bat eginda bertan uztea erabaki baitzuten, hilotz izango zela segur jota. Hilotz uste zuten hori, ordea, doi-doi hobitik arrastaka atera omen zen, mendeku goseak eman bide zion indarraz baliatuta. Aste luzeetan naturaren gordintasunean bizirautea lortu zuela diote, ibilbide neketsuan hamaika arriskuri aurre eginez.

Ikusleak filmean zehar behin baino gehiagotan hiltzat jotzen du protagonista, baina ez! Behin eta berriz erratuko da.

Kultur espresio ederra da zinema. Bere dohainen artean errealtatetik abstradituta urrun bidaiatzearena da bat. Oraingo honetan, ordea, zer nahi duzue esatea... aipatu istorioak Dakotara baino gehiago Moncloara eramán du nire burua.

## BUKATZEKO



Ointxapeldunak! taldeak Iturripen egindako entrenamendu saio batean ateratako talde argazkia. ANGEL AYASTUY

# Ointxapeldunak! taldeak hasi du bere ibilbidea

Debagoieneko jokalariz dago osatuta Ointxapeldunak! saskibalo talde inklusiboa, eta, hain zuzen ere, nesken eta mutilen taldeak osatzea eta ligan lehiatzea ditu helburuen artean. Domeka iluntzean egiten dituzte entrenamenduak, Iturripen

**Oihana Elortza Gorostiza** ARRASATE Saskibaloian lehiatuko den Ointxapeldunak! talde inklusiboa sortu berri du Ointxe!-k. Hasita daude entrenamenduekin, baina liga baten barruan lehiatzea da helburua: "Datorren ikasturtean, ahal izanez gero".

Mondragon Unibertsitateko nesken lehen mailako taldea zuzentzen duen Iñaki Ogara *Arri*

dute entrenatzaile jokalariek. "Aspaldi hasi ginen lantzen Ointxe! elkartean saskibalo inklusiboa sustatzeko proiektua, eta oraintxe egin dugu aurkezpena. Baskonia Mixek Ability taldearekin harremanetan jarri ginen, eta euren laguntza izan dugu honetan. Baita Gureak-ekin eta taldearen babesle izango den Smartlog enpresarekin ere".

**Bailara izaerako taldea** Ogaranen esanetan, talde "nahasia" da Ointxapeldunak!, eta bailarako jokalaria hartzea da asmoa, Arrasaten sortu den arren: "Adimen desgaitasuna dutenek, gurasoek, Ointxe!-ko beste jokalariek zein boluntarioek hartzen dute parte talde honetan. Egun, 11 eta 54 urte arteko jokalaria daude. Neskek eta mu-

tilek osatzen dute, baina asmoa bada etorkizunean nesken eta mutilen taldeak egitea. Eta baita talde horiek liga baten barruan jokatzeko ere. Hori ez da erraza izango, egia esan, egun Bizkaian bakarrik dagoelako liga inklusiboa; Gipuzkoan eta Araban ez dago. Baina saiatuko gara. Datorren ikasturtera begira egon barik, baina, ekainean Arrasaten partidu bat jokatzeko da gure helburua; ziurrenik, gasteiztarren kontra".

Domeketan egiten dituzte ordu eta erdiko entrenamendu saioak, Iturripen, 18:00etan. Saskibaloian jokatu eta Ointxapeldunak! taldeko parte izan gura duen bailarako edonor joan daiteke bertara informazioa eskatzera edo taldeko kide izateko bere asmoa adieraztera. Ointxe saskibalo taldearekin harremanetan jarrita ere egin dezake.

## GARAZI ABASOLO

NUTRIZIONISTA ETA MENDI LASTERKARIA

**GOIENA TELEBISTA, 'GALDEGAZTE' SAIOAN**

MAIATZAREN 7AN, MARTITZENA, 19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

**ARETXABALETAKO KURTZEBARRI BHI ESKOLAKO IKASLEEK**

**EGINDAKO ELKARRIZKETA**



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

